

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-10-11
EGUBAKOITZA
569. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Euren premiak asetzeko egin dute ituna EAJk eta PSE-EEk"

Pello Urizar

EAKo idazkari nagusia | 7



320 bat lagun Arrasate-Oñati lasterketan

Bihar, zapatua,
17:00etan abiatuko
dira patinatzaileak | 28

UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA
Saritutako parte-hartzaileen izenak | 2



Abian da Ostegun Akustikoak
lehiaketa, musikariei begira | 23



Durana azken joeren erakusleiho
bilakatuko da gaur, barikua | 22



ASKO DAGO EGITEKO

Ibaien eta erreken egoerak
hobera egin du, nabarmen,
urteotan; baina haien osasuna
berreskuratzen zeregin handia
dago oraindik | 3

Jon Ugarte, Gipuzkoako Diputazioko basozain oñatiarra, Deba ibaiko ura hartzen, Ekilore ondoan; bazterrean ikusten da zikinkeria pilatuta. | JAGOBA DOMINGO

Autobus zerbitzuak hobetzeko asmoz, batzarrak egingo dituzte herritarrekin

Datozen asteotan egingo dituzte batzar irekiak herririk herri, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez. Lehenengoa gaur izango da, Leintz Gatzagan. Prozesuak 2014ra arte iraungo du. Mugi txartelaren ostean, garraio gabezia handienak dituzten eskualdeetan egin gura du lan. | 6

SINADURAK

Itun politikoetako zorua | 8
ELENA LAKA

Goseak hil, eta ez Afrikan
LEIRE KORTABARRIA

Oharra sorgin eskolatik! | 26
SONIA ETXENAUZIA

Igeldo vs Bergara
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 3 | DEBAGOIENA 5 | ELKARRIZKETA 7
JIRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31
ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36
EZKONTZAK 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

ZURE BIGARREN
VARILUX
LEIAR PROGRESIBOAK
OPARI*

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA



UDAKO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.net/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



Hauek dira irabazleak!

1



BILBO 2045 NON DAUDE DANAK? / Xabier Atxa Zugasti / Arrasate
Oporretako erretratu gordina. Hondartza eta beste inguru batzuk betetzen diren bitartean hiri askok estampa hau hartzen dute. Argazki grafikoa.

2




FANAZ ARROPA SIKATZEN. / Arkaitz Laskurain / Oñati
Azalpen gutxi behar dituen argazkia. Sikatuko ote ziren arropak?

3



GLASGOW. Mikel Zamora / Aretxabaleta
Originaltasuna, graffittian txertatzeko ahalmena eta protagonistaren abilezia dira saritu direnak.

HERRITARREN SARIA



STAUSEE GIBIDUM. / Iñaki Uribe-Etxebarria / Eskoriatza
"Stausee Gibidum" Iñaki Uribe-Etxebarria eskoriatzarraren argazkiak jaso ditu boto gehien.

BOTO EMAILEEN
ZOKKETAN IRABAZLEA

Ana
Belastegi Aranzabal
Bergara

150 LEHIAKIDETIK GORA

Aurtengo edizioan 150 lagun baino gehiagok hartu dute parte. Guztira, baina, 500 argazki baino gehiago jaso ditugu. Gustura egindako lana izan da, baina ez duzue batere erraztasunik eman; asko dira eta saria merezi dutenak. Batzuk freskoak direlako, besteak barrea eragiten dutelako; teknika aldetik zainduta daudenak jaso ditugu, eta baita erretratua ateratzean ederto zebiltzala erakusten dutenak ere. Argazki horiek guztiak dute gurean lekua, horrenbestez, datorren urtean ere animatu!

GOIENA POZIK

lazko erantzun zabalari eutsiz, bederatzigarren edizio honek erakutsi du debagoiendarren artean lehiaketa finkatu dela. Alde horretatik, oso pozik dago Goiena, parte-hartzea handia izan delako.

Urriaren 18ko egubakoitzeko Goiena paperean izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.


Sariak



1. saria

Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



HERRITARREN SARIA



2. saria: Bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Orioko AISIA hotolean Arrasate Bidaiak-en eskutik.
3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
Herritarren saria: Google Android sistemadun 7 hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurrekin
karibu
munduko zapoak
karibumundukosapoeak.com

"Ibaiak bakean utzi behar dira"

- ▶ Deba ibaiaren eta haren adarren egoerak nabarmen onera egin arren, badago zeregina
- ▶ Herritarrok ibaien bizitasunaz jabetu eta kontzientzia hartzea oso garrantzitsua da

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Oraingo astea ezker, Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako Ura eta Errekak astearren bueltan, gure ibarreko ibai eta errekek, eta ura orokorrean, ditugu berbagaietako bat agendan. Herriz herri antolatu dituzte errekek protagonista dituzten ekimenak. Eta besteak beste, oraingo domekarako errekek garbitzera irtengo dira debagoien-
dar ugari, auzolanean.

Izan ere, dudarik ez dago Deba ibaiaren egoerak onera egin duela urteotan. Herri barruetako urak, batez ere, gardenago ikusten dira. Arrainak ugaritu egin dira, urtetan desagertuta egon diren hegaziak sarriago ikusten ditugu han-hemenka, eta, landare kontuak begiratuta, hor ere izan da hobekuntza nabaria.

Horretan diharduten adituek datu objektiboak dituzte esandako guztia berretsi eta ikuspuntu positibo hori babesteko.

Baina aditu horiek ez dute zalantza izpirik esateko –eta kasu honetan ere datu objektiboetan oinarrituta dihardute berbetan– Deba ibaiak ematen dituela Gipuzkoan "oraindik ere emaitzarik txarrenak" uren kalitateari dago-kionez. Eta baita ere Deba ibaia dela "munduan oztopo gehienetakoa dituen".

Onera, bereziki 3-4 urteotan

Jon Ugarte oñatiarra basozaina da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurumenaren Garapeneko basozaina eta erreken eta arrantzaren kontrolaz arduratzen dena, hain zuzen ere.

Datu positiboetatik hasita, hura da lehena onartzen "Deba ibaia asko" hobetu dela 40-50 urtetik hona, "eta, bereziki, azken hiruzpalau urteetan".

Lau esparruren azterketetan oinarritzen du baieztapen hori.

Uraren kalitatea

"Asko hobetu da. Batez ere, saneamenduari esker eta enpresek egin duten lanengatik".

Azken horiekin lotuta, Ugartek gogora ekarri du "enpresek ur-saneamenduan dezente hobetu" dutela, "askotan laguntza publikoekin, eta ondorioz erre-kara ura garbiago isurtzen da". Bestela esanda, industriendako kolektore eta saneamenduak egiteko.

Enpresekin segituz, beste aldagaietako bat da fabrika batzuk itxi egin direla, "krisiarengatik edo bestela; edo euren produkzioa aldatu" egin dela. "Adibidez, Arrasaten indar handia izan dute Zerrajerak eta bainu elektrolitikoak egiten zituzten enpresek, eta horien produkzioa txikitu egin da, edo desagertu".



Gure erreka eta ibaiak hobera egin duten seinale ugari dago; adibidez Oñati eta Oleta arteko erreka. | IRATI GOITIA

Eta bestelako saneamenduari dagokionez (batez ere, udal-errietako ur-zikinen saneamenduari dagokionez), urtetan egin diren araztegiak eta kolektoreak dute kasu horretan garbitasunean zeresanik handiena (xehetasunak beheko taulan).

Arrainak, hegaziak

Erreken osasunaren beste adierazgarri bat izaten da bertako bizitza. Arrainak dira, akaso,

DATUA

58

KILOMETRO

Deba ibaia da Euskal Herriko bosgarrena, luzerari dagokionez; hain zuzen ere, 58 kilometro ditu.

Ibaitan egin diren azpiegiturak

ARAZTEGIAK

Bi araztegi eraiki dituzte azken bost urteotan Deba ibaiaren ubidean: Mekolalde eta Epele.

Mekolaldekoa eraiki zuten lehenengo; 2008an hasi zen Bergarako, Elgetako eta Antzuolako urak garbitzen.

Epelekoa, berriz, iaz hasi zen urak garbitzen. Kasu horretan, Leintz bailarakoak eta Oñatikoak. Hain justu ere, Epelekoa da Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren sareko araztegi handienetako bat.

KOLEKTOREAK

Araztegiak euren lana egiteko, baina, beharrezkoa da ur-zikinen bertara bideratzea. Eta horixe da gure ibarreko udalek lehenengo egin zutena: herrietako ur-zikinen bideratzeko kolektorea eraiki. 2004an hasi ziren lehen kolektoreak eraikitzen.

errazen antzematen ditugunak. "Ura da oso esker onekoa. Pittin bat lagundu eta bakean uzten bazaio segituan bueltatzen da bizitza. Ikaragarria da oso-oso denbora laburrean zela hobetzen duen, bakean utziz gero. Ibaian kasuan, kontuan hartu behar da dena dela sare bat eta dagoela konektatuta erreka txiki askorekin. Erreka txikietan arrainak -eta mugitzen dira, eta bizirauteko babeslekuren bat izan badute arrainek, gero Deba ibai nagusia kolonizatu egiten dute, eta gaur egun ezkailluak, loinak, amuarrainak, zarboak... ikusten dira".

Arrainekin batera, hegaztien populazioa ere bada kontuan hartzekoa: "Fauna asko ugaritu da. Jendeak asko lotzen du hori ahateekin. Baina horiek ez dira erreka garbi doanaren adierazgarri, haiek fondotako landareak jaten dituztelako. Baina badaude beste animalia batzuk (lertsunak edo gartzak) arrainak jaten dituztenak. Eta horiek hasi dira gero eta gehiago ikusten. Ubarroiak ere ikusten dira, ur-zozo ugari, martin arrantzale batzuk ere bai (horiek zorrotzagoak dira eta erreka garbiagoak behar dituzte), buztanikarak... Horiek badira >

Herritarrek zer egin dezakegu?

KONTZIENTZIATU

Erakundeez gainera, noski, herritarren esku ere badago ibaien osasunaren zaintza. Hala, lehen egin beharrekoa da haien garrantziaz jabetzea eta kontzientzia hartzea ibaiak eta errekek biziak direla.

ISURKETEKIN: 112

Isurketaren bat gertatu dela ikusiz gero, oso garrantzitsua da 112ra deitzea. Eta dagokiona joango da aztertzer eta ikustera zein den arazoa.

LURRERA EZ BOTA

Akaso, ez zaigu horren agerikoa gertatzen, baina inportantea da gau zak (plastikoak eta paperak, adibidez) lurrrera ez botatzea kalean. Normalean, haizeak altxatu eta errekarera eramaten ditu.

> erreken osasun hobearren adierazgarri", azaldu du Jon Ugarte basozainak.

Landareak

Azkenik, landareen ugaltzeak ere zeresan handia dauka erreken osasunean. Eta kasu horretan "Euskal Herrian dugun klimarekin landaretza samur" etortzen da, Ugartek dioenez.

Gauzak horrela, beraz, zer da orain egiteke dagoen hori? Eta herritarrok zer egin dezakegu?

Egitekoak: erreka bakean laga

"Lan handia dago errekek berreskuratzen, erreka bazterrak hobetzen. Eta lan handia dago erreka bakean uzten. Hemen edozein obra egiten denean (autobide bat, errepide bat, industrialde bat, abiadura handiko tren...) errekarri egurra ematen zaio. Ematen du lurra ez dela kutsadura, baina lur mugimendu handiak egoten dira eta errekek etortzen dira marroiak, beltzak... astindu handia izaten da. Urteekin, denborarekin errekupeperatu egiten da, erreka oso bizia delako, baina utzi egin behar zaio bakean".

Gaur egungo adibide bat jarri du Ugartek hori ilustratzeko. Are gehiago, adibide berbera jarri du hark orain Debagoienean dugun puntu beltzetako baten moduan: Deskarga. "Ikusgarria da. Autobi-dearekin dabilta, trenarekin ere bai, eta erreka etortzen da egun batean kolore baten eta beste baten beste kolore baten. Gauza bera pasatu zen Leintz Gatzagatik Arrasateraino, batez ere, Eskoriatzako errekei trenarekin eta autopistarekin egur handia eman zaie, eta berdin Aramaio errekarri Abiadura Handiko Trenak".

Egitekoak: oztopoak kendu

Oztopoak dira gure ibaiak dituen beste gako negatiboetako bat, kopuru esanguratsua du, gainera, Debak: 200 bat oztopo, "munduan oztopo gehienetakoa dituen erreka da. Bere historian beti erabili da erreka ura errotak mugitzeke, argindarra ateratzeko, burdinoletarako, industriarako..."

Kasu honetan, animalien joan-etorrian eta erreken ur-emarian eragiten dute oztopoak. "Presu ugari daude. Eta arrainek gora eta behera ibiltzeko arazo handiak dituzte", dio Ugartek. "Errekek oso korridore inportanteak dira. Animalia asko hor mugitzen dira.



Erreka ondoetan industria asko eraiki izan dituzte urtetan; argazkian, Markuletekoa Arrasaten. | UBANE MADERA

ESANAK

"Deskarga ikusgarria da; hango lanen ondorioz, hango erreka da puntu beltzetako bat"

"Deba ibaia da munduan oztopo gehienetakoa duena: 200 bat ditu"

JON UGARTE
BASOZAINA ETA DIPUTAZIOKO LANGILEA

Oraindik ez dugu ur-txakurrik (igarabak) gure erreketan ezagutu, aldiz, gure gurasoendako oso animalia arrunta izaten zen, bisoia ia desagertu da, ipurtas oso gutxi daude... halakoak hasi beharko liriteke egoten. Kontuz ibili behar da, baita ere, kanpoko faunarekin (kastoreak, arrainak...), landare inbaditzaileekin moduan".

Oztopoen zaku berean sartu ditu Ugartek zentral hidroelektrikoak; kasu honetan haiek erreken



Presak dira ibaiaren oztopoetako bat; argazkian, Bergarakoa. | IRATI GOITIA

ur-emarian duten eraginarengatik, eta horrek erreken bizitzan dakarren kalteekin.

Egitekoak: kanpoko landareak

Bestalde, landareekin ere badugu zeregina: "Askotan etortzen dira landare inbaditzaileak. *Heliantus*, *Falopia*, *Buddeja*, *Cortadeariak*... lorezaintzan erabili dira. Baina ihes egin eta zabaldu egin dira erreketan. Eta haiek bertako landareei kontra egiten diete".

Egitekoak: ubideak zaindu

Horrez guztiaz gain, eta landareekin harreman zuzena duten beste faktore bat ubideak dira: "Gura duguna da gure etxeak eta lantegiak erreka ondoan izan, eta uhlderik ez. Beraz, ura joan dadila beherantz. Baina hori ez da erreka bat, hori kanal bat da. Herri askotan kanalak ditugu. Denborarekin batzuk naturalizatu egiten dira, errekan segituan bizitza sortzen delako. Baina errekek behar

Ura eta Errekek astea

Debagoieneko Mankomunitateak dei egin du oraingo domekan herriz herri erreka garbiketarako egiteko. Horrez gainera, egunotan eta datozenetan ere bai, herri gehienetan antolatu dituzte uraren eta erreka edo ibaien gaineko erakusketa, hitzaldi eta bestelakoak. Eta horrez gainera, araztegi bisitatu egiteko dituzte datorren asteburuan. Hori guztia antolatu dute Ura Errekaren astearren barruan. Hitzorduen berri herrien atalean dago jasota.

ditu erreka bazterrak landaretzarekin, besteak beste, gerizpea beharrezkoa delako (uraren tenperatura errespetatzeko) eta erreka bazterretan landaretzari hazten utzi behar zaio. Batzuetan, mozketak edo garbiketak batzuk egin daitezke, baina ezin da dena kendu. Bestela, bizitza bako gauza artifizial bat bilakatzen da.

Egitekoak: saneamendu lanak

Saneamendu kontuan, berriz, gehiena eginda egon arren, bada oraindik ere egitekorik: "Antzuolak oraindik saneamendua egin barik dauka ondo, bertatik datorren erreka nahiko eskas dator, Aramaio bere saneamendua dauka herrian, baina oso zaharra, eta eurek askorik ez zikindu arren (ez dago industriarik, jende gutxi bizi da...), komeniko litzateke egoera hobetzea. Horrela daude leku eta auzo txiki batzuk saneamendua egin barik".

Isurketak daude oraindik

Eta guztiz agerikoa den beste egin-behar bat isurketak desagerraraztea da. Izan ere, zoritxarrez, oraindik halako bat edo beste egiten dizkiote Deba ibaiari. "Ez ditugu kontrolatzen eta fabrika batek edo bestek isurketa handiak egiten ditu. Bergaran gertatu dira azkenaldian. Eibar aldeko Ego errekan ere isurketak egoten dira...", bukatu du Ugartek egin beharrekoen errepasoan.



JOSEBA SANTOR
ARRASATE

"Bai, ibiltzen naiz errekei begira. Ibaiendako garrantzitsua da kutsadura txikitzea. Bestalde, konturatuta nago txori gehiago daudela, animalia gehiago: ahateak... oilo berezi batzuk ere ikusi ditut ibaiaren bi puntutan".



ANE ARENATZA
BERGARA

"Kontuan hartzen dut erreka. Garrantzitsua da garbitzea eta garbi mantentzea. Orain arte abandonatu samar izan ditugu; pentsa, orain 30 urte esaten zen hurrengo denboraldiko modaren kolorea izango zela errekek zekarrena".



MIREIA FLORES
ARRASATE

"Garrantzitsua da erreka, eta garrantzitsua da erreka garbi egotea; herriari ematen dioten irudiarengatik, usainarengatik... Zenbat zatitan (ospitale inguruan...) igartzen da garbiago doala orain urte batzuk baino".



GASPAR FERREIRA
ARRASATE

"Nik uste dut garbiago egon beharko luketela. Hala ere, kanalizazioa egin zutenetik igartzen da: usain gutxiago daude... Dena den, jende asko dago lan barik eta haiek aprobetxatu beharko liriteke ibaiak zaintzeko".



BEÑAT MAIZ
GABIRIA

"Ez dugu behar besteko kontzientziarik. Urtean behin antolatzen dira erreka garbiketak, baina, bestela, komuna balira bezala erabiltzen ditugu. Esaten dute, hala ere, Deba oso zikina zela, eta orain ez da horren zikin ikusten".

'Super-heroi' izateko aukera, berbalagun modura ibilita

Mintzapraktika programak abiarazi dituzte

JAGOBA DOMINGO | DEBAGOIENA

2013-2014 ikasturteko mintzapraktika programak aurkeztu dituzte asteon Arrasaten ibarreko euskara elkarte eta eragileek. Aurtengoa urte berezia dela azpimarratu dute, Donostian mintzapraktikak hasi zirenetik 20 urte pasatu direlako, eta gurean, 13 urte. Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko euskara eragile eta elkarteek, *Superberbalagunak*, elkartu gurekin deitzen den programa aurkeztu dute.

Superberbalagunak hitza erabili dute oraingoan mintzapraktiken gainean jarduteko. Arrazoia da euskara ikasten dabilzan euskaldun berriei omenaldia egin nahi izan die-

tela. Super-heroiak bezala sarri ikusiezina direlako, baina euri esker euskara biziberritzen ari da. Izan ere, iaz Euskal Herrian 5.500 mintzalagun elkartu ziren. Debagoiengan 249 lagun, gutxi gorabehera; 77 Arrasaten, 70 Bergaran, 40 Aretxabaletan, 40 Eskoriatzan eta 12 Oñatin.

Izen-ematea, elkarrekin

Mintzapraktika taldeetan parte hartzeko baldintza bakarra da euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izatea. Parte hartu nahi izanez gero, antolatzaile diren erakundeetara jo behar da: AEDra, Jardun euskara elkartera, Loramendi elkartera, Oñatiko euskaltegia edo Eskoriatzako kultur etxera.



Haritz Larrinaga, Igone Osinaga eta Zigor Kobeaga izango dira aurtengo *gidalariak*. | ENEKO AZKARATE

Telefono gida, geroago eta osatuago eta berriago

Urte hasieran banatuko dute Goiena gida Goienako bezeroen artean

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Martxan da 2014ko gida, Goiena Komunikazio Taldeak lantzen duena. Hiru euskarritan izango da datorren hau ere. "Paperean urte asko goaz (2000tik) gida kale-ratzen. 2010ean, berriz, ikusi genuen inportantea zela Interneten egotea ere, Internetek hartu zuen indarra ikusita. Eta 2013ko gida prestatzen hasi ginenean (iaz) pentsatu genuen Interneten dagoen bezero horri zerbait hobea eskaintzea. Eta gure eskaintza izan zen orri propioa eskaintzea: bezeroaren direktorioan (izena, helbidea eta telefonoa agertzen den lekuan) klik eginda. Mapa ere gehitu genuen. Googlek hala ohitu gaituelako. Horrez gainera, iaz Goienak atera zuen smarphoneetarako aplikazioa, eta hor bolkatu zen gidako estruktura guztia. Hala, iaztik aurrera dago aukera gidako bezero guztiei zuzenean telefonoz deitzeko. Hori asko gustatu zen. Ze, adibidez, edozein zerbitzu behar duzula ere, momentuan duzu bertara deitzeko aukera", azaldu du Mireia Larrañagak, Goienako Komertzial

Saileko arduradunak. Eta hark adierazi du aurten ere izango dela horretarako aukera.

Zabalkundea: 20.800 etxe

Larrañagak Goienaren gidaren zabalkunde handia eta horrek duen garrantzia ere nabarmendu gura izan ditu. "Papereko gida jasotzen dute bertan azaltzen diren bezeroek, eta egubakoitzeko GOIENA Papera jasotzen duten bezero guztiek. Zabalkunde inportantea da, 20.800 etxetara iristen da". Internetari dagokionez, berriz, esan beharrik ez dago aukera ematen duela berorrek edozein lekutan egonda ere gure bailarako informazioa jasotzeko, nahiz eta gure bailaratik kanpo egon.

Denden erakusleho birtual

Bestalde, urtero dakartza berrikuntzak gidak eta aurten ere hala ekarriko ditu. "Ikusi duguna da inportantea dela bezeroari aukera ematea berak denda dituen produktu horiek gidan bertan erakusteko; hau da, erakuslehoia eskaintzea bezeroari. Ez da erosteketa leku bat, da erakuslehoia.

Hala ere, aukera izango luke bere eskaintzak erakusleho horretan jartzeko. Modu horretan, on-line horrek lagunduko luke gure bezeroen off-lina indartzen eta jendea dendara erakartzen", azaldu du Larrañagak.

Webgune eta guzti

Erroka inportanteak ditu, beraz, aurtengo gidak: orain artekoari eutsi eta berritasunak eskaini, merkatuko beharren arabera: "Inportantea ikusi dugu negozio txikiak ere sarean egotea. Lehen esandako bidearekin (gida barruko orritxoarekin) aukera hori bermatzen dugu; eta, behintzat, diseinu oinarritzko batekin Interneten dago. Baina nahi dugu harantza jo, eta nahi dioguna da bezeroari identitate propioarekin (bere izenarekin) sortutako webgunea eskaini. Modu horretan ahalik eta gehien pertsonaliza dezake bere orria, eta, gainera, bilatzaileetan lehenengotakoak agertzeko aukera ematen dio Interneten. Eta beste tipologia bateko bezeroak erakartzeko aukera ere ematen dio".



Euskara elkarrekin ordezkariek super-heroi jantzita. | J. DOMINGO

LOMCEren aurka, zapatuan Bilbora joatera deitu dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoieneko ikastetxeek eta askotariko eragileek dei egin dute bihar, zapatua, Bilbon, LOMCE hezkuntza erreformaren aurkako kale agerraldian parte hartzera. *LOMCEri ez! Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki* leloa izango du agerraldiak eta Jesusen Bihotzetik hasita abiatuko da, 17:00etan. Deitzaileen artean, UEU, Ikastolen Elkarteak, EHIGE, Sortzen-Ikasbatuak, Ikasle Abertzaleak, NIZE, BIHE, Sarean, ELA, LAB, STEE-EILAS eta Hik Hasi eragileak daude. Euskararen Kontseiluak eta CCOO sindikatuak ere bat egin dute deiarekin. Manifestazio "alai eta koloretsua" egin nahi da, eta ikasle, guraso, irakaskuntzako langile eta herritar guztiak deituak daude Bilboko kaleak betetzera, deitzaileen esanetan.

Debagoiengan, bat egin dute eragile gehienek, ikastetxeek,

guraso eta ikasle ohien elkarteek, udalek...

Herri bakoitzean deialdia

Jose Ignacio Wert Hezkuntza ministroak LOMCE (Ley Orgánica de Mejora de la Calidad Educativa) legearen bidez ezarri nahi du hezkuntza sistemaren erreforma.

Deitzaileek "argi" utzi nahi dute "Wert hezkuntza ministroak inposatu nahi duen LOMCE hezkuntza erreformarekiko aurkakotasuna", eta "zentralizatzailea, adoktrinatzatzailea, uniformatzailea, atzerakoia, segregatzailea eta elitista den" lege hori "bertan behera uzteko exijitzen" dute. Kale-agerraldian, garbi utzi nahi dute euren jarraera: "Inola ere ez dugu onartzen Euskal Herrian inposa dezaten", esan dute.

Herri bakoitzari dagokion orrietan duzue deialdiaren gaineko informazio gehiago.



**SUKALDEAK
BAINUAK
ARMAIRUAK**



ZEURE NEURRIRA ZEURE GUSTURA
Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

Herritarrekin bilerak egingo dituzte autobus zerbitzuak hobetzeko

Aldundiaren ekimena da eta herritarrekin batzartuko da datozen asteotan

ZURIÑE V.D.M. / J.B. | ARRASATE

2014an Gipuzkoako autobus emakidak berritu baino lehen, zerbitzuaren inguruan eztabaidatu gura dute Aldundiak eta ibarreko udalek herritarrekin haien iritziak jasotzeko. Bilera irekiak Debagoieneko herri guztietan egingo dituzte, urriaren 9an hasi eta hilaren 23ra arte.

Lau fase

Mugikortasuna hobetzen jarraitzeko apustua mantentzen dutela eman zuen aditzera eguaztenean Unai Erroitzeneak, Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko zuzendariak. Mugi txartelaren ostean, garraio gabezia handienak dituzten eskualdeetan egin gura dute lan; tartean, Debagoienean. 2014ko abendura arte iraungo duen prozesua aurkeztu zuen Erroitzeneak Debagoieneko alkate eta Mankomunitateko ordezkariarekin batera.

Herritar eta inplikatuarekin prozesu parte-hartzailea egin gura dute; bilera irekien bidez, herri barruko zein herrien arteko zerbitzuari, geltokiei, loturei zein autobusen maiztasunari buruz egingo dute berba. Web-

gune bat ere jarri dute ekarpenak egin ahal izateko <http://garraioahobetzen.net/eu/> eta postontziak ipiniko dituzte eraikin publikoetan eta zenbait autobusetan, iritziak jasotzeko etxetara banatuko dituzten diptikoak utzi ahal izateko.

Gaur, egubakoitza, hasiko dute lehen fasea eta azarora bitartean parte-hartze bileren lehen itzulia egingo dute. Otsailera arte jasotako proposamenekin hobekuntza proiektua idatziko dute. Proiektua eskuan, herritarrekin beste itzuli bat egingo dute; hirugarren fasea, alegia. 2014ko maiatzetik abendura arte, oster, behin betiko txostena idazten jardungo du Aldundiak eta abenduan lizitazioa abiartzeko du.



Kooperatibaren talde eragilea eguazteneko aurkezpenean. | AMAIA TXINTXURRETA

Erein Da Jan kooperatiba aurkeztu dute jendaurrean

Kontsumo eredua aldatzeko helburua dauka eta bazkide egiteko dei egin diete debagoiendarrei

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Erein Da Jan izeneko kooperatiba eratzeko prozesuan buru-belarri dabil Bagararekin batera hamar pertsonako talde eragile bat. Lehenengo sektorearekin eta kontsumoaren egoerarekin kezkatuta hasi ziren ideia garatzen, eta egungo kontsumo eredua aldatu gura dute.

Aretxabaletan aurkeztu zuten egitasmoa eguaztenean, eta Asier Agirre talde eragileko kideak kooperatiba sortzeko ideiarekin nondik norakoak azaldu zituen: "Interes batzuk dituen kontsumo mota bat dago ezarrita merkatuan eta bertako kontsumoa ez da egokia".

Supermerkatua

Lehenengo fasean supermerkatu bat eratu gurako lukete,

"bailarako ekoizleek euren produktuak bertara eramateko" eta kontsumitzaileek aukera izan dezaten bertako produktuak kontsumitzeko.

"Gure helburua izango da ahal dela produktu ekologikoak izatea, baina horrek ez du esan gura beste produktu batzuk egongo ez direnik".

Bazkide egiteko deia

Debagoiendarrei egin diete sortzaileek kooperatibako bazkide egiteko deia. "Dagoeneko jendea bazkide egiten dabil eta jende dezente elkartzen ari gara". Asmoa proiektura ibarreko jendea batzea den arren, bailarako ez diren hainbatek ere erakutsi dute interesa.

Bazkide egiteko, Bagarak Aretxabaletan duen egoitzara joan behar da.

BILERAK HERRIZ HERRI

URRIAK 11, EGUBAKOITZA

19:30 Leintz Gatzaga (udaletxea).

URRIAK 14, ASTELEHENA

18:00 Aretxabaleta (Arkupe).

URRIAK 15, MARTITZENA

18:30 Oñati (Udaletxea).

URRIAK 16, EGUAZTENA

18:00 Antzuola (Udaletxea).

URRIAK 17, EGUENA

19:00 Elgeta (Udaletxea).

URRIAK 21, ASTELEHENA

18:00 Bergara (Irizar Jauregia).

URRIAK 22, MARTITZENA

18:30 Eskoriatza (Ibarraundi).

URRIAK 23, EGUAZTENA

19:00 Arrasate (Kulturate).



Udal eta Mankomunitateko ordezkariak, prentsaurrekoan. | JON BEREZIBAR



Atzegiren sentsibilizazio kanpainaren aurkezpena Aretxabaletan. | Z.V.D.M.

Herritarrek elkartean parte hartzea helburu Atzegiren azken kanpainak

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Atzezin guztiok dugu gure papera. Aurkitu zurea! da Atzegiren sentsibilizazio kanpainaren berriaren leloa eta martitzenean aurkeztu zuten Aretxabaletan. Elkartera gerturatu eta bertan bete dezaket papera aurkitzera gonbidatu gura dituzte herritarrek. "Nork bere harri koxkorra ekar dezake, dela urritasuna duen norbaitekin

kafe bat hartzeko geratuz, urtean behin kartelak zintzilikatuz...". Interesatuak 943 42 39 42 zenbakira dei dezakete.

Benetako testigantzak

Aurtengo kanpaina egiazko bederatzita testigantzat dago oinarrituta. Bideo bana egin dute eta pertsona bakoitzak Atzezin betetzen duen papera azaltzen du horietan.

Euskal Elizak izandako jazarpena 'Consejos de guerra contra el clero vasco' liburuan

Z.V.D.M. / I.G. | ELGETA

Intxorta taldeak euskal Elizak 1936-1944 urteetan izandako jazarpenaren inguruko *Consejos de guerra contra el clero vasco* liburua aurkeztu du. Anxo Ferreiro idazleak Galizian hasi zuen ikerketa, ustekabean Ferrolgo Ipar-mendebaldeko Bitarteko Artxibo Militartean Gerra Kontseilu Sumari-

simo batzuen dokumentazio ugari aurkituta. Horiek hartu, eta Intxorta 1937 kultur elkartearen laguntzarekin liburua sortu du.

"Francok bere aldeko eliza ezarri zuen, eliza saldua, gerra eta krimena santu egin zituena", dio Ferreirok. Euskal Herrian Francok, politika isilarazteko baino gehiago, "Espainia berri

horren kontra zegoen kultura eta ondarea zapaltzeko" euskal Elizaren kontra egin zuen. Euskal Eliza desegin eta gerraren aurretik zeuden apaizen %18 besterik ez zen gelditu. Liburuan azaltzen den moduan, *Egiz* eta *Anaiak* aldizkariak kultura transmisore eginkizuna euren gain hartu zuten.

Consejos de guerra contra el clero vasco liburua Euzkoan jasan-dako jazarpen eta exekuzioak batzen ditu.

Kaleratzen aurka kalera, Eskoriatzan

Kaleratzen aurka borrokan lelopean 30 lagunek protesta egin zuten martitzenean Eskoriatzan. Kutxabaneko sukurtsaleko zuzendaritzari dokumentu bat eman zioten, eskaintzen dituzten baldintza txarrak direla eta.



ANE ETXEBERRIA

Pello Urizar | EAko idazkari nagusia eta EH Bilduko legebiltzarkidea Gasteizen

"EAJk eta PSE-EEK euren premiak asetzeko egin dute ituna"

- ▶ Bake prozesua, Herrira eta Katalunia berbeta gai ditu Urizarrek
- ▶ "Proiektuak adosteko bada, akordioetara helduko gara Gipuzkoan"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Gasteizko Legebiltzarrean laster urtebete egingo du Pello Urizarrek (Arrasate, 1967). EH Bildu osatzen duten lau alderdietako bateko, EAko, idazkari nagusia da. Gaurkotasan politikoa errepasatu dugu.

EAJk eta PSE-EEK lortutako itun fiskalari lotu zaio PP. Zergatik ez EH Bildu?

Biren artean egositako ituna izan da; itun fiskala baino gehiago, EAJren eta PSE-EEren premiak asetzeko egindako ituna da. EAJ behartuta zegoen akordioa egitera. Izan ere, aurrekontuak bigarren urtez luzatzea behartuta egonez gero, hauteskundeak deitu beharko lituzke. Urkulluk, negoziazio hasieran, zergak ukitu nahi izan ez badu ere, sozialistek horretara behartu dute. Bestalde, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (PFEZ) dagokionez, Gipuzkoan indarrean dagoenera eta iaz Bilduk eta PSE-EEK adostu zuten hurbiltzen da jeltzaleek eta sozialistek adostutakoa, baina kapitalari ezartzen zaion zergari dagokionez ez. Eta Fortuna Handien Gaineko Zerga ere ez dute ukitu nahi izan. Kapitalen Gaineko Zergaren inguruko proposamena egingo dugu guk aurten Gipuzkoako Batzarretan, baina susmoa daukat atzera botako digutela jeltzale, sozialista eta popularrek.

EH Bildu baztertuta edo jokoz kanpo geratu da?

Bederatzi hilabete daroztat Legebiltzarrean eta ikusi dut EAJk gurekin hitzartu beharrean nahia go duela beste edozeinekin egitea akordioak. Eskola txikiekin edo euskararekin lotutako gaietan ere bai. EAJk beldurra dio aberzaletasunaren nagusitasuna galtzeari. Eta hori gerta ez dadin tresna politikoak darabil esanez akordioetara heltzeko gaitasuna duela eta EH Bilduk, berriz, ez. **Zeharkako itunak.**

Bai, eta guretzako akatsa da hori. Alderdi Egunean Ortuzarrek egin zuen berbaldia edozein jeltzale ikaratzeko modukoa izan zen. 15 urte egin dugu atzera. Ibarretxeren garaian-eta ereindako guztia baztertu du EAJk, justu Katalunian egiten dabilzanaren aurka.

EAJ, PSE-EE-PP itunarekin arazoa du Bilduk Foru Aldundian, Batzar Nagusietan gutxiengoan dagoelako?

Sozialistek azaldu beharko dute zergatik egin zuten duela urtebete itun fiskal aurreratua Bildurekin eta orain beste planteamendu bate-



Pello Urizar oraingo astean Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

kin datozen. Sozialistek Gipuzkoako Batzar Nagusietan darabilten jokabidea da edozein nahasteko modukoa. Ulergaitza da. Tokia aurkitu nahian dabilta, baina goitik datozkie aginduak...

Baina ze gerta daiteke Gipuzkoako Diputazioarekin?

Ikusi behar. Badirudi, orain, PPK beti esan izan duena gauzatzeko bidean egon daitekeela; hau da, oposizio guztia batera aritzea gobernuaren aurka, ez proiektu konkretuen inguruan, baizik eta helburu politiko batekin. Bildu albo batera utzi nahi dute, bai edo bai. Aurrekontuen inguruan ahalegin txikiena egiteko prest ez badaude, egoera berri honekin kudeatu beharko dugu Diputazioa. Ez da egoerarik onena, baina... Ez dezagun ahaztu, halere, azkeneko bi urteotan aurrekontuak onartzeko gauza izan den bakarra,

"Independentziaren aldeko alderdiak batera aurkeztuko dira Katalunian"

"Guardia zibila gure egoitzan sartu izana abusua da, litekeena da salaketa jartzea"

erakunde nagusietan, Bildu izan dela. Bestalde, erakundeak garrantzitsuak dira, baina herria ez da erakundeetan edo alderdi politikoekin bakarrik egiten.

Datozen urteko aurrekontuak?

Proiektu konkretuen gainean adosteko prest badaude, akordioetara helduko gara; erabaki politiko baten ondorioz, kontra egin nahi badute, ez. Tamalez, nire ustez, Gipuzkoan zer gertatuko den gorago erabakiko dute EAJk, PSE-EEK eta PPK, akordio politiko zabal baten barruan.

Herriraren aurkako polizia operazioa ze klabetan ulertu behar dugu?

2011ko udazkenetik, nahita eta guztiz blokeatuta dago bake prozesua; eta, kasu batzuetan, atzeraka egin dugu. Aieten erabakitakoaren arabera, gatazka erabat konpontzeko, azkenean, muinera jo beharko da, arrazoi politikoak aztertu eta soluzioak eman. Baina hori ez dute inondik inora onartu nahi. Kataluniarekin daukate orain arazoa. Saiatuko dira berritara EH Arekin nahasten, dena ETA delakoan... Baina Herrirak ondo lan egin du azkeneko urteotan, eragile eta norbanako ezberdin askorekin bilduz, lan eginez...

Herriraren aurkako polizia operazioan guardia zibilak Bilboko EAren egoitzara sartu izana kasualitatea da?

Ez dakit. Haiek esan dute akatsa izan zela. Gure ustez, ez zen akatsa izan. Alderdi demokratiko baten egoitzan sartu ziren moduan

sartzea, epailearen agindu barik, abusua da eta aztertzen gabiltza salaketa jarri edo ez.

Bake prozesua ez atzera eta ez aurrera dago. Zela aska daiteke korapiloa?

Aieten erabakitakoaren bigarren puntuan ataskatu gara. ETAK armak noiz, nola eta non utzi behar dituen erabakitzea erabaki tekniko da eta komeni da ondo egitea hori, bermeekin. Baina ez dute egin nahi. PPK baditu beste arazo batzuk eta haiei heldu nahi die, babes soziala galtzen doalako, krisiagatik, ustelkeriagatik...

Udan espekulatu zen bake prozesuaren gainean aurrerapausoak ematen lagunduko lukeen berriak iragarriko dituela Sortuk edo EPKK-k. Hala espero duzu?

Borondatea badagoela uste dut eta emango dira. Esaterako, ETA-

"Gipuzkoan zer gertatuko den gorago erabakiko dute oposiziokoek"

"Gure prestasuna agertu diogu EAJri, Bake Ponentzian eta bestelakoetan"

ren azken komunikatua leitzen badugu, badaude hainbat kontu interesgarri. Ulertu behar da noiz atera zen, irailaren 27an, Gudari Egunean, eta zeini zuzenduta zegoen. Baina hori alde batera utzita, badaude elementu interesgarriak kontuan hartu beharrekoak. ETAK berresten du bukatu duela, beste aro baten gaudela eta elkarbizitzarako dei egiten du. Hortaz, Espainiako Gobernuak armak uzteko egiaztapena egiten ez badu, beste erakunde batek egin beharko du, berme guztiekin.

Zela begiratzen dio Urizarrek Katalunian bizi den egoerari?

Inbidiaz. Eta guk ere badaukagu aukerarik, guk ere egin genezake haiek lortu dutena. Ez dago zertan egin hango moduan, baina egin dezakegu. Arazo ekonomiko latzak dituzte, gurea baino egoera zailagoa. Katalanek onartutako Estatutu berriari Espainiako Estatuak egin ziona eta krisia erabakigarriak izan dira CIU ere mugiarazteko.

Katalanak badoaz?

Herri galdeketa 2014an egiten ez badute, uzten ez dietelako, plebiszitarioak izango diren hauteskundeak egingo dituzte eta independentziaren edo erabakitzeko eskubidearen aldekoak sigla eta zerrenda bakarrean aurkeztuko direla uste dut eta sigla izango da Bai. Asmo horiekin dabilta. Oso inteligentea iruditzen zait.

Artur Mas ere gertu ikusten duzu horretarako?

Bai. Presio handienak Convergencia-tik datozkio Masi. EAJren beldurra da ikusten duela ERC hasi dela boto asmoetan CIUren aurretik jartzen. Baina ikuspegi motza izatea da. Izan ere, hauteskunde plebiszitarioaren ostean etorriko dira beste batzuk eta kokatuko du Herriak alderdi bakoitza bere tokian. EAJk badauka ahalmena eta indarra.

EAJren eta EH Bilduren arteko elkarlanik ikusten duzu alor konkretuetan?

Urkullu geometria aldakorraren aldekoa zen hasieran; hau da, gaiaren arabera, batekin edo bestearekin hitzartzearen aldekoa. Baina ez dio funtzionatu. Bestalde, Bake Ponentziarekin ikusi dugu ez duela gurekin aurrera egin nahi. Aurreko agintaldian PPK eta PSE-EEK ere onartu zuten testua, orain Lurzoru etiko moduan deitua izan dena, Bake Ponentziara eroan zen eta PPK esan zuen hasieratik ez zuela parte hartuko. Bestetik, PSE-EE egon da hasieratik jendea nahasten: orain bai, orain ez. EAJk, autodeterminazioaren eta burujabetzaren alde aurrera jarraitu nahi badu, beti izango ditu aurka PSE-EE eta PP, ez bada Estatutua berritzeko. Gure prestasuna agertu diogu EAJri, bai Bake ponentzian eta baita beste alor batzuetan ere. Ikusiko dugu EAJren borondatea noraino heltzen den.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

ELENA LAKA

<http://goiena.net/iritzia/>

Itun politikoetako zoruak

Europan eta Espainian krisialdiaren ondorioak arintzearen aplikatu diren errezeta ekonomikoek kostata lortu dugun ongizate estatua eta gizarte oreka larriki murriztu baino ez dutela egin. Hartara, bide horrekin ados ez gaudenok behar besteko neurriak hartu behar ditugu". "Milaka euskal familiak beren haragi eta odoletan atzeraldi ekonomikoaren, langabeziaren eta ongizate mailaren galera bizi dute". "Euskadik gaur egun dituen 150.000tik gorako langabeak dira, seguruenik, politika ekonomiko okerraren ondorio".

Irakurlearentzako buru abilezia ariketa bost segundotan: non dago idatzita aurreko testua? LABeko paskin bat da? Caritasen txosten bat? Suminduen protesta bat? Ez!

Jaun-andreok, hau EAJk eta PSEk sinatu duten itun fiskala deritzon horren sarrera da, hitzez hitzekoa, aste honetan bertan PPK ere bere egin eta besarkatuko duen itun horren oinarrien letrak.

Itunaren atalasean sinatzaleek gaur egungo errealitatearen erradiografia egiten dute, ondoren zerga-arauen aldatetaren bitartez herritarroir diru gehiago atera ahal izateko. Nolabait esateko, sarrera horretan akordioaren abiapuntua, zoru markatzen dute, hortik aurrera erreformak eraikitzeke.

Akordioaren testuak zoru ezarrita, hemen osteria ez da zoru etikoa ezertaroko aipatzen. Ezin baitu etikaz hitz egin herritarron odolaren eta haragi horren kontra diharduen politika ekonomiko bultzatu duen alderdiak. Etikarik ez duelako langabezia politika ekonomiko okerraren ondorio dela esan, eta politika hori bultzatu eta eragin duen alderdiak. *Etika* hitzaren esanahia ez baitu ezagutzen murrizketarik ados ez dagoela adierazi, eta murrizketak aplikatzen dituen alderdiak. Non da erantzukizun politikoak?

Itun honekin bat egiteko orduan alderdiei zoru etikoak ez badie trabararik egin, aspalditxo ez diote hurrik eman *etika* berbari.

"Sarreran, zoru markatzen dute; eta hortik aurrera, erreformak eraiki"

USTEAK USTE

LEIRE KORTABARRIA | lkortabarria@goiena.com

Goseak hil, eta ez Afrikan

Lampedusako tragediak bera adinako lazgarria eta lotsagarria den beste tragedia txiki bat –hildako bat egon zelako– estali du azken egunotan. Pietr Piskozub izeneko 23 urteko gaztea (1,75 metro) 30 kilo zituela hil zen, etxerik ez dutenendako Sevillako aterpe baten. Medikuegangandik alta jasotzetik zetorren. Goseak hil zen, jakina. Medikuek ez zuen, antza, Pietr ingresatzeko nahiko argaltasunik ikusi eta ostatura buelta zezaten eskatu zuen. Sofan botata hil zela diote komunikabideek. Jendez inguratuta, ustez arduradunak han zeudela. Ez zen txaluparik edo erreskate-operaziorik behar; norbaitek jaramon egin ziezaien bakarrik. Eta inork ez zion egin.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | <http://goiena.net/iritzia/>

HANDIK ETA HEMENDIK

Ergelkeriaren muga nazionalak

Aritz Galarraga

berria.info/blogak/ekografiak/

Euskal herririk ezagunena Espainia aldean ez da, jada, ez Errenteria edo Hernani –koktel molotofaren erabilera egin nahi izan denean bezala–, ez Ermua edo Getxo –erresistentzia zibikoaren sinboloa sortu nahi izan denean bezala– [...] Euskal herririk ezagunena Espainia aldean orain, besteren gainetik, Eibar da. Eibarko hiri guztiz eredugarria. [...] Mursegok diska berria atera behar duelako? Eibarko futbol taldeak Alcorconen kontra jokatuko duelako Espainiako Kopan? [...] Ez, horiek baino zerutiarragoa den arrazoi bategatik egin da Eibar ezagun, edo hobe, famatu: Jessica Bueno bertara bizitzera joan delako.

Ados, hori horrela esateak ez dizue gauza handirik argituko. Jessica Buenok, antza, ez baitakit dagoeneko zer den gezur eta zer antzerki, Francisco Jose Rivera Pantojarekin, hots, Kiko Riverarekin, hots, herriak Paquirrin gisa bataiatuarekin

izan zuen haur bat. Baina, antza, maitasuna bukatu eta, haurra altzoan hartuta, Eibarrera egin du Jessica Buenok, bertako taldeko futbolari baten atzetik. Eta, noski, bi horien atzetik, *Sálvame, El programa de Ana Rosa* eta gisakoek ere egin dute Eibarrerakoa. [...] Kontxo, Antxon gozotegian ere sartu dira galdezka! Eta haurrari jarri omen diote izengoitia: *Patxirrin*. Esaten dute, bada, giza ergelkeriak ez duela mugarik.

Eta ez dakit nola ez den ETB berehala mobilizatu, nola ez dituen albigtegiak Eibarretik ireki, tertulia etengabeak egin *Sin ir más lejos-en, Euskal Herria zuzenean*-eko berriemaileak bikotea bizi den etxe atarira bidali, zuzeneko konexioak egitera. Zer iruditzen zaizue, gehiegikeria? Niri ere bai. *Eitb.com* helbidean bilaketa azkarra egin dudan arte. Sugetzar osoa atera zait kolpetik –Michael Robinsonen gaztelania ederrean, noski–: *Jessica Bueno y Kiko Rivera pierden el hijo que esperaban; Kiko Rivera y Jessica Bueno esperan otro hijo; Kiko Rivera y Jessica Bueno han roto definitivamente*. Giza ergelkeriak ez baitu mugarik. Ezta ere nazionalik.

Giza esnea patentatua izateko bidean

Nahia Alkorta

argia.com/blogak/nahia-alkorta/

Edozer patentatu daitekela dirudien munduan bizi gara.

Gaur egun, gauzarik naturalenak ere patentatzen dira:

Landare haziak eta giza esnearen osagaiak ere bai.

Harrigarria badirudi ere, landare haziak patentatzen dituzten enpresak daude (eta hortaz, landare horien erabilera guztiaren kontrola dutenak) eta nola ez, Nestle-k giza esnearen osagaiak patentatzeko bidea hasia du.

Dagoeneko 2.000 osagai inguru patentatu ditu.

Non geratzen da etika? Eta non zentzua?

Izertia patentatuko dute? Odola?

Txiza? Zer izango da hurrengoa?

Antza, Nestle onartu ohi duena baina hobe izango da azken batea giza esnea, edoskitze naturalaren aurka botere gehien duen enpresak berak, giza esnearen osagaiak patentatu nahi baditu...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ibane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Utalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Asier Hormaetxe eta Aritz Etxebarria | Biark Studioko arkitektoak

"Errehabilitazioaren garaia da, eta arlo hori lantzen dugu guk gehien"

Biark Studio Arrasateko arkitektura talde gazte bat da. Bi kidek osatzen dute: Aritz Etxebarria Errasti arrasatearrak eta Asier Hormaetxe Eguren elorriotarrak. Orain dela zazpi urte zabaldu zuten, eta, ordutik hona, hainbat jarduera egin dituzte, baita sariak irabazi ere.

Zein lan mota egiten duzue gehien?

Askotariko lan motak egiten ditugu. Momentu honetan gehien egiten ditugunak hauek dira: Eraikinen Ziurtagiri Energetikoak, beharrezkoa dutena saldu edo alokatu egin behar dituzten etxe edota lokalentzat, Eraikinen Azterketa Teknikoak (EAT-ITE), baserriak konpondu, eraikinen errehabilitazio energetikoa (fatxadak eta teilatuak), igogailuen instalazioa irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin, etxebizitzak zaharberritzea, lokal komertzialen egokitzapena, txostenak, jarduera lizentziak... nahiz eta edozein obra berri mota ere egiten dugun.

Eraikinen Ziurtagiri Energetikoa komentatu duzue? Nork egin behar du? Zer da hori?

Aurtengo ekaina ezker, saldu edo alokatu egin behar dituzten etxe edota lokalentzat egindako lege berri bat dago martxan. Etxetresna elektrikoekin gertatzen den moduan, kalifikazio energetikoa ematen zaie eraikinei. Derrigorrezkoa da ekaina ezker, eta isunak jarriko dizkiete ziurtagiri hori ez duten etxe edota lokalei.

Egin duzue mota horretako ziurtagiririk?

Guk dagoeneko hainbat ziurtagiri egin ditugu. Gainera, konpromisoa hartu dugu eta hemendik urte bukaera arte oso prezio lehiakorrek izango ditugu, eta baita ziurtagiriak denbora laburrean egingo ditugun konpromisoa ere.



Aritz Etxebarria eta Asier Hormaetxe, Arrasateko Usaetxe plazan duten bulegoaren aurrean.

Ematen du orain garrantzi handia ematen zaiela jadanik eraikita dauden eraikinei, ezta? Esan nahi dut, nola dauden eginda, nola konpondu behar diren... Bada, hortik doa gaur egungo arkitektura?

Bai, Eraikinen Ziurtagiri Energetikoarekin eta EAT-ITEekin (Eraikinen Azterketa Teknikoa) jakin dezakegu eraikinek ze moduzko osasuna duten eta zeintzuk izango lirartekeen eman beharreko pausoak konunitateen edota jabeen aldetik.

Etxe askok ez dituzte erosotasun parametro oinarrikoak betetzen. Bizilagunek hotza pasatzen dute, hezetasunak dituzte horma eta sabaletan, ez dira irisgarriak...

Fatxadak kanpoaldetik berrituta eta isolamendua jarrita, etxearen ezaugarri termikoak hobetzen ditugu eta, era berean, goitik behera alda dezakegu eraikinen kanpoko itxura. Era horretan, hezetasunak desagertu egiten dira eta erosotasun maila asko hobetzen da.

Berogailuaren fakturan %30eko aurrezpena lortzera hel gaitzake. Bada, leihoak aldatuta, teilatua isolatuta eta aire berriztapen minimo bat eginda ere, diru asko aurreratzea lortzen da.

Zein izango litzateke obra hauek aurrera eramateko bide zuzena?

Lehenengo, teknikari moduan, aztertuko genuke arazoa non dagoen. Bizilagunen laguntzarekin arazoa nondik datorren antzeman, eta emaitza onena emango diogu.

Gomendagarria da lanean hasi baino lehen Eraikinen Azterketa Teknikoa (ITE) egitea; horren bitartez eraikinen egoera zehazten da. Azterketa hori diruz lagunduta dago Eusko Jaurlaritzaren aldetik; atari bakoitzeko 1.000 eurorainoko dirulaguntza ematen dute.

Errehabilitazioa da, orduan, orain gehien egiten ari dena?

Bai, hala da. Ekonomikoki bideragarriagoa da dagoena hobetzea berria erostea baino; gainera, administrazioak errehabilitazioa zuzenduta dauden dirulaguntzak ere ematen ditu.

Orduan, arkitekturarekin lotutako arlo asko jorratzen dituzue...

Bai, hainbat arlotan adituak gara. Bulegoa zabaldu genuenetik, beti jorratu izan ditugu askotariko arloak; beraz, nahiko todoterrenoak gara esango genuke. Bulegoa zabaldu aurretik beste arkitekto batzuen bulegoan ere lan egin dugu, esperientzia nahikoa dugula esan dezakegu.

Jendea animatzen dugu dituen zalantzekin Usaetxe plazan dugun bulegora etor dadin eta guk emaitza zuzena ematen saiatuko gara bezeroarekin elkarlanean. Izan ere, gure esperientziarekin aholkatu egingo ditugu, eta aukerak aztertu.

Baina... kontsulta egiteak konpromisorik sortzen al du?

Ez, kontsulta egitea askea da. Gero, lana zehaztearekin bat finkatzen dira baldintzak.

BIARK STUDIO arkitektoak

Aholkularitza eta laguntza tramitazioan: aukera tekniko desberdinen azterketa, proiektua, lizentzia, dirulaguntzak, obrarako aurrekontuen analisia, obra zuzendaritza...

Komunitateak
Fatxaden isolamendua
Erreformak
Igogailuak
Etxebizitzak
Lokalak
Baserriak



Eskatu zure aurrekontua konpromisorik gabe

ZIURTAGIRI ENERGETIKOA
(Etxea alokatu edo saltzeko beharrezkoa)

EIT-ITE
(Eraikinen Ikuskapen Teknikoa)

Informa zaitez urte bukaera arte ditugun eskaintza bereziet!

www.biark.net

Usaetxe plaza 1, behea, Arrasate - Tel.: 943 79 80 33 - e-maila: biark@arquired.es

GUTUNAK

Debagoieneko udalei

Mikel Urrutia
Debagoiena

Egun dagoen egoerarekin bat datorren gaia da hau.

Hondartzan gaudela olatua gure oinetaraino noiz iritsiko den beldurrez gaude, ondokoei busti baitzaizkie zapata, motxila... gero eta gehiago dira familiakide, ezagun, herritar... egoera larri honen barruan daudenak.

Hau horrela izanik, barruak min egiten dit gaur egungo herri edo Euskal Herriko kaleetan ikusten dudanarekin.

Euskaldunok izan ginen emigrante, baina ez dut uste gauzak eginak emango zizkigutenik.

Euskaldunok beti egon gara laguntzeko prest, eta horrela jarraituko dugu seguru.

Solidarioak Txernobilekin, baita Sahararekin ere, garai baten Nikaraguarekin eta somaliarrekin, eta palestinarrak ez ditugu ahazten.

Baina inork ulertzen al du

horrelakorik?

Gurean dauden atzerritarrek nolako dirulaguntzak jasotzen dituzte udaletatik, SEPetik, Gipuzkoako Foru Aldunditik edota Euskal Jaurlaritzatik?

Bidezkoa al da?

Ez naiz arrazista, ezta xenofobia, ez eskuindarra ez eta ultra eskuindarra, ezta neoliberal ere.

Baina ez da bidezkoa gurean dauden atzerritarrek dituzten etxeen alokairuak ordaintzeko diru laguntzak edukitzea, bertakoek ez baititugulako.

Ezta gizarte zerbitzuetatik jasotzen dituzten diru laguntzak, guk ez ditugulako.

Batetik, udalek; eta bestetik, Foru Aldundiak.

Asteroko janari poltsa, doan.

Berriz ere diot, guk ez daukagu horrelakorik.

Ez al da normalagoa eta bidezkoagoa lehenago herritarrei laguntzea?

Ez zait iruditzen pentsaera arrazista denik.

Udalen eta foru aldundien aldetik behar da egoera hau argitzea, herriko seme asko dira laguntza horiek behar dituztenak, gurasoen etxetik

ezin atera daudenak edota langabeziako prestazio gabe, baina gurasoen etxean bizi direlako ezer jasotzen ez dutenak.

Bailarako udalei eskatzen diet informazio hau argitara ematea.

Baita Goienari ere honen inguruko erreportaje bat idaztea: jendearen iritzia, dirulaguntza kopurua, zer eskaintzen zaion kanpotarrari...

Musakolako Gazte Eguna

Iban Gofii Uranga
(Musakolako alkatea)
Arrasate

Bihar, zapatua, urriaren 12a, I. Gazte Eguna ospatuko dugu Musakolan.

Goizeko hamaiketarik ilunkerara arte, umeentzako eta gazteentzako jai-giro paregabea izango dugu, jolas, grafiti, bazkari, rock kontzertu, eta abarrez lagunduta, Herri Eskolan bertan.

17 urte arteko Musakolako gazte eta kuadrillek herri bazkaria egingo dugu.

Edozelan ere, lerro hauen bidez, Musakolako Jai Batzordeak eta Gazte Txokoak gonbita zabaldu gura dizuegu gazte mondragoetar zein debagoiendar guztioi, gurekin batera egun-pasa eder horretan izango diren gainontzeko ekintza guztietan parte hartzeko.

Anima zaitezte, giro aparta izango da-eta.

Gora, Musakola!

A, B, D eta E eskola ereduak

Jon Otero Uribarren
Arrasate

Hego Euskal Herrian, eta Nafarroako inguruak salbuetsita, jakina, hiru hizkuntza eredu ditugu eskoletan, denok dakigun moduan.

Izan ere, eta guztiok dakigunez, Euskal Herrian Konstituzioaren zioa da erdara dela betebeharra.

Hau da, hemen, Euskadin, gaztelera jakitea obligazioa dela.

Baina zergatik horrelakorik, hemen gehiago

abertzalea bagara?

Arabian, Gipuzkoan eta Bizkaian, hain zuzen ere, gehiago abertzalea.

Horrenbestez, lortzen dugunean independentzia, Euskadin Konstituzioa trantsizio berriaren zioz aldatuta edo Gasteizko Gobernuak horrela erabakita, ezabatu egingo dugu gaztelaren betebeharra eta, hala, izango da eskubide hutsa soilik, euskara bezala.

Eta orduan, independentzian, E eskola ereduak sortuko dugu.

Horrela, euskaraz eta ingelesez bakarrik emango dira klaseak.

Horrekin guztiarekin, gurasoek eskubidea izango dute gaztelarrik ez erakusteko umeei.

Hemendik berrehun urtera, umeek eta euskal populazioak jakingo dute euskara eta ingelesa.

Eta gaztelera orduak, ingelesa gehiago sartuz, ondo ikasteko.

Mundu osoa elebiduna izango da, edo eleanitza, horrela erabakiz gero, eskola orduetatik kanpo.

Horrenbestez... gora, Euskadi askatuta!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00



4. edizioa

Kantari



Aretxabaletako saioa!

ENTSEGUAK

ARETXABALETAN

Urriak 12an

ARKUPE kultur etxean.

IKUKSKIZUNA

ARETXABALETAN

Urriak 19an

ARKUPE kultur etxean.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako partaideok, eman azken errepasoa abestiari eta koreografiari!

Etorri zuen lagunak animatzera.

Informazio gehiago:
943 25 05 05 | blogak.goiena.net/kantari



HERRIAK

ARAMAIO

Pedro de Eriz Egiluz aramaioarraren beatifikazioa domekan Tarragonan

- ▶ Pedro de Eriz Egiluz aramaioarra beste 500 erlijiosorekin batera omenduko dute
- ▶ Urte askotako beatifikazio prozesuari amaiera emango diote domekan meza batekin

ANE ETXEBERRIA | ARAMAIO

Domeka honetan, Aramaion jaio-tako erlijioso baten beatifikazioa egingo dute Tarragonan, Pedro de Eriz Egiluz (1867-1936); karmeldar oinuts eta Aramaioko semearen beatifikazioa, alegia. Ekitaldia Tarragonako Complex Educatiuon-en izango da, eguerdi aldera, eta bertan izango dira Aramaioko alkate Ramon Ajuria eta erlijiosoaren familiako zenbait kide.

Pedro de San Elias izenarekin bataiatu zuten karmeldar oinutsen ordenean sartu zenean, eta, Katalunian fusilatua izan zenez eta Tarragonako komentuan urte askoan bizi izan zenez, han izango da meza. Dohatsu aitortza hori egingo diote erlijiosoak bere "idealen alde eta gizartearen ongi-zatearen alde" bizitza eman zuelako. Aramaioko semeaz gain, beste 500 martiri beatifikatuko dituzte domekan, guztiak 1936ko gerran atxilotu eta fusilatua izan zirenak. Horien artean, 11 karmeldar oinuts izango dira eta horietako bat izango da Pedro de Eriz erlijioso aramaioarra.

Hautzaroko Barajuen auzoan

Pedro de Eriz Egiluz 1867an jaio zen Aramaioko Barajuen auzoan, bere anaia biki Pascasiorekin

batera. Hautzaroko lehen urteak baserri inguruan pasa ondoren –Aramaio eta Aretxabaleta artean dagoen Bolunburu baserrikoak dira senideak–, eskolara joaten hasi ziren bi anaiak. Bertan ikasi zuten gazteleraz hitz egiten, haien ama hizkuntza euskara zelako.

1887ko uztailean, anaia Pascasiok karmeldarren abitua bereganatu zuen; handik bi urtera, Pedrok anaiaren pausoak jarraitu zituen eta karmeldarren ordenan sartu zen. Orduan aldatu zuen izena, eta, ordutik aurrera, Pedro de San Elias izenarekin egin zen ezagun. Urtebetez nobizio izan zen Isidoro de la Cruzen gidaritzapean, eta, behin beharrezko hiru probak gainditu ondoren, bere profesioaren berri emateko aukera izan zuen. 1890eko uztailean gertatu zen hori, 23 urte beteak zituela.

Nobiziotzako bigarren ikasurtea beste komentu batean egitea gomendatzen zuten garai hartan; beraz, Markinara eraman zuten beste 22 anaiarekin batera. Bertan, latina hobetu zuen eta Santa Teresa eta San Juan de la Cruzek idatzitako liburuekin bere heziketa osatu zuen. 1891n Burgozera abiatu zen Filosofia ikastera. Han zegoela, ibilbide erlijiosoarekin jarraitu zuen.

Mexikora bidali zuten

1899an Mexikora bidali zuten. Bertan, Durango eta Mazatlan herrietan komentuak eraiki zituen eta bisitari orokor gisa egin zuen lan. Han, Carmelitas Misioneras



Pedro de Eriz Egiluz. | ANTONIO UNZUETA

de Santa Teresa fundazioa sustatu zuen. Gainera, hainbat eliza berreskuratzeko eta berreraikitzeke nahia helarazi zion Rainaldoko ordenako jeneralari. Jeneralak, eskaera ikusita, Mexikoko karmeldar komentu guztietako bisitari orokor izendatu zuen. Garai zailak izan ziren harentzako eta baita beste hainbat erlijiosorentzako, espainiarrak gaizki ikusiak baitzeuden garai hartan.

Errepublikara garaian komunitate erlijiosoak ez zeuden onartuta, tolerantziaren onartuak ziren soilik, eta karmeldarrekin hori gertatu zen. Gure protagonista, azkenean, Mexikotik atera zen aske, baina bere anaia erlijioso batzuek ez zuten zorte berbera izan, kartzelaratuak izan baitziren. Pedro de Eriz, orduan, Ameriketako Estatu Batuetara joan zen, bertan bere erlijioaren eta

idealen alde ekiteko. Kalifornian beste komentu bat eraiki eta fundazio bat aurrera ateratzeko lanetan aritu zen.

Berriz ere Mexikora itzulita, gaixotasun luze bat bizi izan zuen Pedro de San Elias erlijiosoak. Gaixotasunari aurre egin, eta 1908an Mazatlaneko parroko izendatu zuten. Urte askoan komunitate hartako herritarrei laguntza eman zien eta bere nahiak eta sinesmenak zabaldu zituen.

Tarragonan nobizioen maisu

Hainbat urte Mexikon eman ondoren, 1930ean Tarragonara abiatu zuen. Han, probintziako lehen buruzagi eta nobizioen maisu izendatu zuten. Mexikon egin bezala, Katalunian ere bere tenorea argi utzi zuen, oso aktibo eta konprometitua azaldu zen. Antonio Untzuetak idatzitako biografian adierazten denez "noizbait errezatzeraz joateko ezintasunen bat bazuen, geroago eta denbora luzez aritzen zen errezatzen".

Martiri izateko bidean

1936an gerra piztu zenean, erlijiosoen eta apaizen aurkako jazarpena izango zela bazekiten Tarragonako komunitatean. Hasiera batean, De Eriz ez zen beldurru, Mexikon hainbat iraultza bizi izan zituelako. Baina berehala konturatu zen egoera ez zela berdina, eta hainbat neurri hartu zituen. Lehenik, nobizio guztiak euren etxetara bidali zituen, eta, ondoren, beste aita guztiei lagunak ziren familietan etxe hartzeke gomendatu zien. Egun batzue-

tan etxez etxe gordeleku eske aritu ondoren, andre baten etxean geratzeko aukera izan zuen. Hilabete batzuk familia haren etxean egon bazen ere, atxilotua izan zen. Beste anaia batzuekin batera Rio Segre itsasontzi-kartzelara eraman zuten. Rio Segre urte askoan epaiketaren zain zeuden pertsonen kartzela izan zen. Lepo bete zen 36ko gerra garaian eta handik irteten ziren gehienak fusilatua izaten ziren. Bada, Pedro de Erizi eta beste erlijioso batzuei horixe bera gertatu zitzaie: handik atera zituztenean, erail egin zituzten.

Beatifikazio prozesua

1952an hasi zen beatifikazio eta martiri izendatzeko prozesua, eta Tarragonako karmeldar oinutsen zazpi erlijioso sartu ziren prozesuan; horien artean, Pedro de Eriz. 1992an Erroman aurre-rapauso bat eman zuten, juridikoki onartzen baitzuten beatifikazio prozesua. 2011n, teologoen ezohiko bilera izan zen eta bertan, domekan omenduak izango diren 500 erlijiosoek martirioa jasan eta beatifikazioa merezi dutela onartu zuten. Prozesu luzeari, beraz, amaiera emango zaio domekan, meza horrekin.

"Tarragonara pozik goaz"

"Sorpresaz izan da guretzat albiste hau jasotzea; izan ere, urte asko pasatu dira beatifikazio prozesu hau hasi zela, eta, behingoz, amaitu da. Pozik gaude albistearekin; izan ere, gure familiaren historia hobeto ezagutzeko aitzakia ederra izan da Pedroren beatifikazioa", adierazi du Ana Herizek. 7-8 senide joango dira Tarragonara euren senidearen beatifikazioaren omenez egingo den mezara. Aramaioko alkate Ramon Ajuria ere Katalunia aldera abiatuko da asteburuan.



Rio Segre itsasontzi-kartzela. | 'RELIGIÓN EN LIBERTAD' BLOGA

ESANAK

"Gure arbasoen bizitzaren berri izateko aukera izan dugu"

ANA HERIZ | SENIDEA

DATUA

500

ERLIJIOSO

Pedro de San Elias beatoarekin batera, 500 erlijiosoren omenezko meza izango da domekan.

Gizarte zerbitzuak hobetzea, zaintzaileak era berezian zainduta

Udaletxetik Txaeta kalera eramango dute zerbitzua, datorren ikasturtean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gizarte zerbitzuak lehenetsunezkoak dira Arrasateko Udalaren dako. Udal aurrekontuaren zati handi bat Ongizate Sailera bideratzen dela da horren erakusle eta asteon agerraldia egin du Amaia Larrañaga zinegotziak hirugarren adinekoei zuzendutako zerbitzuak erreparatzeko.

Hasteko, nobedade nagusia izan du hizpide, hau da, Sendian programa: "Sendian Gipuzkoako Foru Aldundiak hirugarren adineko pertsonen zaintzaz arduratzen diren familiako kideei zuzendutako programa da. Hau da, senidea izan behar da zaintzailea. Zaintza honek suposatzen duen estresa eta itoaldia arintzea du helburu programa honek".

Zaintzaileak zaindu beharra

Hala, familiako kideak zaintzen dituzten pertsonendako ikastaroa antolatu dute; *Norbere buruaren zaintza: besteak zaintzeko norbere burua zaintzen*. Doakoa izango da eta BAZen eman beharko da izena urriaren 21a baino lehen. Gehienez 20 pertsonendako lekua



Ongizate Saileko bulegoak udaletxean, asteon. | JOKIN BEREZIARTUA

dago eta lehenetsuna izango dute mendeko pertsonarekin bizi diren horiek, hots, PECE onuradunek. Karmele Gurrutxagak gidatuko du ikastaroa eta saioak azaroan izango dira: hilaren 5, 12, 19 eta 26an. Kulturateko Loramendi gelan elkartzeko dira.

Sendian programaren berri eman ostean, hirugarren adineko pertsonen zuzendutako gainerako

DATUA

%60

ARRASATEARRAK

Gizarte larrialdien eskaerak igo egin dira: erabiltzaileen %60 arrasatearrak dira.

zerbitzuak erreparatu zituen Larrañagak. Izan ere, laguntzera bideratuta dauden zerbitzuen zerrenda luzea da. Laguntza ekonomikoak emateko orduan zorrotasuna nabarmendu zuen Ongizate zinegotziak: "Dirulaguntzetan beti daude eskalak, eta ondasunen zein pentsioen arabera ematen dira. Oso kontrolatuta dago dena".

Lokal berria atontzen

Udaleko Ongizate Sailean, udaletxeko bulegoetan, 12 langilek egiten dute lan egun. Bulego berria behar dute, oraingoa txiki gertatzen gain, ez delako irisgarria -udaletxeko azken solairuan dago-. Hala, asmoa da datorren ikasturterako zerbitzua udaletxetik atera eta Txaeta kalera eramatea. Hau da, egoitza berria Inem ondoan egokituko dute.

Eraikin berria atontzen hasiak dira dagoeneko: "Bost edo sei hilabete barru obra amaituta egongo da. Lekualdaketa uda partean egingo dugu", esan zuen Larrañagak. Lanek 10.856 euroko kostua izango dute, BEZ barne.

Hirugarren adinekoendako zerbitzuak

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Zaintza pertsonalerako edota etxea garbitzeko. Aste barruan gehienez hiru ordu. Kostua ondasunen eta pentsioen arabera kalkulatzen da. 129 erabiltzaile ditu egun.

TELEALARMA

Medaila baten bidez egoera larri baten aurrean botoia sakatu, eta enpresa familia kideekin edota SOS zerbitzuarekin harremanetan jartzen da.

LAGUNTZA TEKNIKOAK

Mugikortasun pertsonala, irisgarritasuna erraztea, babes zaintza pertsonala, etxeko egokitzapenak, komunikazio eta seinale sistemak...

EGUNEKO ZENTROA

Aita Mennik kudeatzen du; eguneroko zerbitzua, goiz eta arratsalde. Aste barruan beteta dago; 18 lagun itxaron zerrendan.

EGOITZAK

Iturbide -105 plaza- eta Aita Menni -15 plaza-. 30 lagun itxaron zerrendan. Profilaran arabera leku batera edo bestera joan beharko da. Kostua ondasunen eta pentsioen arabera kalkulatzen da.

APARTAMENTU TUTELATUA

Pertsona autonomoendako alojamendua da, ohiko etxean jarraitzeko zailtasunak dituztenendako. Etxez etxeko zerbitzua ere jasotzen dute.

SENDIAN PROGRAMA

Pertsonen zaintzaz arduratzen diren familiako kideei zuzendua. Zaintzak suposatzen duen estresa arintzea du helburu. Zerbitzuak: familien prestakuntza, laguntza psikologikoa, elkar-laguntza taldea eta asteburuko atsedena.

ALDI BATERAKO EGONALDIAK

Sendian programaren barruan, zaintzaileei atsedena emateko egonaldiak. Mendeko pertsonen hilabete egin ahalko dute egoitza baten.

ITURBIDEKO JANGELA

Iturbideko jangela zerbitzua: bazkaltzeko (4,85 euro) zein afaltzeko (3,80 euro) aukera.

MENDEKOTASUN-LAGUNTZAK

Profesionalak ez diren eta mendeko pertsonarekin bizi diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa (PECE) eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa -zaintzailearen gastua arintzeko- (PEAP). Gainera, eguneko zentrorako edota egoitzarako eskaera eginda duten pertsonak hiru hilabete pasa ostean itxaron zerrendan badaude, aukera dute zerbitzu pribatu batera joan eta kostuari aurre egiteko dirua jasotzeko.

ERRETIRATU ETXEAK

Arrasaten dauden lau elkarteei dirulaguntzak ematen zaizkie jarduerak antolatzeko.

Uraren eta Errekaren Asteko ekintzak

J.B. | ARRASATE

Mankomunitateak antolatu duen Uraren eta Errekaren astearren barruan, Arrasaten ere hainbat ekintza egingo dituzte. Herritarrak sentsibilizatzeko da ekimenaren xede nagusia. Antolatzaileen ustez, Epeleko araztegia martxan jarri zenetik ibaiak garbiago doazela aprobetxatu behar da ohituretan eragiteko.

EGITARAUA

HILAREN 15ERA ARTE

17:30etik 20:30era

Ibaialde erakusketa Kulturaten.

HILAK 13, DOMEKA

09:30 Erreka garbitzea Mojategin, Eroski ondoan. Arropa eta oinetako egokiak eraman.

HILAK 16, EGUAZTENA

18:30 *El reto de la gestión sostenible del agua en Debagoiena* hitzaldia, Victor Peñas Ura Euskal Agentziako adituaren eskutik.

HILAK 19, ZAPATUA

10:30 Epeleko araztegiara bisita, euskaraz.

12:00 Epeleko araztegiara bisita, gazteleraz.

Nafarroa Oinez-erako txartelak AEDn salgai hilaren 17ra arte

Tuteran egingo da aurten Nafarroako ikastolen aldeko Nafarroa Oinez jaia, *Taupadaz bat egin!* lelopean. Arrasate-tik autobusean joan gura duenaren dako txartelak salgai daude dagoeneko, AEDn. Bazkideek hamar euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 12. Autobusa 08:45ean irtengo da Garibaitik eta itzulerara 19:00etan izango da.

LOMCEren aurkako manifestaziorako dei egin dute

J.B. | ARRASATE

Espainiako Gobernuak atzo onartu zuen hezkuntza erreforma berria, LOMCE edo *Wert legea* moduan ere ezaguna dena. Lege horren aurka hainbat ekimen egin dira Arrasaten, eta horren adibide da asteon Udalaren Hezkuntza Kontseiluak antolatuta Xabier Mendizabal BIHEko koordinatzaileak egin duen hitzaldia. Bigarren Hezkuntzako institutu

publikoen zuzendarien artean koordinatzaile lanak egiten ditu Mendizabalek, eta, haren ustez, onartu berri den legeak "sailkapena" egiten du ikasleen artean: "Ikasteko eta pertsona moduan garatzeko aukera berdinak izan behar dituzte guztiek eta lege honek ikasleen arteko sailkapena egiten du".

Hitzaldian, bihar Bilbon egingo den manifestaziorako dei egin

zuten: 17:00etan irtengo da, Jesusen Bihotzetik. Arrasateko ikastetxe guztiek egin dute manifestaziorako deia; gainera, Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak autobusa antolatu du. Garibaitik irtengo da, 15:30ean.

Elkarretaratzea gaur plazan

Arrasateko Ikasle Abertzaleak eta Ernai taldeek elkarretaratzea deitu dute gaurko, Herriko Plazan

(18:30). Atzo "ikasle haserre eguna" antolatu zuen Ikasle Abertzaleak-ek hezkuntza gune guztietan: "Norbanako nahiz kolektiboaren eskubideak bermatuko dituen hezkuntza eraiki ordez, eta herriaren mesedetara egongo den hezkuntza eredu eskaini beharrean, merkatuaren logikaren baitan inposatuko den hezkuntza eredu da LOMCE", diote. Ikasle Abertzaleak taldeak ere dei egin du biharko manifestaziorako: "Ikasle Blokea osatzera deitzen dugu", adierazi dute.

Musakolako Gazteen Eguna ospatuko dute bihar Herri Eskolan

Jai Batzordeak eta Gazte Txokoak antolatuta, bihar Lehenengo ospatuko dute Musakolako Gazteen Eguna. 12 eta 17 urte artekoendako askotariko ekintzak izango dira Herri Eskolako jolastokian: haurrendako jolasak, bazkaria, grafitiak, herri kirolak, taillerak eta Repelencia talde gaztearen kontzertua.

Zuriñe Biguri / Hezi eta Hazi akademia

"Hezkuntza era ludiko eta didaktikoan azaltzea da Hezi eta Hazi akademiaren helburua"

Etxeko lanek eta ikastetxetik kanpo egin beharreko lan estrek beti sortu izan dituzte tira-birak. Orain, bost urtez zenbait ikastetxe eta udalekutan lanean ibili ostean, Zuriñe Biguri, Haur eta Lehen Hezkuntzan diplomadunak, akademia berritzaile bat sortu du.

Non sortu zen Hezi eta Hazi akademia zabal-tzeko proiektua?

Hezkuntza formal eta ez formalean eskarmentu handiko pertsona naiz, eta sistemak dituen hutsuneak bertatik bertara ezagutzetik sortu dudana akademia da Hezi eta Hazi. Hemen, heziketa aisialdiarekin uztartzen dugu eta gaztetxoek eta gurasoek bi alde horiek bateratzea asko eskertzen dute, gainontzeko tokietan bi arlo horiek oso bereizita daude-eta.

Zein da akademiaren funtsa?

Dudarik gabe, euskara. Hizkuntza ezagutzea premiazkoa da, eta arazo akademiko asko hor hasten dira, gaztetxoek ez dutelako euskara behar bezala jaso. Hortaz, edukiak barnertzeko orduan arazoak izaten dituzte. Hemen, talde txikietan egiten dugu lan, eta, hizkuntza harremanetarako tresna natural bezala aurkeztean, euren hiztegiak, gramatikak... hobera egiten dute.

Zure akademia ludoteka bat dela esan daiteke?

Ludoteka bat, bere izenak dioen moduan, jolas egiteko espazio bat da. Haur, berriz, akademia bat da; ikasketetan dituzten hutsuneak betetzera etortzen dira hona. Baina talde txikietan egiten den ekintza bat denez, alde ludikoa ere oso agerikoa da. Gainera, norbanakoari arreta berezia jartzen diogu. Talde dinamikan funtzionatzen dugun arren, nor bere izaera eta premiak azaleratzeko aukerak sorrarazten ditugu. Askotan,

ikastetxeetan, talde handiekin lan egitean, gazteek galdetzeko latsa sentitzen dute; hemen, aldiz, gehiezin, seiko taldeetan elkartzen direnez, ez dute erreparorik sentitzen.

Etxeko lanak nekezak beharrean dibertigarriak izatea lortu duzu?

Ez nuke horrenbeste esango. Egia da etxeko lanak egiteaz gain, alde ludikoari ere garrantzi handia ematen diogula. Kontuan izan behar da umeek ikastetxeetan ordu dezentente eman ostean, sistema bera erabiltzen duen akademia batera eroanez gero, eraginkortasuna galdu egiten dela.

Zein da metodoa?

Metodo jakin bat baino gehiago, urtetako esperientziari esker egindako hausnarketa baten helmuga da Hezi eta Hazi. Pertsona guztiok ez dugu erritmo berean funtzionatzen eta talde handi batean erritmo bat ezartzea ezinbestekoa da. Hemen, aldiz, ez da horrela gertatzen; ekintza eta tailerrak taldeka egiten ditugun arren, bakoitzaren erritmo eta beharrei arreta berezia jartzen diegu.

Ikastetxeetako programazioa errespetatu egiten duzue?

Noski, hori guztiz beharrezkoa da. Ikastetxeek erabiltzen duten programazio eta eredu gure sistemara egokitu dugu. Gazteak errefortzua behar duenez, ikastetxean erabiltzen duen sistema errespetatzea premiazkoa da. Hala ere, desberdintasunak egon badaude; hemen, testuliburuak baino gehiago, ikasteko orduan lagungarriak diren material osagarria eta jolasak



Zuriñe Biguri, Hezi eta Hazi akademiako arduraduna.

ditugu. Horrela, sistema errespetatu arren, gazteari estimulu berriak proposatzen dizkiogu. Izan ere, akademian, hezkuntza era ludiko eta didaktikoan ematea da gure helburu nagusia.

Zein adinetako taldeak dituzu?

Haur Hezkuntzatik hasi eta Bigarren Hezkuntza arteko taldeak sortu dira. Ordutegi batekin lan egiten dugunez, taldeak ez dira elkartzen. Saio bakoitzean adin tarte baten beharretara moldatzen gara. Gainera, txikiek arreta berezia behar dutenez, errefortzurako beste irakasle baten laguntza daukat, adin tarte horretan arreta pertsonalizatua ezinbestekoa delako.

Ordutegia askea da?

Ez, jende gehiena 16:00ak eta 20:00ak bitartean etortzen denez, akademia ere goizean irekita dago. Hala ere, behar eta adinaren arabera ordutegi eta talde zehatzak sortu ditugu.

Aste bukaeretan, gainera, programazio berezia duzue.

Aste bukaerak erlaxatzeko egunak direnez, tailer bereziak sortu ditugu. Natura ezagutu, erlazioak indartu... Goiz berezia denez, gure eskaintza ere horrelakoa da. Laster, gure filosofiarekin bat eginez, zenbait ekintzatar gurasoak ere gonbidatuko ditugu, gazteen hezkuntzan garrantzi handia dute-eta.

"Heziketa, hizkuntza aisialdiarekin uztartu dugu"

"Bakoitzaren erritmoa errespetatzen dugu"

"Asteburuan eskulan tailerrak egiten ditugu"



Jolasa eta ikasketak uztatu egiten dira.

Hezi
eta
Hazi

HEZI ETA HAZI JOLAS-AKADEMIA

Biteri etorbidea 13, Arrasate

671 33 66 14

hezietahazi@gmail.com



Jolas-Akademia



Ferrerias kaleko Irati tabernaren atarian agerraldi jendetsua egin zuten martitzen iluntzean. | JAGOBA DOMINGO

Irati taberna babesteko, jende uholdea Ferreriasen

'Herriko tabernen' eta Segiko kideen aurkako epaketak salatu dituzte asteon

JOKIN BEREZIARTUA / J.D. | ARRASATE
Datozen egunotan 76 euskal herriarren eta 110 lokalen aurkako epaketak hasiko dira, 35/02 eta 26/11 sumarioen harira. 35/02 sumarioaren epaiketa urriaren 17an hasiko da: Baltasar Garzon epailearen aginduz, Herri Bata-suna, Euskal Herriarrok eta Batasuneko ordezkari izandako 36 lagun epaituko dituzte. Epai horren arabera izango da 110 lokalen etorkizuna. Hala, *Herriko tabernen* epaiketaren harira, Arrasaten Irati taberna, Arrano elkarte, Lagunilla taberna eta beste bi lokal Estatuaren esku gera daitezke.

26/11 sumarioari dagokion epaiketa, berriz, hilaren 14an hasiko da; 40 gazte epaituko dituzte Segiko kide izateaz akusatuta eta, besteak beste, sei urteko espetxe zigorrari egin beharko diote aurre.

Irati Libre, 70 atxikimendu
Epaiketa horiek salatze eta auzipetuei elkartasuna adierazteko, agerraldi jendetsua egin zuten martitzenean Ferreriasen, Irati tabernaren atarian. Epai-ketetan "jomuga" diren kideak izan ziren agerraldian: batetik, Kepa Ormaetxea eta Mariasun Pagoaga, Harotz-Toki elkartearen legezko ordezkari gisa, eta, bestetik, Irati Muxika gazte independentista.

Duela 33 urte eraiki zuten Irati taberna, "Arrasateko herriari elkartzeko eta mobilizazio leku bat eskaintzeko", eta, Pagoagaren ustez, helburua lortu zuen. "Makroepaiketaren mehatxua Irati edo elkartearen aurkako mehatxua da, lokalak daude bahitzeko arriskuan. Gure lokalak enbargaturik daude, gu ez. Gure esku dagoena egingo dugu herri-arena eta gurea dena berreskura-

tzeko", gaineratu zuen Pagoagak. Era berean, epaiketa hilaren 17an hasiko dela bai, baina noiz bukatuko den ezin dela jakin adierazi zuen.

Irati Libre deritzon dinamika jarri zuten martxan duela hilabete, herritar, talde, komertzio eta

Jaialdia eta mobilizazioak

Gaur, adin guztiendako jaialdia egingo dute Irati tabernaren inguruan: haurrendako jolasak (17:30), mahai-futbol txapelketa (19:00), ardo eta gazta dastatzea, eta musika, bertso eta kantuz osatutako ikuskizuna (19:00). Amaitzeko, Arrano elkartearen bertako produktuekin egindako afariak eskainiko dituzte, 20:30ean.

Bestalde, hilaren 17an manifestazioa egingo dute, Seber Altube plazatik irtenda (19:30). Eta urriaren 26an Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa 15:30ean irtengo da Garibaitik. Txartelak salgai daude Irati: langileentzat zortzi euro eta ikasle zein langabeentzat, bost euro. Hiru ekintza horietan parte hartzeko dei egingo dute.

Objektu gutxi BAZen, Maritxu Kajoi pasatu ostean

J.B. | ARRASATE

Maritxu Kajoi osteko lehen egunetan lan handia izaten dute Biztanleen Arreta Zerbitzuan, festa egunean galdutako hainbat objektu agertzen direlako eta hainbat herritar joan ohi direlako galdutako objektuengatik galdezka. Bada, aurtengoa salbuespena izan da: "Aurten, aurrekoetan baino askoz gutxiago jaso dugu. Harritzekoa da, egun hauetan hainbat objektu jasotzen ditugu-eta. Galdutako objektuen apala bete egiten zen. Lapurtutako edo galdutako objektuengatik galdetzen 14 dei jaso ditugu; mugikorrak, diru-zorroak eta poltsak dira gehienak", esan digu Eduarne Muxika arduradunak.

Lapurreten susmoa

Muxikak uste du aurten lapurretak egon direla: "Beste urte batzuetan objektu gehiago jaso ditugu. Aurten, baina, jendea galdezka etorri bai, baina entregatzera ez da ia inor etorri". Izan ere, Maritxu Kajoi egunean desagertutako objektuen artean, autoko giletza batzuk bakarrik agertu dira.

Zerbaiten bila doazenekin nola jarduten duten gogoratu digu Muxikak: "Objektua berreskuratzeko asmoz datozenei izen-abizenak eta telefono zenbakia emateko eta objektuaren deskribapena egiteko eskatzen diegu".

1983an futbol partidua jokatu zuten emakumeen bazkaria

1983ko uholdeetan izandako kalteen harira nesken futbol partidua jokatu zen urte hartako urriaren 12an. Iaz lehen aldiz elkartu ziren hura gogoratzeko; aurten ere elkartuko dira. Bazkaria hilaren 19an egingo dute, Txalaparta elkartearen. Izena emateko, 615 79 85 98 (Fernando) telefonora deitu edo faguriondo@hotmail.com helbidera idatzi behar da.

1956an jaiotakoek ospakizuna egingo dute azaroaren 9an

1956an jaiotakoak azaroaren 9an elkartuko dira. 10:00etan elkartuko dira Garibain, Gernikara joateko, eta irteeran parte hartu gura dutenek Laboral Kutxaren honako kontu korrante zenbakian 60 euro sartu beharko dituzte: 0011156514. Ordainketa egite-rakoan, izen-abizenak jarri kontzeptu moduan.

ESANAK

"Lokalak enbargaturik daude, gu ez; gure esku dagoena egingo dugu gurea berreskuratzeko"

MARIASUN PAGOAGA | HAROTZ-TOKI

"Elkartasunetik konpromisora"

Bestalde, Irati Muxikak euren aurkako epaiketa "azkena" izatea eskatu zuen: "Horretarako proposatzen duguna elkartasunetik konpromisora igarotzea da, gure atxikimendua ematek mobilizazioetan parte hartzea, gure baitatik ingurukoei eragitera, ukaziotik desobedientziara bidea egitea. Urratsez urrats, bide horretan aurkituko gara". Amaitzeko, salatu zuten bi epaketak "euskal gizartearentzat mehatxu beraren" parte direla.

Ford Mugarrik eta MUK kanpoan jokatu dute bihar arratsaldean

J.B. | ARRASATE

Lehen Nazional mailan jokatzeko duen Ford Mugarri eskubaloi taldeak bihar jokatu du Santonán (Kantabria), 18:30ean. Lehen hiru partiduetatik bi irabazi eta bat galdu ostean, igoera lortu zuten kantxara bueltatuko dira. Xabier Altzelai jokalaria araberak, ez da igoera faseko "infernua" izango, baina partidu "gogorra" izango da. Taldea babestuago egoteko klubak autobusa jarri du prezio berezian; 14:45ean irtengo da, Iturripetik. Eserleku gutxi geratzen dira, eta joan gura duenak Angel Moralejari deitu beharko dio lekuri dagoen galdetzeko (606 06 50 12).

MUK Azpeitian, bihar

MU saskibaloi taldeak ere bihar jokatu du, Azpeitian (18:30). Josu Larreategiren mutilek jokatu dituzten bi partidua irabazi dituzte eta aurkariak, berriz, biak galdu: "Azpeitiarren jokoa bideratzen zuten Zubizarreta anaiak ez daude aurten eta hutsune handia izango da euredako", dio entrenatzaileak. Kanpoan jokatzeko nahiago dutela gaineratu du: "Iturripeko kantxa oso labainkor dago, eta, Aukeakoak arazoa konpontzen saiatu arren, ez dute helburua lortzen. Kantxa horrela egonda, epaileak partidua bertan behera uztea ez litzateke harritzekoa izango".



RAMON AZKARATE

Babesa Losadari eta Aizpuruari

Lazkaoren aurka (1-0) jokatu aurretik, Julen Losadari eta Andoni Aizpuruari babesa erakusteko kamiseta jantzi zuten Mondrako jokalariek. Ligako lehen jardunaldian belaunean hartu zuten min bi jokalariek eta denboraldi erdi egingo dute, gutxienez, jokatu barik. Gotzon Urtzelaireren mutilek bihar jokatu dute, Ordizian (16:30).



Kultura arduradunak, Iñaki Mayor aktore arrasatearrarekin. | IRATI GOITIA

Kultura emanaldiz beteta dator Amaia antzokiko udazkena

Aurrerantzean, emanaldi guztietarako sarrerak Udalaren webgunetik erosi ahal izango dira

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Udazkeneko kultura agenda aurkeztu dute eta egitaraua emanaldiz beteta dator, besteak beste: antzerkia, dantza eta kontzertuak. Hemendik aurrera, gainera, Arrasateko Udalaren webgunetik erosi ahal izango dira emanaldi guztietarako sarrerak.

Zarzuela, opera, gopela, antzerkia... Hori eta gehiago izango da Arrasaten urritik abendura bitartean, aste honetan aurkeztu duten kultura emanaldien egitarauaren arabera.

Kultura Sailetik adierazi dute askotariko gustuak gozatzeko moduko egitaraua osatzen ahal direla. "Euskal konpainien partaidetzarekin adin tarte guztiak gogoan izan ditugu", esan du Jon Garaik, Kultura Saileko teknikariburuak.

Hala, Eñaut Elorrietaren kontzertua, *La Traviata* opera, *Hansel eta Gretel txokolatzeko etxean* antzezlanak, *La taberna del puerto* zarzuela, Kukai dantza taldearen *Komunikazio inkomunikazio* ikuskizuna eta asteburu honetan,

urriaren 12an, izango den *Sutondoan* antzezlanak dira eskaintzetako batzuk.

Programazioaren adibide gisa, hilabete honetako saioak ikusi besterik ez dago. Urria amaitu arretik, 19an *El sueño de una noche de verano* dantzaldia eskainiko du Carmen Roche ballet konpainiak. Handik astebetera, hilaren 26an, J.C. Brooks & The Uptown Sound musika taldearen soul doinuek beteko dute antzokiko *hall*-a. Hilabetea opera emanaldi batekin itxiko dute, urriaren 30ean Ozekin taldeak antolatutako *La Traviata* operaren

txanda izango da. Urria amaitu baino lehen, gaztetxoek, gainera, *Sutondoan* argi-ilunekin jolas egiten duen antzerkiarekin gozatu ahal izango dute.

Bertan, Iñaki Mayor aktore arrasatearrak hartzen du parte, eta hark ere ekintzen aurkezpean parte hartu du. "Itzal bidezko antzerkia da. Euskal konpainien artean ez dira honelako antzezlanak egiten. Euskal konpainietan oinarritzen da; hala, euskal pertsonaia mitologikoak agertzen dira", azaldu du Mayorrek. 3 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzendutako ikuskizuna den arren, helduengan ere harrera ona izaten duela adierazi du aktore arrasatearrak.

Sarrerak internet bidez

Gogoan izan behar da hemendik aurrerako kultur ekintza guztietarako sarrerak Arrasateko Udalaren webgunean erosi ahal izango direla. Jendeari sarrera erostea erraztu eta erosoago egiteko, gainera, kultura arduradunek esteka zuzena jarri dute Arrasateko Udalaren webgunean.

Sarrerak erosteko bide berri horrek, gainera, abantailak ditu. Gaztetxoentzako emanaldietako sarrerak euro bateko deskontua izango dute eta helduentzako saioek, aldiz, %10eko beherapena. Internet bidezko salmentak emanaldietara joan ohi diren pertsona kopurua handituko du, ziur.

ESANAK

"Gazte eta helduentzako programa sortu dugu"

JON GARAI | KULTURA TEKNIKARIA

Zineak ere bere tokitxoak izango du

Tradizioari eutsiz, hilabete honetan ere Amaia antzokia zine eskaintza zabala hartuko du. Haurrek lau film izango dituzte: *Aviones*, *Los Pitufos 2*, *Epic* eta *Zarafa*, azken film hau gainera euskaraz emango da. Nagusiek aldiz aukera zabalagoa izango dute. Aste bukaeratan: *MUD*, *Asalto al poder* eta *Cruce de caminos* izango dituzte eta martitzenetan *El ejercicio del poder* eta *Perder la razón* filmak ikusteko aukera izango dute.

Literaturjauziak: oparo bezain beharrezkoak

Iraila eta urria bitartean literaturara hurbiltzeko hainbat aukera proposatu ditu AED elkarteak

I.G. | ARRASATE

Liburuek beste unibertso bat zabaltzen duten moduan, Literaturjauziak liburugintzara hurbiltzeko bide berriak zabaltzen dituzte. Antzerkia, hitzaldia, ikastaroa... AED elkarteak jendea literaturara gerturatzeko hainbat genero eta formatu erabili ditu. "Aniztasuna jauzien ezaugarrietako bat da", dio Itxaro Artolak, ekimenaren arduradunak.

Aniztasun hori formatuetan ez ezik gonbidatu eta proposamenetan ere nabaritu da. Zine ikastaro trinko batekin hasi zituzten jauziak: "Amaieran, oso lan polita irten zen". Jauziotan, ikusle edo entzule baino gehiago, bertaratzen direnak parte hartzaile bilakatzen dira. Aurten, Zaharberriren aldeko bigarren eskuko liburu salmenta ere egin dute. "Saltzeaz gain, egun batzuk geroago, dozena bat liburu

herrian zehar aske utzi genituen", aipatu du Artolak.

Hurrengo bi saioak klasi-koagoak izan dira, Mikel Martinezek hiru mikro-antzerki ekarri zituen eta Harkaitz Canok hitzaldia egin zuen: "Canok jende gehiago erakartzea espero genuen". Artolak emakumearen presentzia azpimarratu izan nahi du, "parte hartzaileen gehiengoa" emakumeak izan dira-eta.

Atzoko saio 'ganberroa'

Azken saioa berezia izan zen, kaleko antzerkia eta irakurketa batu zutelako. Herriko *teatro* eta literatura-zaleen laguntzarekin, erdigunean zehar askotariko literatur generoak irudikatu zituzten.

Taberna eta kale giroan egindako saio horrek bosgarren edizioaren zain utzi zituen arrasatear asko.



Harkaitz Canok zuzendutako saioa. | IMANOL GALLEGO

Udazkeneko literatur solasaldietako emanaldietarako izen-emate epea zabalik dago

Udal Bibliotekak aurtengo ikasturteko Literatura Solasaldiak abiarazi ditu, eta, izena emateko epea hil hasieran ireki zuten arren, oraindik zabalik dago. Gaztelaniazko saioak 29an hasiko dira eta euskarazkoak, aldiz, egun bat geroago. Saio guztiak Kulturaten izango dira. Oraingoan, Udal Bibliotekak udazkeneko saioak besterik iragarri ez duen arren, solasaldi horiek urte osoan martxan egongo dira. Gainera, parte hartu nahi dutenek ez dute solasaldi guztietara joan beharrik izango.



Munduko erakutsia 2
Tel: 943 70 20 55



Lope de Agirrerri buruz esandakoak argitzeko hamabostaldia hasiko da

ARTASOk antolatu ditu martitzenean hasiko diren ekitaldiak, herriko beste elkarte batzuekin batera

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Lope de Agirrerriren jaiotzaren urteurrena haintzat hartuta, Lope Agirre izena jarri zioten joan den urtean herriko kale bati. Orain, Lope de Agirrerri buruzko hamabostaldia antolatu dute. "Ez dakigu zehatz zein urtetan hil zen, baina 500 bat urte dira. Hori, baina, ez da Lope de Agirrerri buruz ez dakigun gauza bakarra. Hari buruz idatzitako guztia ere zuzena edo okerra den ez dakigu, eta hori guztia azaltzen saiatuko gara hamabostaldi honetan", dio Kepa Elortzak, hamabostaldia antolatu duen ARTASO kultura elkarteak.

Adituen ahotik eta iruditik

Eta hori guztia argitzeko, hitzaldiak, film emanaldiak, erakusketa eta kale antzerkia antolatu ditu ARTASOK.

"Jose Antonio Azpiatzuk Lope de Agirrerriren garaiko *Oñate* eta inguruko egoera ekonomikoa eta soziala azalduko du eta Jerardo Elortzak, berriz, Lope de Agirrerriren jatorria aztertuko du. Hari buruz egin diren film batzuk ere aztertuko eta kritikatuko ditu", dio Elortzak. Bestalde, Lope de Agirrerriren jatorri aramioarrak berba egitera etorriko da Julen Arriolabengoa.

Lope de Agirrez egin diren hainbat film ere emango dituzte, zinema aretoan batzuk eta Antixena gaztetxean beste batzuk. Horieta film batzuk, gainera, oñatiarrek egindakoak dira, Agustín Goenagak eta Anton Txintxurretak, hain zuzen ere.

Horrez gain, Anjel Amigo zinema ekoizlea eta Jesus Egiguren proiektugilea dokumental bat ari dira prestatzen Lope de Agirrerriren Amazonasen egin zuen



Anjel Mari Milikua eta Kepa Elortza erakusketa muntatzen. AMAIA TXINTXURRETA

denboraldiaz; horretaz berba egitera etorriko dira biak.

Erakusketa

Bestalde, eskulturak, margoak, marrazkiak eta zeramikak jasoko dituen erakusketa zabalduko dute martitzenean kultura etxean. "Oñatiko artistek egindako lanak dira gehienak. Herriko elkarteekin antolatu dugu hamabostaldia. Kale antzerkian, esaterako, Pake Lekuko antzerki taldeko aktoreek hartuko dute parte. Lope de Agirrerriren zigilu bat atera dugu, Oñatiko Filatelia Elkartearekin batera, eta irrati afizionatuekin ere jarri gara harremanetan. 26an, esaterako, Dukearen lorategian, Lope de Agirrez jardungo dute Pedro Txintxurreta oñatiararekin batera.

Herriko ikastetxeekin ere egin dute berba antolatzaileek, eta erakusketaren bisita gidatuak egingo dizkiete adin askotariko gaztetxoek.

Paretetan agertu diren kartelak salatu ditu EAJk

O.E. | OÑATI

Herriko hormetan itsatsita agertu diren paper batzuk salatu ditu EAJ alderdiak.

Joan den egubakoitzean, urriaren 4an, ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak, Herriaren aurkako operazioa gaitzesteko. "Guk badakigu une latzak direla zuendako, eta gure elkartasuna adierazten dizuegu. Gustatuko litzaike, baina, zuei ere elkartasuna eskatzea. Izan ere, atzo herrian agertu ziren orriak ez dira aproposak garai berri honetan. Alde guztiok egin behar dugu garai berri honen alde lan", adierazi zien Lourdes Idoiaga zinegotzi jeltzaleak Bilduko hautetsiei. Kaleetan agertu diren orrietan honakoa jartzen zuten: *EAJk espainiar poliziaren mesedetara ezarri du bere zakurrada 18 atxiloteta egiteko*. Idoiak gaineratu zuen mingarria dela horrelakoak kalean ikustea.

Bestalde, Herriaren aurkako operazioa salatzeko bi modio aurkeztu zituzten, alderdi bakoitzak bana, eta, hain zuzen, biak onartu zituen udalbatzak, aho batez.

Arantzazura joateko autobusak egongo dira bihar ere, zapatua

Arantzazura joateko autobus zerbitzua egongo da bihar, zapatua, eta etzi, domeka. Ordu guztietan izango dira autobusak; Oñatitik, lehena, 07:30ean irtengo da eta Arantzazutik, azkena, 19:00etan. 10:30ekoa eta 13:15ekoa Arrikrutzera joango dira. Bestalde, azaroaren 1ean neguko ordutegia izango dute autobus horiek.

ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

URRIAK 15

19:00 Jose Antonio Azpiatzuren eta Jerardo Elortzaren hitzaldia, kultura etxean.

URRIAK 16

19:00 Agustin Goenagaren *Agirreko Lope zatitua* filma, zinema aretoan.

URRIAK 22

19:00 Julen Arriolabengoak eta Xabier Santxotenen hitzaldia

egingo dute kultura etxeko areto nagusian.

URRIAK 23

19:00 Anjel Amigo eta Jesus Egiguren, kultura etxean.

URRIAK 21

19:00 Carlos Sauraren *El Dorado* filma, gaztetxean.

URRIAK 25

19:30 Agustin Goenagaren eta

Anton Txintxurretaren *Agirre* filma gaztetxean. Gero, afaria.

22:00 Werner Herzogen *Aguirre la cólera de Dios* filma, Antixena gaztetxean.

URRIAK 26

19:00 Kale antzerkia Lope Agirre kaletik abiatuta.

URRIAREN 15ETIK 26RA

18:00 - 20:00 Arte erakusketa kultura etxean.

Batetik Bestera bosgarren argazki lehiaketaren bozketa martxan da

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Uda ostean klasiko bilakatu den Batetik Bestera lehiaketak bost urte bete ditu, eta atzo, eguena, lehiaketaren erakusketaren irekieran argi geratu zen moduan, urte gutxian bizkor errotu den ekintza da.

Zazpi lagunek parte hartu duten arren, guztira 21 argazki lehiatuko dira. "Parte hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu ditu", diosku Joxe Azpitartek, Topalekuko arduradunak.

Erretratuetan, besteak beste, Oñati, Zumaia eta Donostia agertzen dira, baina Llanesko eta Tanzaniako argazkiak ere badaude. Argazkien egileak 12 eta 17

urte arteko gazteak dira, eta boto gehien jasotzen dituen argazkiaren egileak 150 euro irabaziko ditu; bigarrenak, 100. Araudiari kasu eginez, pertsona berak ezin izango ditu bi sariak irabazi.

Edozeinek bozka dezake

Erakusketa gaztelekuan dagoen arren, botoa emateko orduan ez dago adin mugarik. "Edozeinek eman dezake botoa", dio Azpitartek. Bakoitzak, baina, boto bakarra emateko aukera izango du. "Oso lan ikusgarriak aurkeztu dira, eta ikusteko moduko erakusketa da". Horiak ezagutzeko, gaztelekura 17:00etatik 20:00etara jotzea baino ez dago.



Argazki erakusketa. | JAZPITARTE

Botoa emateko azken eguna urriaren 23a izango da, eta erakusketa itxi bezain laster botoak zenbatuko dituzte. Hurrengo egunean, irabazleei zein sari jasoko duten jakinaraziko zaie.

Pentsamendua euskaraz garatzeko tailerra

O.E. | OÑATI

Esartetik egitera izeneko hausnarketa saioak antolatu dituzte. Herriko ikastetxeek, hango guraso elkarteek eta udalak osatzen duten Hezkuntza Mahaiak antolatu ditu, familiendako, formaziorako balio duten hitzaldi horiek, eta urrian eta azaroan egingo dituzte.

Emun-ekin

Saio horietan, hiru galdera hauen erantzunak landuko dituzte: *Euskaraz jakin bai, baina gaztelaniara jotzeko joe-ra duzu? Egoera jakin batzue-*

tan ohartu gabe hizkuntzak aldatzen duzu? Umeei euskaraz egiten diezu, baina nagusiekin nahiago gaztelaniaz?

Emun izango da tailerraren gidaria, eta helburua da euskararen erabileran eragiten duten faktoreei buruzko presuntakuntza hartzeaz gain, nor bere iritzi eta usteak azaltzea, pentsamendua garatzea. Tailerrak izaera praktikoa izango du eta edukiak hartzaileen eta taldearen ezaugarriei egokituko zaizkie. Zaintza zerbitzua eskainiko zaie horrela eskatzen dutenei, Txaloka ludotekan.



Joan den urtean egin zuten manifestazioaren hasiera, Foruen plazan. | JON BEREZIBAR

Guardia Zibilar Euskal Herritik joateko eskatuko diote, berriz

Elkarretaratzeak eta manifestazioa egingo dituzte bihar, zapatua

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Urriaren 12a da bihar, zapatua, eta Oñatiko Fan Hemendik! batzordeak elkarretaratzeak eta manifestazioa antolatu ditu, "Guardia Zibilar esateko alde egin dezala hemendik, Euskal Herria bakean utz dezala".

Kuartel aurrean

Biharko antolatu dituzten mobilizazioen artean, kuartelaren aurrean egingo dituzten elkarretaratzeak dira berritasuna. Arratsaldean hasi eta iluntzera arte, manifestazioa hasi arte, elkarretaratzea egingo dute kuartelaren

aurrean. Horretarako, baina, eta "kontzentrazioa indartzeko", hainbat eragilerekin egon dira Fan Hemendik! batzordeko kideak, eta haiekin batera antolatu dituzte elkarretaratzeak.

Horrela, Oñatiko eta beste herri batzuetako hainbat eragilek

txandaka hartuko dute parte 16:30ean hasiko den elkarretaratzean.

16:30etik 17:30era eragile hauek hartuko dute parte kale agerraldi horretan: Sortuk, Ernaik eta LABek. Hurrengo orduan, hau da, 17:30etik 18:30era: San Martingo Etxe Okupatuak eta Oñatiko Talde Feministak; eta 18:30etik 19:30era: Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko gaztetxeek.

Elkarretaratzeak egingo dituzten bitartean, *Fan Hemendik. Utzi bakean Euskal Herria* irakurri ahal izango den pankarta egongo da jarrita. 19:30ean, mezu horixe jasoko duen pankarta eskuan dutela hasiko dute manifestazioa, Foruen plazatik. Joan den urteko manifestazioan aldarrikatu zuten mezu bera, alegia. Iaz, gainera, Guardia Zibilei eskura, gutun baten bidez, eman zieten eskaera hori. Aurten ez diete gutunik entregatuko.

Deia

Fan Hemendik! batzordeko kideek biharko mobilizazioetan parte hartzeko deialdia egin gura diete herritarrei. "Altsasun herria militarki okupatu zuten Ospa! egunean, Leitzan barne ministroaren bisita izan zuten herriarena den eraikinean jarraituko dutela esaten, eta bakegintzan eta preso eta iheslarien eskubideen alde lanean diharduen mugimenduen aurkako operazioa" ikusita, "pankartetatik jauzi egiteko momentua" dela zabaldu gura dute batzordeko kideek.

Korrika egiten erakutsiko dute Zubikoa kiroldegian

O.E. | OÑATI

Zerbitzu berriak eskainiko dituzte ikasturte honetan Zubikoa kiroldegian: korrika hastapen zerbitzua, gazte-kirola eta patinajea.

Korrika egiten hasi gura baina nola hasi ez dakitenendako ikastaroa izango da *running* zerbitzua. Korrika egiten hasi gura duten herritarrei begira jarritako zerbitzua da. Astelehenera elkartuko dira; astelehenera eta eguaztentera, 18:15ean. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 45. Ikastarorako izen-ematea zabalik dago eta taldea osatzen dutenean hasiko dira zerbitzua eskaintzen.

Gazte-kirola

Gazte-kirola deituriko zerbitzua DBHko ikasleei zuzenduta dago, 13 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei, alegia. Horren helburua da lagun artean kirola eginez ondo pasatzea. Horretarako, izena ematen dutenek irakasle profesional baten laguntzarekin diseinatu dute saioetan landuko dituzten kirolak eta praktikak. Astelehenera elkartuko dira, martitzenetan, 18:30etik 19:30era. Urriaren 18a aurretik eman behar dute izena interesatuek eta zerbitzua azaroaren 5ean hasiko dute. Bazkideendako prezioa 14 euro da eta bazkide ez direnendako, 20,75 euro.

Patinajea

Patinatzen erakusteko zerbitzua, berriz, bi mailatan eskainiko dute: hastapen maila eta hobekuntza maila. Astelehenera birritan emango da ikastaroa, martitzenetan eta eguaztentera, 19:00etatik 20:00etara. Lehen hiru hilabeteetan hastapen maila landuko dute eta hurrengo hiruretan, hobekuntza maila. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 45 euro.

Bestalde, astelehenera hasiko dira ur jardueretako ikastaroak igerilekuan.

Oñatiko Mendia eta Natura argazki lehiaketa, hamargarrenez

O.E. | OÑATI

Oñatiko Mendia eta Natura izeneko argazki lehiaketa antolatu du, hamargarren aldiz, Aloña Mendiko Mendi sailak.

Hiru gai

Aurten ere hiru gai jarri ditu aukeran. Horietako bat *Gizakia mendian* izeneko da. Gizakiak mendian egiten dituen jarduerak (konpetizioak izan ezik) erakusten dituzten argazkiak aurkez daitezke sail horretara: alpinismoa, mendi eskia, trekkinga, korrika, eskalada, parapentea eta mendiko bizikleta izan daitezke adibideetako batzuk.

Mendi ingurunean sailean, berriz, mendiko ingurua erakusten duten argazkiak jaso gura dituzte, hala nola mendiak, mendi txikiak, basoak, errekek, faunak eta antzerakoak.

Hirugarren saila *Gizakiaren eragina* mendian da, eta horra mendiko inguruneak gizakiarengandik jasaten dituen gehiegikeriak salatzen dituzten argazkiak bidal daitezke.

Argazkiak aurkezteko azken eguna domeka da, urriaren 13a, eta Internet bidez bidal daitezke, www.concursosdigitales.com atarira edo aloñamendi.mendi@gmail.com helbidera.



TXANTXIKU IKASTOLA

Tolosako Erronka gaindituta

"Esperientzia ederra" izan zuten Txantxiku Ikastolako ikasleek Kilometroetako Erronka egitasmoan. Jone Markuleta, Joseba Otamendi, Gontzal Belategi, Dayi Espinoza, Aiora Ibabe, Eneko Ibabe, Miriam Agirre, Aritz Irigoien, Iñaki Zumalde eta Ane Anduaga lehiatu ziren, Gurutze Ansa eta Joxeina Imaz kapitaineekin batera.

Domeka goizerako egin dute hitzordua erreka garbitzeko

Erreka garbitzeko hitzordua egin dute domekarako, 09:00etan, Foruen plazan. Asmoa da Ugar-kaldetik Kasablankarainoko erreka zatia garbitzea. Hala ere, elkartutako jende kopuruaren arabera pentsatuko dute zati osoa garbitu edo zati horretako zein tarte garbitu. Jasotzen duten zikinkeria Foruen plazan jarriko dute ikusgai.

Autobusak antolatu dituzte Bilborako, LOMCEri ezetz esateko

LOMCE legearen aurkako manifestazioa egingo dute bihar, zapatua, Bilbon. Txantxiku Ikastolak autobusak antolatu ditu hara joateko. Autobusak 15:00etan abiatuko dira Ibarrako autobus geltokitik; bueltakoa 20:00etan irtengo da Bilbotik. Manifestazioa 17:30ean hasiko da Bilboko Jesusen Bihotzetik.

Su ta Gar taldea gaztelekuan ikusteko sarrerak salgai

Eibarko Su ta Gar taldeak urriaren 25ean joko du Oñatiko gaztelekuan, eta sarrerak salgai daude dagoeneko. Taberna hauetan eros daitezke, zortzi eurotan: Pako, Ona eta Boga. Egunean bertan ere salduko dituzte, txarteldegian, 10 eurotan. Kontzertua, ohi den moduan, 22:30ean hasiko da.

Ziklo-kros taldearen aurkezpena egingo dute bihar, zapatua

Denboraldi honetan ziklo-krosen jardungo duen Arrikruz-Aloña Mendi taldearen aurkezpena egingo dute bihar, zapatua. Ekitaldia eguerdian izango da, 12:00etan, udaltxeko osoko bilkuren aretoan. Hantxe egongo dira, besteak beste, taldeko txirrindulariak, prestatzaileak eta Udaleko ordezkariak.

Urriko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza

Oñatiko Odol Emaileen Taldeak deituta, urriko odol ateratzea egingo dute gaur, hilak 11, egubakoitza. Ohi den moduan, Txantxiku Ikastolan izango da ateratzea. 17:30ean hasiko dira eta 19:30ak bitartean egongo da aukera odola emateko. Horren ostean, mokadutxo bat hartzeko aukera egongo da ikastolan bertan.

Koloretsu eta indartsu bukatu dira herriko jai nagusiak

Udal Gobernuak gaur egingo du jaien balorazioa, baina gustura dago herritarren erantzunarekin

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Koloretsu eta indartsu bukatu dira aurtengo San Migel eta Erro-saixo jaiak. Astelehenean, Erro-saixo Bixamon egunean, herritar eta kuadrilla, asko atera ziren kalera mozorroa jantzita eta herriko kaleak kolorez eta giro onez bete ziren, beste behin. "Aurten ikusi da egun hori indartsu mantentzen dela. Mozorroak ez ezik, karroza eleganteak ere ikusi genituen kalean, aurretik landutako karrozak, eta horrek esan gura du jendeak gogoko duela egun hori", dio Nerea Zubiak, kultura zinegotziak.

Ekitaldi jendetsuak

Udal Gobernuak gaur, egubakoitza, egingo du jaien balorazioa. Egitarauan jasotako ekitaldien erantzuna eta jaiak nola bizi izan diren baloratu du, eta, horretarako, jaiak gertutik jarraitu dituzten beste udal langile batzuekin ere berba egingo dute; besteak beste, udaltzainekin.

Lehen inpresioa, baina, "ona" da Kultura zinegotziarendako, "jai parte-hartzaileak" izan direla uste du-eta. "Jende asko ibili da eta hori ekitaldi baten baino gehiagotan ikusi dugu. Txistularien alardean, Udal Musika Bandaren kontzertuan eta Oinkari eta Korrontzi dantza taldeek egindako dantza ikuskizunean, esaterako, jendetza batu zen. Batek baino gehiagok esan digu, gainera, asko gustatu zitzaiola dantza ikuskizun hori".

Aurtengo berrikuntzei buruz, piroteknia ibiltariak, esaterako, herritar asko erakarri zituela dio Zubiak. *Zuk ekarri zuk jan* ekimenak, berriz, ez du erantzun bera izan egin den bi egunetan. "Familiendako eguna ahul samarra izan zen kopuruari begira, nahiz eta joan zirenak gustura egon ziren, giro oso onean. Gaztetxoendako antolatutakoan, aldiz, mordo bat joan ziren, parte hartzera, gainera; oso arrakastatsua izan zen hori", dio Zubiak.



Boga, boga... Oñatiko marinel kuadrilla...



Umorea eta dantza nagusi.



Exorzista filmeko neska.



Badirudi bertakoa baino, batzuek futbol amerikarra gustukoagoa dutela.



Sokamuturra izan zen Erro-saixo Bixamon egunean.



Aireratzeko prest.



Handi eta txikiak, denak mozorrotuta eta ondo pasatzeko gertu.



Indiarrak hor, eta bakeroak non?



Salda egiteko txantxikuen errezeta berezia izango ote da?



Scura Splats-en *Cavalfoc* ikuskizuna. | ARGAZKILARIAK: A. TXINTXURREAL, GOITIA ETA S. CANO



Oñatiko Julio Iglesias. *Hey!*

San Joxepereren kultura hamabostaldia 14tik 26ra

Besteak beste, Agustin Untzurrunzagak hitzaldia egingo du, immigrazioaz


MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Astelehenean abiatuko da San Joxepe erretiratuen elkarteak urtero antolatzen duen kultura hamabostaldia. Hilaren 26ra bitartean, ekitaldi ugari eskainiko ditu hamabostaldiaren XVII. aldiak, gai eta arlo askotarikoak, gainera, beheko taulan ikusten den moduan.

Ohi bezala, irekiak dira antolatutako ekitaldietako asko eta gonbita egiten diete herritarrei parte hartzeko.

Bi hitzaldi egongo dira

Horietako bi dira, esaterako, Jenaro Lekuona Bergarako abadeak egingo duen hitzaldia eta baita Agustin Untzurrunzagak



Agustin Untzurrunzaga. | GOIENA

SOS Arrazakeria erakundeko kideak egingo duena ere. Azken hori bereziki azpimarratu nahi izan dute, gainera, San Joxepe elkartetik. Untzurrunzagak *Inmigrazioa Gipuzkoan gaur egun* izeneko hitzaldia egingo du eta datorren egunean, hilak 17, izango da, Miguel Altuna institutuko areto nagusian.

Hilaren 14an egingo dute kultura hamabostaldiaren irekiera ofiziala, Udaleko agintariek batera, eta orduan aurkeztuko dute XVII. aldi honetako kartela ere. Segidan, 17:30ean, *Zergatik bizi* delako hitzaldia egingo du Jenaro Lekuona apaizak. San Joxeperen egoitzan izango da.



Zaldi proba iazko ferian. | GOIENA

Plaza berrituan egingo dute etzi Elosuko feria

M.B. | BERGARA

Pilarika egunarekin bat eginez, 35. mendiko ganadu feria egingo dute bihar Elosuan. Berritu berri den auzoko plaza inauguratzeko ere aprobetxatuko dute. Gaur, egubakoitza, izango da hori, 19:00etan, eta, auzotarrez gain, Azkoitiko eta Bergarako udaletako ordezkariak egingo dira ekitaldian.

09:00etan irekiko dute feria zapatuan, eta, ohi bezala, bertako eta inguruetakoa ganadua ikusteko aukera egingo da; baita elikagai eta bestelako produktuak ere. Horrekin batera, eta iaz hasitako ekimenarekin jarraituz, Napar sustraien kalejira ere egingo da, 11:30ean, Iriaun gaz-

telura. 13:30ean, berriz, ganadu lehiaketaren sariak banatuko dira eta segidan, Laja II.a eta Lutxurdio trikitilariak emanaldia egingo dute. Arratsaldean herri kirolak egingo dira. Erakustaldia hasi aurretik, 17:15ean, proba-plaza inauguratuko dute, hori ere berritu egin dutelako, eta 17:30ean hasiko dira probak. Bentoste elkarteko idiak 1.500 kiloko *Bentoste* harriarekin arituko dira; Josu Txibiltarren behorra, 900 kiloko *Ixaun* harriarekin; eta Inazio Zubizarreta *Koatei*-ren astoa, 550 kiloko Lutxurdio harriarekin.

Autobus zerbitzua egingo da: San Martin plazatik irtengo dira, 09:30etik 15:00ak arte.

HAMABOSTALDIAREN EGITARAUA

URRIAK 14, ASTELEHENA

17:30 Jenaro Lekuona apaiz bergararrak *Zergatik bizi* delako hitzaldia egingo du, San Joxepe elkartearen egoitzan.

URRIAK 15, MARTITZENA

16:00 Irteera Aikur erleen museora eta Zumarragako Antioko baselizara. Gero, afari-merienda. Irteera autobus geltokitik.

URRIAK 16, EGUAZTENA

17:30 Dantzaldia eta ogitartekoak guztiendako, San Joxepen.

URRIAK 17, EGUENA

19:00 Agustin Untzurrunzaga SOS Arrazakeriako kideak *Inmigrazioa Gipuzkoan gaur egun* delako hitzaldia egingo du, Miguel Altunako areto nagusian.

URRIAK 18, EGUBAKOITZA

17:30 Oñatiko Ikusi-Makusi taldeak *¿Dónde está la pierna del*

alcalde? antzezlanaren egingo du, Zabalotegin.

► Erretiratuek egindako eskularen erakusketa ere irekiko dute egun horretan. 20ra arte egingo da ikusgai. Egubakoitzean 16:30ean irekiko dute. Zapatuko eta domekako ordutegia 12:00-14:00 eta 18:00-20:00 izango da.

URRIAK 21, ASTELEHENA

09:30 Irteera egingo dute Gernikako eta Mundakako itsasadarerra. Gernikako azoka ikusi eta Urdaibaiko herrietan barrena Bermeora joango dira, eta gero, Kasino jatetxean bazkalduko dute. Autobus geltokitik abiatuko dira.

URRIAK 22, MARTITZENA

19:00 Virginia Imazen antzezlanaren egingo du, Miguel Altunako areto nagusian.

URRIAK 23, EGUAZTENA

15:30 Bergarako Lehen

Hezkuntzako ikasleen lehiaketa historiko-kulturaleko sari-banaketa, San Joxepe elkartearen egoitzan.

URRIAK 24, EGUENA

20:00 Bergarako San Joxepe eta Arrasateko Abaroa erretiratuen elkarteetako abesbatzek emanaldia egingo dute Santa Marina parrokan.

URRIAK 26, ZAPATUA

14:00 Bazkaria egingo dute XVII. kultura hamabostaldiari amaiera emateko, opariaren zozketarekin, elkarteko jatetxean. Bazkari amaieran banatuko dira opariak bertaraten diren artean, eta ondoren, jai behar bezala bukatzeko, dantzaldia ere egingo da.

► San Joxepe elkarteko zuzendaritzatik jakinarazi dutenez, irteerarako eta hamabostaldia itxeko egingo den bazkarirako izena eman egin behar da. Horretarako, jo elkartearen bulegora.

OHARRAK

1970EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA EGINGO DUTE
Azaroaren 9an egingo dute, Tartufon, eta 13:00etan batuko dira, Ariznoan. Izena Sugo denda eman behar da (943 76 59 54).

1960KO KINTOEN AFARIA EGINGO DUTE 19AN
Zumelaga jatetxean izango da eta urriaren 12a baino lehen eman behar da izena Igarza harategian (Alicia) edo Barrenkaleko estankotan (Josefina), 10 euro aurreratuta.

1967AN JAIOTAKOEN AFARIA EGINGO DUTE 19AN
Etxagin izango da eta interesa-

tuek izena eman behar dute hilaren 16a aurretik, Elkar fotokopia dendan, 20 euro aurreratuta. Kintada egunean 20:00etan elkartuko dira, Infernokuan.

AUTOBUSAK NAFARROA OINEZ-ERA JOATEKO
Hilaren 20an Tuterako Argia ikastolaren alde antolatutako Nafarroa Oinez-era joateko autobusak antolatu dituzte bialarako euskara elkarteek. Prezioa 12 euro da; 10 euro, elkarteko bazkide izanez gero. Txartelak Jardun elkartearen bulegoan eskura daitezke. Jaiaren egunean, 08:30ean abiatuko da autobusa Ibargaraiko geltoki nagusitik.

BEHEKO TABERNA

Menestra eta mitxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

disdira

Ile-apaldegia edertze gela

Menestresen 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia

ARRANDEGIA

Frankozuri 8
BERGARA
Tel.: 943 76 86 82



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik

Makietegi 3, behean - Bergara - Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Bergara Garbiak elkarretaratzea deitu du astelehenerako

Atez atekoaren aurkako protestekin segituko du eta balkoietan poltsak jartzeko eskatu du

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Bergara Garbia plataformak atez atekoaren aurkako protestekin segituko duela iragarri du eta elkarretaratzea deitu du datorren astelehenerako. 19:30ean San Martin plazan batuko dira, "inposaketari aurre egiteko".

Elkarretaratzearekin bat egiteaz gain, "balkoietan poltsa gehiago jartzeko" eskatu die herriko bizilagunei.

Hondakinen Mahaia

Bilduk amaitutzat eman zuen Hondakinen Mahaia aurreko astean, eta horren inguruko iritzia agertu du Bergara Garbia plataformak prentsa-ohar baten: "Argi

geratu da erabakia aurretik hartuta zegoela eta aitzakiatzat erabili dute mahaiko gainerako partaideen malgutasunik eza. Lehen bileratik adierazi zuen Udal Gobernuko batzordeak negoziatzeko zela herritar guztiak kontrolatu zituen sistemaren ezarketa".

Plataformak hauxe adierazi du: "Hasieratik defendatu duten sistema mistoa inposatu dute, gure ekarpenak eta beste leku batzuetan ezarritako sistemak kontuan hartu gabe". Horrela, Zumaian, Azpeitian eta Donostian, "Bildu gobernuan egonda", bilketa selektiboa egiteko beste sistema batzuk adostu dituztela gogoratu du. Eta Udalaren jarrera kritika-



Poltsak balkoietan. | GOIENA

tu du: "Ez du bere hitza bete, negoziazioak iraun bitartean atez atekoaren inguruko obrak martxan jarri dituelako".

Euren iritzia defendatuko dute

Bergara Garbiak aurrerantzean hartuko duen jarrera azaldu du: "Ez dute gure laguntzarik izango beraiek nahi dutena egiteko, gure iritzia eta herritar askorena defendatzen jarraituko dugu". Gainera, Bilduri herri kontsulta egiteko eskatuko dio: "Behin eta berriz ezetz diote, baina azal diezaietela bergararrei zergatik".

Domekan Deba ibaia garbitzeko 330 bat lagunek eman dute izena

Epeletik Osintxurainoko zatia garbituko dute

M.B. | BERGARA

"Udaletik oso pozik gaude deialdiak izan duen erantzunarekin eta eskerrak eman nahi dizkiegu izena eman duten guztiei". Maren Belastegi zinegotziaren hitzak dira horiek, domekarako Deba ibaia auzolanean garbitzeko egindako deialdiak izan duen erantzunaren harira. Izan ere, erantzuna ez da nolana hiko izan: 330 bat lagunek eman dute izena Epeletik Osintxurainoko tartea garbitzeko.

Garbiketa lana ondo antolatzeke, hiru puntu nagusi zehaztu dituzte parte-hartzaileak elkartzeko -dagoeneko bakoitzak badaki nora joan behar duen-: Labegarietako kiroldegia -San Antoniotik Epelera bitarteko zatia garbitzeko-; San Martin plaza -erdigunea, poligonoa eta Mekolalderainoko zatian ibiliko direnak- eta Osintxu -auzo inguruko zatia-. Hitzordua 08:30ean da eta 09:00 aldera hasi-

ko dira ibaia garbitzen. Elkar-tze puntuetan talde argazkia atera ostean, ibaian gora edo behera joango dira boluntarioak, eta, horregatik, bizikletan joatea gomendatzen dute.

Arropa eroso eramatea

Ibaia garbitzeko eraman beharreko materialari dagokionez, ontziak, garbiak-eta Udalak berak jarriko ditu. Arropari dagokionez, berriz, eroso eramateko aholkatu dute, eta, badaezpada, aldatzeko beste bat ere eramateko esan dute. Oinetakoei dagokionez, horiek ere erosoak eta, ahal dela, orkatiletan ondo lotzen direnak eramateko esan dute.

Bada, 13:00ak arte ibiliko dira ibaia garbitzen, eta, orduan, hasierako puntuan elkartuko dira berriro ere. Gero, zenbait elkarte gastronomikok emango duten lancha dastatzeko aukera izango dute.

Goizane Arana | Uemako teknikaria eta 'Euskararen arnaguneak' tailerreko kanpoko dinamizatzailea

"Hizkuntzak bera nagusi den esparruak behar ditu"

Euskararendako beharrezkoak diren arnaguneak aztertuko dituzte urriaren 15ean eta 19an, Irizarren

I.E. | BERGARA

Euskalgintzak *Euskararen arnaguneak sendotu, garatu, hedatu* tailerra antolatu du hilaren 15erako eta 19rako. 19:00etan izango dira bi saioak, Irizar jauregian.

UREDERRA
ITZULKETA

**Iturgintza
Berogintza
Aira egokitua
Konponketa
Salmenta**

**Arturaga 11
686 943 918**

Zertaz ariko zarete tailerrean?

Arnaguneek euskararen bizi-raupenean duten garrantziaz ariko gara. Horiek sendotu eta hedatzea jarriko dugu jomugatzat. Gurean zein hutsune dauden aztertu eta espazio horiek irabazteko gakoak aurkeztu ondoren, konponbideak bilatuko ditugu.

Zeintzuk dira egun euskararen arnaguneak?

Mikel Zalbidek honela definitu zituen arnaguneak: "Euskara bere kabian sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe *etxeke jaun* sentitzen den eremua". Izan daitezke geografikoak edo sozio-funtzionalak: Uemako herriak, adibidez, hutsuneak hutsune, arnaguneak direla esan dezakegu; era berean, Bilboko Kafe Antzokia ere arnagunea da Bilbo barruan.

Zergatik dira garrantzitsuak?

Hizkuntza batek, garatuko bada, ezinbestean bera nagusi den esparruak behar ditu. Euskaldunok esparru guztietan euskaraz aritu ahal izateko guneak izatea ezinbestekoa da, horrek emango baitio bizi-indarra hizkuntzari, eta, horiek zaindu eta hedatu ezean, akabo euskararen etorkizuna.

Aldi berean, gune geografiko horietan distentsio eta kontzientziazio falta nabaritzen ari da, eta horretan eragitera gatoz.

"Arnaguneetan atzeranzko joera izan da, ezagutzak behera egin du"

Euskararen ezagutza gero eta handiago izanda ere, ez da gero eta zailago arnaguneak topatzea?

Euskararen ezagutzak gora egin du eta gune zabalagoa iritsi da. Baina, era berean, arnaguneetan atzeranzko joera izan da, gune horietan euskararen ezagutzak behera egin duela diote datuek. Horregatik diogu arnaguneak sendotzean eta hedatzean dagoela gakoak, hor euskararen indarra handia baita, eta ezin dugu utzi atzeranzko joerak jarrai dezan.

Zer egin dezakete herritarrek gune horiei eusteko?

Horri erantzutera dator tailerra. Lehenengo lana hutsuneak identifikatzea izango litzateke, eta gero, hori horrela izatearen arrazoiak zeintzuk diren aztertzea.

Faktoreak asko izan daitezke, eta, haien arabera, jarri beha-



Goizane Arana. | IURE EIZAGIRRE

rreko neurri zuzentzaileak ezberdinak izango dira.

Datorren astean hasiko den tailerra nori zuzenduta dago?

Deialdi irekia egingo dugu eta gaiarekiko interesa duen orori zuzenduta dago. Zera, egia da dei berezia egin diegula euskalgintzan aritzen diren eragileei, iruditzen zaigulako norbaitek akuilu lana ondo egingo badu, hori beraiek izango direla.

Izenik eman behar da?

Ez dago izena eman beharrik. Tailerrean azaldu, eta listo.

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxistegi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

TXIPI

Leiho isolatzaileak
PVC, aluminioa, beira, egurra

Aitor Zabaleta Agirre
Amillaga 5 behea
BERGARA

E-posta.: txipi@txipi.com
www.txipi.com

606 53 18 10 - www.txipi.com

Aurtengo udan, inoiz baino jende gehiago igerilekuetan

Azken hiru urteetako uda kanpaina arrakastatsuenan izan da aurtengoa

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Aurtengo uda oso arrakastatsua izan da Agorrosingo kirol instalazioen erabilpenari dagokionez; izan ere, uztailean noiz baino bisitari gehiago izan dira igerilekuek disfrutatzen.

Kontuak aterata, batez beste, 1.008 lagun egon dira egunero, Unai Asurmendi gerenteak zabalduko datuen arabera. Eguraldiak, noski, eragin zuzena du instalazioen erabilpenean. Uztaileko bigarren eta hirugarren asteak izan dira arrakastatsuenak, beroak izan baitira. Hain zuzen, aurtengo uztailean azken hiru urteetako jendetsuena izan da eta abuztua, ordea, batez beste, azken urteetako eskasena, sarrerei dagokionez.

Jolas-igerilekuaren eta berdegunearen inguruko datu mordoa batu dute Agorrosin, eta, behin udako instalazioak itxita,

aurtengo kanpainaren balantzea egiteko aukera izan dute arduradunek. Guztira, eta zehazki, 94.473 bisitari izan dira aurtengo uda sasoiaren Agorrosin; iaz baino 4.000 lagun baino gehiago (sarrerako tornuaren biraketen bidez kontrolatzen da sartu-irten kopurua; hortik datuok).

DATUA

1.000

BISITARI EGUNEKO

Egunero, mila lagunek baino gehiagok erabili dituzte Agorrosingo kirol instalazioak. Iaz baino 4.000 lagunek gehiagok.

Osasun-laguntzak

Osasun-laguntzen berri ere eman dute Agorrosindik. Gertaera larririk ez da izan, anbulantzia beharrik ez baita egon. Zauriak, ebakiak eta zorabioak izan dira kasu gehienak; hain justu, 59 izan dira eginiko asistentziak arlo horretan. Bestelako asistentziak, aldiz, 36 izan dira.

Araudiaren kontrako ekintzak ere izan dira aurtengoa, eta, beraz, beste urte batzuetan egin bezala, hainbat espediente ireki dituzte. Uda honetan, 38 erabiltzaile izan dira espedientatuak.



IPINTZA INSTITUTUA

Ipintzako ikasleak Sastarrain

Ipintzako DBHko lehen mailako ikasle eta irakasleak Sastarrain izan dira hiru eguneko egonaldia egiten. Euskal giroan, natura ezagutzeko, errespetatzeko eta elkar ezagutzeko asmoz joan dira Antzuolako, Elgetako eta Bergarako ikasleak elkarrekin.

Ordain daiteke ekonomia jardueren gaineko zerga

M.B. | BERGARA

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren erretribuzioak ordaintzeko epea astelehenean, urriak 7, zabaldu zuen Udalak. Borondatezko epea urriaren 20ra arte izango da; hortik aurrera, erreklamatzaileekin kobratuko da.

Erretribuzioaren ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banketxearen bidez bidali eta kobratuko zaie.

Erretribuzioak helbideratu gabe dituzten zergadunek, berriz, etxean jasoko dute ordainketa egin ahal izateko agiria. Agiri horrekin edozein banketxetatik edo udal bulegoetatik pasa daitezke ordainketa egiteko.

Agiri hori urriaren 31 baino lehen jasotzen ez bada edo azalpenen baten beharra izanez gero, Kontu Hartzailetzako bulegoetatik pasatzeko aukera dago.

Elosua auzoan lagatako bi behor azaldu dira eta erreklamatzeko epea zabaldu du Udalak

Udaletik jakinarazi dute lagatako eta identifikaziorik bateko bi behor atzeman dituztela Elosua auzoan. Hori dela eta, urriaren 2an emandako dekretu bat argitaratu dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean animalio erreklamatzeko. 30 eguneko epea dago erreklamazioa aurkezteko. Epealdi hori bukatuta ez bada inork erreklamatu, Udalak bereganatu, hirugarren bati eman edo hil egin ahal izango ditu.

Lorezaintza zerbitzu berria Debagoienean: Olatza Lorezaintza

Idoia Igartua bergarar gazteak Olatza Lorezaintza enpresa martxan jarri du. Lorezaintza eta natura dira haren zaletasunak; beraz, bere pasioa lanbide bilakatu du.



Idoia Igartua bergararra da Olatza Lorezaintzako sustatzailea.

Igartuak Baliabide Paisajistikoen Antolakuntza eta Kudeaketan goi mailako heziketa zikloa egin zuen Derion, eta, Bergarako Udalean lanean diharduen arren, bere pasioa lanbide bilakatzeari lotu du Olatza Lorezaintza enpresa martxan jarrita.

Bergarako Udalean kalegarbitzaile lan lortu bazuen ere, bere pasioa lorezaintzarekin eta naturarekin lotutako guztia da. Basozain izateko bidean jarri bazen ere, lorezaintzarekiko zaletasunak irabazi zuen partida. Hala, azken pausoa eman, eta duela zazpi hilabete, bere enpresa martxan jarri zuen: Olatza Lorezaintza. Amaren baserriari keinu bat egin nahi izan dio enpresari izena jartzeko orduan.

Eskaintza zabala

Oraingo, badulana. "Mantentze-lanak ditut eta zenbait lantxo ere ateratzen zaizkit; hortaz, pozik nago. Gainera, nire pasioa da, eta, beraz, gogo handiz eta profesionaltasunez egiten dut lan", dio gazte bergararrak. Mantentze-lanak

egiteaz gainera, denetari-ko eskaintza du; besteak beste, belarra moztu, inausketa, lore aldaketa, lorategien diseinua, ureztatzeko instalazioa eta garaian garaiko lanak egiten ditu.

Harremanetarako

Egin beharreko lanaren

arabera hainbat prezio eskaintzen ditu: "Inongo konpromiso gabe kontaktuan jarri nirekin eta aurrekontu bat pasako dizuet". Bi bide ditu horretarako: 626 33 50 76 telefono zenbakia eta posta elektronikoa: olatza_lorezaintza@gmail.com.

AMAIA ZABALETA IRAZABALBEITIA

Abokatua



HELBIDE BERRIAN:

Artekale 16, behea - BERGARA - Tel.: 943 76 21 71



OLATZA
LOREZAINZA

Deitu konpromiso barik!

IDOIA IGARTUA GALLEGO
Etxetako lorezaintza

626 33 50 76
olatza_lorezaintza@gmail.com
BERGARA

Azken joeren erakusleiho bilakatuko da gaur Durana

Aretxartek antolatuta moda desfilea egingo dute gaur, egubakoitza, Durana kalean, 18:30ean hasita

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Beste behin ere aterako dute kalera alfonbra gorria Aretxartekoek, eta, ostera ere, herritarrek modelo lanak egingo dituzte gaur, 18:30ean hasita.

Denboraldiko joerak erakusteko modua –eta aitzakia– izaten da desfilea, Aretxabaletako merkatarien elkartearen presidentea Idoia Elexpuruk aditzera eman duenez. "Herriko merkataritzari bultzadaxoa emateko sortu genuen Aretxartetik desfilea; gaurkoa seigarrena izango da".

Udazkeneko eta neguko joeretan herriko dendetan egongo dena bertatik bertara ikusi ahal izango dute herritarrek. "Sarri, kanpora joaten gara erosketak egitera, herrian zer dagoen jakin barik. Maiz ez dugu ohiturarik bertako dendetan sartzeko eta saltseatzeko. Aukera bat eman behar zaio bertakoari, eta ekintza honek kalera ateratzen du gure eskaintza".

UDAKoek euren tokia

UDAKoak ere desfilean izango dira. Taberna ipiniko dute Mitarten, eta jatekoa eta edatekoa salduko dituzte. Kirol elkarteak Igor Arenatzak herriko ekintzetan nahasita egotearen garrantzia azpimarratu du. "Aretxartekoak ekimen honekin hasi zirenetik beti egon gara hor. Bide horretan



Udaberriko desfilearen une bat. | IMANOL SORIANO

elkarrekin jarraitu dugu, eta aberasgarria da hartu-eman horrekin segitzea". Eta Elexpuruk ere denbora honetan guztian elkarrekin aritu izana polita dela esan du: "Herri txikia gara, denok ezagutzen dugu elkar eta horrelako ekintzetan batera aritzeak ekimena bera indartzen du". Baina taberna ipintzeaz gain, hainbat jokalarik desfilea ere egingo dute, Elexpururen esanetan.

50 lagunetik gora

50 lagunetik gora gehiagok desfilea egingo dute gaur. "Lotsak egon badaude, baina eskertzekoa da jendea prest azaltzea ekimenean parte hartzeko".

Hala, gaur, Kilima, Haurrak, Belar Meta, Titare, M5, Begira, Amaia eta Asensio dendetako udazken-neguko joerak ikusteko aukera egongo da, musikaz eta janariz girotuta.

LOMCE legea "atzerakoia" dela-eta, Bilbora joateko deia

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Bihar Bilbon egingo den LOMCE legearen aurkako manifestazioarekin bat egin dute Aretxabaletako hezkuntza eragileek. Pausokako irakasle eta guraso elkarteak, Almen ikastola, Lanbide Eskolako langile eta irakasleak, Kurtzebarriko Lehen Hezkuntza eta DBHko eragile eta guraso elkarteak, Basabeazpi ikastola, Huhezik eta Loramendi elkarteak egin dute bat deialdiarekin.

Herritar guztei deia

Eragile horien guztien ordezkariak prentsaurrekoa egin zuten martitzenean Arkupen. Besteak beste, legea atzerakoia

dela eta hezkuntza sistema propioa aldarrikatu zuten bertan. Iñigo Louvelli Hezkuntza zinegotziak ere hartu zuen hitza kultur etxeko agerraldian: "Euskal Herriko hezkuntza eragile gehienok -ikasle, familia, langile eta beste hainbat elkarte eta erakunde- argi adierazi dugu azken hilabeteotan Wert hezkuntza ministroak inposatu nahi duen LOMCE hezkuntza erreformarekiko gure aurkakotasuna".

Prentsaurrekoan, hezkuntza arloko jendeari bakarrik ez, herritar guztiei egin zieten zapatuan Bilbora joateko deia. Manifestazioa 17:30ean abiatuko da Jesusen Bihotzetik.

Erreka garbitzera irteteko eguna antolatu dute etziko, domeka

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Mankomunitateak antolatuta Ura eta Errekaren Astea ospatuko dute ibarrean urriaren 13tik 19ra bitartean eta tokian tokiko ekintzak antolatu dituzte horretarako.

Etzi, esate baterako, erreka garbitzera irteteko eguna izango da, eta Aretxabaletan ere egin dute bat deialdiarekin. Gura duten guztiek Herriko Plazan agertu beharko dute 09:00etan. Lanerako arropa proposak jantzea gomendatu dute antolatzaileek: "Errekan ibiltzeko oinetako egokiak –hau da, zapatilak edo katiuskak– eta esku-

larruak ekartzea gomendatzen da". Ibai bazterretan-eta garbitu ostean, "lunch txiki bat" egingo dute parte-hartzaile guztiek Herriko Plazan bertan.

Berbaldia bertan behera

Mankomunitateak aditzera eman dute bertan behera geratu dela hilaren 17rako antolatuta zegoen *El reto de la gestión sostenible del agua en Debagoiena* berbaldia. "Baina beste bat lotzen saiatzen ari gara".

Amaitzeko, urriaren 19an, zapatuan, Epeleko araztegiara bisita gidatua antolatu du Mankomunitateak.

Urriaren ere odola ematera joateko deia egin diete herritarrei

Urriaren ere egongo da Aretxabaletan odola emateko aukera. Hala, gura duten guztiek hilaren 14an (astelehena), 24an (eguna) eta 28an (astelehena) izango dute aukera. Horretarako, osasun etxera joan beharko dute, 16:30etik 20:00etara bitartean. "Animatu eta etorri!".

Etxeko zabor bilketaren borondatezko ordainketa epea ireki dute

Etxeko zabor bilketaren borondatezko ordainketa epea ireki dute eta 60 egun egongo dira tasak ordaintzeko. Helbideratuta ez dutenek udaletxeko bulegoetan egin beharko dute ordainketa. Aipatutako epean egin ezean, prozedura exekutibotik eskatuko dituzte, eta errekaru eta interesak gehituko zaizkie.

Ilatargik behaketa astronomikoa egingo du bihar, zapatua

Behaketa astronomikoa egingo dute bihar, urriak 12, Ilatargi astronomia elkarteak kiroldegi aurreko zelaietan, 20:00etan. Teleskopioak ipiniko dituzte, gura dutenek haietatik behatzeko. Lainotuta edo eguraldi txarra bada, berriz, bertan behera geratuko da.



Z.V.D.M.

Eseri dira lehenengo herritarrak

Hasi dira *Jar Gaitzen* ekimenaren barruko lehenengo bilerak eginen. Martitzenean hirigintzari eta ingurumenari buruz berba egitera animatu ziren herritarrak (argazkian) eta atzo, berriz, ongizatea eta arlo sozioekonomikoa izan zituzten hizpide. Hala, Aretxabaletaren egungo argazkia ateratzen eta etorkizuna marrazten hasi dira herritarrak.

UP ENGLISH SCHOOL

Ingelesko eskolak:

- Eskola-errefortzuak (maila guztiak)
- Azterketak ofizialak, ahizpak, beselak (adin eta maila guztiak)
- Egun osoan.

Loramendi 3 - ARETXABALETAKO
679 96 34 47
up.englishschool.ave@gmail.com

JOU DÍAZ

Starakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Ostegun Akustikoak, udazken iluntzeak musikaz janzteko

Urriaren 14tik 28ra eman ahal izango da izena Ostegun Akustikoak lehiaketan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Maiatza eta ekaina bitartean Ostegun Bidaiariak lehiaketa egin zuten Aretxabaletan. Bada, izandako harrera onak bultzatuta, oraingoan, eguenak musikaz jantzi gura ditu Aretxabaletako Udalak. Hori horrela, Gazteria Sailak Ostegun Akustikoak lehiaketa ipini du martxan.

Kantu originalak zein bertsoiak

Debagoienean musikarekiko dagoen tradizioa aprobetxatuta antolatu dituzte Ostegun Akustikoak, Gazteria teknikari Maider Etxanizek azaldu duenez. "Iruditzen zaigu eguenak egun aproposak direla musika entzuteko, eta talde zein bakarlariei zuzendutako lehiaketa da".

Hala, urriaren 14tik 28ra bitartean, interesa duten ibarreko musikari guztiek eman dezakete izena. Baldintza batzuk zehaztu

dituzte antolatzaileek: parte-hartzaileek, gehienez, 40 urte izan behar dituzte eta, era berean, Debagoienean bizi edo jaiotakoak izan behar dute.

Gutxienez, bi abestiz osatutako grabazioa aurkeztu behar da izena ematerakoan, eta baita talde edo bakarlarieren argazkiak ere. Horren ondoren, antolatzaileek aukeraketa egingo dute aurkeztutako guztien artean. "Kantuak

originalak izan daitezke, baina baita bertsoak ere. Interpretazioaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dira kontuan, eta jasotako proposamenetatik lau hautatuko dira lehiaketan parte hartzeko". Parte hartu gura dutenek gazteria@aretxabaleta.net helbidera idatzi edo 943 08 10 01 telefonora deitu beharko dute.

%50 baino gehiago euskaraz

Behin parte-hartzaileak zehaztuta, azaroaren 14an, 21ean, 28an eta abenduaren 5ean eskaini beharko dituzte kontzertuak, Aretxa-



Musikaria gitarra eskuetan duela. | JUDIT KLEIN

baletako hainbat tabernatan. Eta eman beharko duten kontzertuak 45 eta 60 minutu artean iraun beharko duela ere zehaztu dute. Gainera, "emanaldiaren %50 baino gehiago" euskaraz eskaini beharko dela ere azaldu dute.

Bi sari egongo dira: irabazleak 200 euro eskuratuko ditu eta bigarren geratzen denak, ostera, 100 euro. Eta Ostegun Bidaiariak lehiaketan bezalaxe, Akustikoan ere publikoak izango du gustukoena bozkatzeko ardura.

ESANAK

"Bakarleri zein taldeek eman dezakete izena lehiaketan"

MAIDER ETXANIZ
GAZTERIA TEKNIKARIA

Lehiaketa bidez hautatuko dute irakur punturako irudia, aurrenekoz

Azaroaren 8ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak

"Lehenengo aldiz antolatu dugu irakur punturako marrazki lehiaketa. Herritar guztiak animatu gurako genituzke parte hartzera". Hala azaldu du Joseba Lopez de Armentia liburutegiko arduradunak. Orain arte markatzaileetan agertu izan den irudia enkarguz eskuratu izan da; aurrenekoz, beste bide bati heldu eta herritarrei gura duten lana aurkezteko aukera eman diete.

Gai eta teknika libreak

Azaroaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak. Eta zehaztu dituzte lehiaketaren oinarriak: "Marrazkien gaia librea da, ez du zertan literaturarekin zerikusirik izan". Gura duten teknika ere balia dezaketela gaineratu du Lopez de Armentiak: "Eskuz egindako lanak aurkez daitezke, baina baita ordenagailuz sorturikoak ere". Baina, irudiaz gain, lelo bat ere azaldu beharko da aurkeztutako lanean.

Lehiaketan izena ematera animatzen direnek 14 urte baino

gehiago izan behar dituzte. Eta lanek hainbat baldintza bete beharko dituzte, antolatzaileek azaldu dutenez. Bestek beste, 21 zentimetro luze eta 5,6 zentimetro zabal izan behar dute, tamainari dagokionez. Gainera, irudiek originalak izan behar dute; hau da, sekula argitaratu gabeak izan behar dute.

Lanak Udal Liburutegian aurkeztu beharko dira.



Irakur puntua. | UDAL LIBURUTEGIA

Aretxabaletako eta Eskoriatzako 148 neska-mutilek Kantariko entseguak egingo dituzte bihar Arkupen

Bihar, zapatua, Goienako Kantari saioaren entseguak egingo dituzte Aretxabaletan. Hori horrela, Arkupe kultura etxetik Aretxabaletako eta Eskoriatzako 148 neska-mutiko igaroko dira. Urriaren 19an grabatuko dute Kantari Aretxabaletan, eta, saioko gidari Amaia Txintxurretak azaldu duenez, helburu zehatz bat izango du biharko entseguak: "Hain zuzen ere, datorren zapatuko saioaren grabazioaren ordua iristean, oholta ezagutzea eta taula gainean eroso senti daitezela da biharko entseguen helburua".

2013/2014 IKASTURTEA IKASTAROKAK DOHAINIK LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN
ZIURTAGIRI
BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)
KATALOGO MODULAR BERRIA

| ZIURTAGIRI PROFESIONALAK | PRESTAKUNTZA MODULOAK | PRESTAKUNTZA UNITATEAK | ORDUAK |
|--|--|---|--------|
| (FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA | MF0090_2 Txirbil-harroketa bidezko makina eta sistemen prestaketa eta mekanizazioa | UF0878 Makinen, ekipoen eta erreminten prestaketa txirbil-harroketa bidezko prozesuetan | 80 |
| | | UF0879 CNC programen elaborazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 80 |
| | MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa | UF0882 CNC programen egiaztapena eta optimizazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 70 |
| | | UF0877 Lan arriskuen prebentzioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 30 |
| (FMEO110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG eta (FMEO210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG | MF0100_2 Gas babestuan, elektrodo ez suntsitzailearekin soldadurak egitea | UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran | 60 |
| | | UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa | 70 |
| | | UF1626 Karbono altzairuak soldatzea TIG soldadurarekin | 90 |
| | | UF1627 Altzairu herdoilgaitzak soldatzea TIG soldadurarekin | 90 |
| | MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiektzio termikoak egitea | UF1628 Aluminio eta aleazioak soldatzea TIG soldadurarekin | 90 |
| | | UF1672 Oxigas soldadura | 70 |
| (SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA eta (SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANTARIOA | MF0251_2 Etxeko laguntza eta elikadura familiarra | UF0125 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen kudeaketa, hornikuntza eta sukaldea famili unitatean | 60 |
| | | UF0126 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen garbitasuna, mantenua eta antolaketa | 40 |
| | MF1019_2 Erakundeetan, laguntza soziala eta arreta komunikazioa | UF0129 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta soziala | 30 |
| | | UF0130 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen mantentzea eta eguneroko aktibitateen hobekuntza | 50 |
| | | UF0131 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonekin komunikazio teknikak | 50 |

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: FMEO110
Soldadura elektrodo estaliekien eta TIG

680 DOAN

KATALOGO MODULARRETIK KANPO

| | |
|-----------------------|----|
| Altueran lan egitea | 20 |
| Garabietan lan egitea | 20 |
| Eskorgan lan egitea | 20 |

DOAN

IDAIZKARITZAKO ORDUTEGIA
Asteleneratik ostiralera: 08:00 - 18:00
ETXEBARRI AUZOA, Z/G / 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955



Burrenba Kelele batukada taldea, egoitzara egindako bisitan. | BURRUNBA

Garagardo festa: debalde, baina gustura lan egiten

Atzo hasi eta domekara arte garagardo festa solidarioa izango da plazan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Atzo arratsaldean zabaltzekoa zen herriko zaharren egoitzari laguntzeko antolatutako garagardo festaren bueltan plazan jarritako karpa, eta hara joandakoek zazpi garagardo mota zein ukondo eta saltxitza ederrak jateko aukera izan zuten.

Baina, garagardo dastatzea-ekin batera, askotariko ekintzetan parte hartzeko aukera izango da karpan. Esaterako, bihar, 15:30ean, garagardo etxean egiten ikasteko erakustaldia dago. Gerri Gardo taldeak antolatu du hori, Eingeinkeren laguntzarekin. Aritz Oianguren parte hartuko du horretan. Garagardo egiteko erabiltzen diren lehengaien berri eman digu: hain justu, garagarra

malteatuta, lupulua, legamia eta ura. Eta horiekin egingo dute lan bihar arratsaldean.

Bost ordu garagardo egiteko

Horren harira, eskoriatzarrak azaldu digu edaria egiteko bost ordu inguru behar direla, eta, hortaz, prozesua aurreratuko dutela, erakustaldiak hiru ordu iraungo du-eta. Bost ordu egiten, baina, edateko gertu egon dadin, hilabete pasa behar dela ere aipatu digu. Hori dela eta, gertu dagoenean erakustaldira joaten direnen artean banatuko dute.

Erakustaldiaz gain, esan beza-la, bestelako ekintza asko izango dira: gaur, esaterako, 18:00etan, Alaitz mexikar taldeak joko du; 20:00etan, Malenkoniak; 22:30ean,

Burrenba Kelele batukada taldekoek; eta 23:30ean, Eko D Bull eta Bagauda taldeek.

Talde horiek eta datozen egunotan parte hartuko duten talde eta pertsona guztiek debalde egingo dute lan. Horren harira, nabarmentzeko da domekara bitartean 80 boluntariotik gora ibiliko direla lanean.

Gabonetako Loteria

Bestalde, festaz gain, Gabonetako Loteria ere atera dute, eta dagoeneko salgai dago. Txartel bakoitzak 3 euro balio du; horietatik 2 loterian jokatzeko dira eta gainerakoa egoitzari laguntzeko da. Batean zein bestean batutako diru guztia zaharren egoitzara bideratuko dute.

Huhezitik Santa Mariñe arteko erreka zatia garbituko dute etzi

M.B. | ESKORIATZA

Debagoieneko Mankomunitateak antolatu duen Erreka Astearren bueltan, Eskoriatzan ere Deba erreka garbitzeko deialdi irekia egin dute. Etzi, domeka, elkartuko dira, 10:00etan, plazan.

Ibarraundi museotik jakinarazi dute plaza atzean utzi eta Huhezi unibertsitaterantz abiatuko direla, handik jaitsiko dira-eta errekarara. Hain justu, bertatik Santa Mariñe plazarainoko tartea garbituko dute. Bi ordu inguru emango dituzte horretan, eta, amaitutakoan, hamarretakoa egongo da parte-hartzaileendako.

Ibarraunditik gaineratu dute errekatik ateratako zaborra

Santa Mariñe plazan jarritako edukiontzietan utziko dela.

Araztegi bisita

Bestalde, erreka garbitzeaz gain, Epele araztegia ere bisitatu ahal da hilaren 19an. Hitzordu bikoitza gertatu dute: 10:30ean euskarazko bisita gidatua hasiko da eta 12:00etan, gaztelarazkoa. Antolakuntzak garraio publikoa erabiltzea edo bizikletaz joatea (haraino bidegorria dago-eta) gomendatzen du.

Autobusean joenez gero, Lurradebusen honako ordutegia kontuan izatea aholkatu dute: euskarazko bisitarako 09:45eko autobusa hartzea eta besterako, berriz, 11:15ekoa.

0-6 urte arteko haurrak dituzten gurasoen elkargunea sortuko dute

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Hezkuntza Foroak eta Huhezi fakultateak haurtzaroen gaia jorratzeko elkargunea sortu gura dute. 0 eta 6 urte bitarteko umeak dituzten gurasoei zuzenduta dago, eta baita epe laburrean guraso izan nahi dutenei ere.

Hain justu, asmoa da haurtzaroen sakontzea; hausnarke-ta gunea eraikitzea, elkar laguntzeko eta haurren bizitza kalitatean eragiteko. Antolatzaileek azaldu dute saioek izaera dinamiko izango dutela eta Huheziko Hazitegi proiektuko partaideek eskainiko dituztela.

Bestalde, elkargunea hamabostean behin elkartuko da, eguenetan, 18:00etatik 19:30era, Ibarraundi museoan. Saioak urriaren 24an hasi eta abendura arte izango dira.

Izen-ematea astelehenean

Izen-ematea astelehenean zabalduko dute eta urriaren 24ra arte iraungo du. Interesa dutenek kultura etxeko Gazteria Zerbitzuan edo herriko ikastetxeetan eman behar dute izena; horretarako matrikula 10 euro da. Gazteria Zerbitzutik jakinarazi dute hamar gurasoko taldea osatuko dela, gehienez.

Haurrentzako arte sorkuntza tailerrea izena eman daiteke

Umeendako beste ikastaro bat antolatu dute: hain justu, 5 eta 11 urte bitarteko haurrendako arte sorkuntza ikastaroa. Eskolak astelehenean izango dira, 17:00etatik 18:30era, Ibarraundin. Hilaren 17a baino lehen eman daiteke izena, kultura etxean. Hileko kuota 22 euro da.

Kantarirako entsegua dute bihar neska-mutikoei

Bihar, zapatua, Goienako Kantari saioaren entseguak egingo dituzte Aretxabaletako Arkupen. Denera, Aretxabaletako eta Eskoriatzako 148 neska-mutiko igaroko dira egun osoan kultura etxetik. Kantari urriaren 19an grabatuko badute ere, komeni da aurretik entseatzeko.

Espainiako gerrari buruzko erakusketan Amaiur batailoien banderaxoa dago

EAJren 100. urteurrenaren erakusketa zabaldu eta hitzaldia egin dute asteen

J.B.-M.B. | ESKORIATZA

Hasi dira EAJ alderdiaren mendeurrenako ospakizunak. Martitzenean Espainiako gerrari buruzko erakusketa inauguratu zuten kultura etxean, eta, Eskoriatzako EAJko ordezkariekin batera, Neiker-Tecnaliako zuzendari Josu Ezkurdia eskoriatzarra eta Sabino Arana Fundazioako zuzendari Irune Zuloaga egon ziren ekitaldian. Hain zuzen ere, Sabino Arana Fundazioaren fondoetatik datoz erakusketako argazki eta panelak.

Erakusketan lekua egin diete hainbat bitxikeria bereziri; tartean, fundaziotik kanpo orain arte atera ez den Amaiur batailoien banderaxoari. Hori eta gainerako elementuak ikusi gura dituenak urriaren 19ra arte du aukera honako ordutegian: 18:30etik 20:30era bitartean.



Erakusketa kultura etxean dago. | JON BEREZIBAR

Lehen ekitaldia da erakusketa, baina ez azkena. Eguaztenean, Iñaki Goioganak hasierako hiru hilabeteetan Espainiako gerrak Leintz bailaran izandako eraginaz egin zuen berba. Gaur, 19:00etan,

Lehendakari Agirre: Desde Gernika a Nueva York pasando por Berlín proiektzioa ikusi ahal izango da museoan; bihar, 09:30ean, plazan batuko dira Atxorrotzera igotzeko; etzi, meza, 12:30ean.





Euskaraz hitz egiten hasita dauden ikasleen taldea. | OLAI A MURUA



Euskaraz zerbait ulertzen duten ikasleen taldea. | OLAI A MURUA

Euskara ikastaroetan bi talde izango dira aurten

Aste honetan hasi dituzte klaseak eta astelehenetik eguenera izango dira

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Gustura daude ikasturte berri honetan herrian euskara ikastaroez arduratzen direnak; izan ere, jende askok erakutsi du euskararekiko interesa. Eta horietako 16k hizkuntza ikasteko saioetan eman dute izena.

Ikasle kopurua kontuan hartuta eta euren ulermen mailan oinarrituta, bi talde osatu dituzte. Olaia Murua Debagoieneko AEK-ko kidea da bi taldeetako irakaslea eta hark azaldu du haien arteko ezberdintasuna: "Batzuek maila altuxeagoa dute; hau da, dena ulertzen dute eta hitz egiten hasi dira. Maila baxuagokoek zerbait ulertzen dute eta hitz batzuk esan ditzakete".

Lehenengoak astelehenetan eta eguaztenez batzen dira eta bigarrenak martitzenetan eta eguenera. Denek dute ordutegi bera: 18:00etatik 20:30era.

Aste honetan hasi dira eskolak Olaran etxean, eta, Muruak

onartu duenez, aste hasieran jende gutxi ibili da. Hala ere, gustura dago euskara ikasteko deialdiak ikasturte berrian izandako erantzunarekin: "Poztekoa da Antzuolan bi talde ateratzea, herria hain euskalduna izanda bertoko bizitzan

integratzeko modu bat baita". Gainera, Antzuolako Udalak finantzatutako eskolak dira.

Erabiltzeko ikasi

Euskara ikasle bakoitzak helburu bat izan ohi du hizkuntza ikasten hasteko garaian eta askotan horrek eragina du irakaslearen erakusteko moduan. "Euskara praktikoa ikastea izango da saio hauen helburua; hau da, egunerokotasunean sortzen diren egoeretan erabiltzen den euskara ikastea. Eta, betiere, eskolan ikasten dutena kalean erabilgarri izatea daukagu helburu moduan", argitu du Muruak.

Beraz, posible da, aurrerantzean, oraindik euskaraz txukun ez egin arren ahaleginetan dabilen herritarrekin topo egitea Antzuolan zehar. Muruak adierazi duenez, herri osoa inplikatu nahi dute euskararen ikaste-prozesuan; beraz, euren ikasleei saioetan landutakoa praktikan jartzeko eskatzeaz gain, antzuolarrak eurei euskaraz egitera animatu ditu, baina pazientzia pixka batekin, ikasten dabilzala gogoratuta.

DATUA

16

LAGUN

Euskara ikasteko 16 lagunek eman zuten izena; bi talde osatu dituzte.

ESANAK

"Poztekoa da bi talde ateratzea, integratzeko modua baita"

OLAI A MURUA | EUSKARA IRAKASLEA

Erretiratuak Errioxara joango dira bi aste barru

60 plaza daude eta datorren martitzenean eta eguaztenez eman beharko da izena erretiratuenean

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Urria erdialdera heltzen ari da eta Landatxope erretiratuen elkarteak egitarau oparoa du antolatuta datozen hamabost egunetarako. Hilaren 23an Errioxara egingo duten irteera izango da ekintzarik garrantzitsuenak.

San Vicente de la Sonsierra ezagutzera joango dira antzuolarrak eta bertako bizilagunekin harremanetan jartzeko aukera ere izango dute; izan ere, San Vicenteko erretiratuen elkartearen egingo dute hamarretakoa. Handik, Santa Maria de la Piscina ermitan dagoen Ama Birjina ezagutzera joango dira, bisita gidatua. Bazkalordurako etxera hurbiltzen hasiko dira eta Eltziegon bazkalduko dute.

Pixkanaka dena antolatzen dabilzuten erretiratuen elkarteak

eta 60 lagunek egin ahal izango dute Errioxarako irteera. Beraz, derrigorrezkoa izango da izena ematea eta datorren martitzenean eta eguaztenez izango da horretarako aukera erretiratuen egotzian. Pertsona bakoitzak 30 euro ordaindu beharko du irteerara joan ahal izateko.

Hitzaldia eta bisita

Datorren asterako ere hainbat ekintza prestatu ditu Landatxope elkarteak: egubakoitzean Virginia Imazen ipuin kontaketa saioa izango da, 17:00etan, eta zapatuan Bergarako Mizpirualde egoitzara bisita egingo dute.

Bestalde, urriaren 30erako antolatu duten merienda joan nahi dutenek ere datorren martitzenean eta eguaztenez eman beharko dute izena.



IURE EIZAGIRRE

Obrak Sanjosepen eta Sagastin

Aste honetan hasi dira obrak Sanjosepe kalean eta Sagasti auzoan eta herritarrei egunerokotasunean eragiten dieten aldaketa ugari ekarri dituzte. Sanjosepe kaleko sarbidea itxita dago, ondoko horma behin betiko egonkortu behar dutelako, eta Sagastiko sarreratik ere ezin da herrira sartu, lurra berdintzeko lanetan ari direlako. Autoak, beraz, Lapatzatik sartu eta Antiaguatik bakarrik irten daitezke.

Oinarineko dantzari txikiak, euren egunaren zain

I.E. | ANTZUOLA

Domekan egingo da Haurren Dantzari Eguna, eta bi urtetik behin antolatzen duen Oinarin dantza taldeko txikiak gogotsu daude horren zain. Eurez gain, Arrasateko Txikitxu eta Lore Gazteakekoek, Legazpiko Korostikoekek, Oñatiko Oñatzekek eta Soraluzeo Urratsekoek hartuko dute parte. Denera, 210 dantzari ibiliko dira herrian.

Denetarikoz dantzak eskainiko dituzte egunean zehar: esku-dantza, arku-dantza, makil-dantza, banakoa... Gainera, talde bakoitzak dantza berezi bat eskainiko du arratsaldeko saioan.

DOMEKAKO EGITARAUA

10:00 Herriko txistulariekin kalejira.

10:30 Dantzari harrera.

11:15 Taldeen kalejira herrian zehar.

12:45 Goizeko dantza saioa.

13:30 Haurren banaketa etxetara.

17:30 Arratsaldeko dantza saioa (bertaratutako talde bakoitzak dantza berezi bat egingo du).

Ohorezko Erregional mailako taldeak bihar jokatu du, Estalan

Joan den asteburuan Ostadarri irabazi zion Antzuolako Ohorezko Erregionaleko taldeak etxean jokatu du partiduan. Asteburu honetan ere herrian jokatu du talde nagusiak eta Aurrera izango du aurrez aurre. Partidua bihar izango da, 16:30ean, Estala futbol zelaian.

OHARRAK

IZEN-EMATE AMAIERAK

Memoria lantzeko tailerlean izena emateko epea gaur amaituko da. Bihar, berriz, gazte txokoan hezitzaile gisa aritzeko bukatuko da.

ARROLAREN IRTEERA

Arrolak Bardeetarako irteera zuen antolatuta biharko, baina LOMCEren aurkako manifestazioa dela-eta urriaren 27ra atzeratu du.



Udaletxe kanpoan zein barruan "lehentasunezko" lekua izan behar du Espainiako banderak. Irudian, azken osokoa. | J.B.

Bide legalak amaitu dira bandera gorri-horia jartzea saihesteko

Udalbatzak urriaren 30eko osokoa erabaki beharko du auziaren gainean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Irailekoa atzeratu ostean, Aramaio udalbatzak urriaren 3an egin zuen osoko bilkura. Bertan, besteak beste, Espainiako bandera udaletxean jartzeko azken epaia heldu zela iragarri zuen Lierni Altuna jarduneko alkateak: "Ez dago beste errekurtsorik jartzeko aukerarik. Bide legalak amaitu dira eta urriko osokoa hartu beharko da erabakia".

Espainiako banderak udaletxearen "kanpoaldean eta leku ikusgarrian" egon behar duela dioen Banderaren Legea 1981eko azaroaren 12koa da. Udaletxe barruan ere "lehentasunezko" lekua izan behar duela dio. Egun, Ikurrina eta Aramaio banderak daude osoko bilkuren aretoan. 2011ko udan, udalbatza berriak osatu eta segituan, udal guztiei idatzia bidali zien Espainiako Gobernu ordezkariak, "legea denondako berdina" dela gogoraraziz eta, beraz, bandera ipintzea tokatzen zitzaiela esanez. Debagoieneko gainerako udalen moduan, Aramaio udalbatza ez zuen

agindua bete eta helegitea jarri zuen. Madrilek ez zuen helegitea onartu eta orain ez dago beste bide legalik; urriaren 30eko osokoa eztabaidatuko dute gaia. Bandera gorri-horia jartzearen "inposaketari" nola erantzun erabakitzeke herritarren ekarpenei zabalik dago Udala.

Gazte lokaleko ordenantzak

Beste zenbait gai ere jorratu ziren osokoa. Herrira mugimenduaren aurkako operazioa salatzeke Gipuzkoako Batzar Nagusietan Bilduk eta EAJk batera ateratako mozio bera onartu zuten aho batez. Bes-

te mozio bat ere aurkeztu zuen Bilduk, Lomce legearen aurkako: "Dei egin nahi diegu hezkuntza komunitateari zein herritarrei lege honen aurrean euren desadostasuna adierazi eta gure eredu propioa aldarrikatzeko". Mozioak aurrera egin zuen, EAJk aurka bozkatu arren.

Era berean, gazte lokalaren ordenantza berriak onartu zituzten; hor ere Iñaki Nafarrate zinegotzi jeltzaleak kontra bozkatu zuen, gazte lokalak ordutegia izatea ezinbestekoa dela iritzita. Udalak ahalmen batzuk definitzen ditu ordenantza horretan: bizi-lagunen kezak jasoko balira, edo erabilera txarrak gertatuko balira Udalak aukera izango lukeela ordutegiak finkatzeko, lokala denboraldi batez ixteko edo lokala berreskuratzeko; gehienez 50 pertsona sar daitezkeela; debekatuta dagoela erretzea eta alkohola edatea; erabiltzaileek indarrean dagoen legedia bete behar dutela eta Udalak gazte lokala edozein unetan ikuskatu ahalko duela, besteak beste.

ESANAK

"Ez dago beste errekurtsorik jartzeko aukerarik"

LIERNI ALTUNA | JARDUNEKO ALKATEA

NIRE USTEZ

SONIA ETXENAUZIA



Oharra sorgin eskolatik!

Pagorriko sorgin eskolan nagoenean, sarritan sartzen naiz Murumendiko Damaren koban, gehienetan gertaerengatik eramana sentitzen naizenetan. Lur azpiko bidaia honek nire naturarekin bat egitea eta juizio eta gezurre-

kin amaitzea ahalbidetzen du. Atzo, haitz haietatik lur barrera murgildu nintzen, nire ardatzean nengoela *pentasatuz*.

Denboratxo bat egin nuen bertan, ezkutuko bazterrak maitatzen. Baina handik irten eta harrezkero Marik bazuen niretzat ikasketa prest: Damaren basotik, perretxiko bila, ez nuen ezer aurkitu. Behera begira nindola, bihotzaren deia sumatu nuen: "Zeren bila ari zara? Disfruta ezazu bidaiaz, eta aurkituko duzu benetan nahi duzuna; horrela izan behar badu, behintzat".

Beraz, lurra zapalduz, eguzkiak gozatuz, aurrera egin nuen.

Eta han agertu ziren lanpernak, pinutalak... Oparia! Ezeren bila aritu gabe. Orduan, berriz ere gogoratu nion neroni, behar dudana nire baitan dagoela eta ezer ez dela gertatzen kanpoan, barruan lehenago gertatu ez bada; oparotasuna, maitasuna, askatasuna...

Aurkitu arren, bilatzen ibiltzeak ez nauela inoiz guztiz asetzen, behar dudana erakar dezakedala.

Egun hartan naturaren mezu eta afari ederra izan genuen su aldeko mahai inguruan.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila Marin Koban!

Irati Muxikari babesa erakusteko jaialdia egingo dute bihar plazan

J.B. | ARAMAIO

Duela bi urtetik Aramaion bizi den Irati Muxika (Amezketan, 1985) gazteari babesa erakusteko jaialdia antolatu dute bihar, *Irati Libre, elkartasunetik konpromisora* lelopean. Auzitegi Nazionalean epaituko dute Muxika urriaren 14an, beste 39 gazterekin batera. Segiko kide izateaz akusatuta, 2008ko azaroan atxilotu zuten lehenengoz. Hiru hilabete egin zituen espetxean, eta, 10.000 euroko fidantza ordainduta, baldintzapean utzi zuten aske. Urtebete geroago, berritoki atxilotu zuten, eta, 20 hilabete espetxean egon eta 20.000 euroko fidantza ordaindu ostean, baldintzapean utzi zuten aske

berritoki -astero epaile baten aurrean aurkeztu behar du eta ezin da Espainiatik irten: "Libre izateko nahiak eraman ninduen espetxera eta libre izateko nahiak nakar zuregana, babesa, elkartasuna eta konpromisoa eskatzera. Epaiaketak gelditzeko ueña iritsi da", dio.

Herriko hainbat taldek hartuko dute parte Bizente Gokoetxean egingo diren ekintzetan. 11:00etan horma-irudi erraldoia marrazten hasiko dira eta 12:00etan, pintxo-poteoarekin batera, honako ekintzak egingo dira: txalaparta, alboka, bertsolariak, trikitilariak, musika emanaldia eta plazako dantzak.

Hiru ikastaro antolatu ditu aurten ere Udaleko Euskara Zerbitzuak; izen-ematea, hilaren 24ra arte

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Udaleko Euskara Zerbitzuak euskara ikastaroak antolatu ditu 2013-14 ikasturterako. Hiru ikastaro mota eskaintzen dira: hastapen ikastaroa, alfabetatze ikastaroa eta mintzalagun programa. Aurreko ikasturtean bi talde izan ziren martxan, alfabetatze ikastaroa eta mintzalagun taldea. Bien balorazio positiboa egiten du Udalak eta ikasturte berriari talde horiek jarraitzea espero du. Izena emateko epea urriaren 24 arte dago zabalik eta interesa dutenek udaletxera jo beharko dute: 945 44 50 16.



Alfabetatze ikastarokoak, iaz, Jon Azkoaga irakaslearekin -ezkerrean. | J.B.

Karrantzako Pozalaguas koba bisitatzeko aukera Alaiak erretiratu elkartearen eskutik

08:30ean irtengo dira autobus geltokitik, eta gero, hau izango da egitaraua: bisita gidatua Karrantzako Pozalaguas koban (11:00), bisita gidatua San Andres de Biaz de elizan (12:15), Artxandako Abaroa jatetxean bazkaria (14:15), denbora libre Bilbon (17:00) eta itzulera (19:00). Interesatuak 30 euro sartuko beharko dituzte elkartearen Laboral Kutxako kontu korrantean, urriaren 14a baino lehen. Plaza mugatuak dira: gehienez, 55 lagun.

ARETO FUTBOLA

SAILKAPENA

| TALDEA | P | J |
|-----------------------------|---|---|
| 1 Real Beni | 1 | 3 |
| 2 Bar Pura Vida | 1 | 3 |
| 3 Bar Flor de Lara | 1 | 3 |
| 4 Electricidad Jolma | 1 | 3 |
| 5 Cafeteria Manai | 1 | 3 |
| 6 Altrans | 0 | 0 |
| 7 Numero K | 1 | 0 |
| 8 Aramaio | 1 | 0 |
| 9 Colegio San Prudencio Bat | 1 | 0 |
| 10 La Trattoria Da Luigi | 1 | 0 |
| 11 Galtzagorri-Gasteiz | 1 | 0 |

EMAITZAK

Aramaio 5-7 Cafeteria Manai

Estreinaldia, porrotarekin

Euskal Ligako lehen partidua galdu egin zuen Aramaio taldeak; aurten, irabaztea iaz baino garestiago egongo da. Aste bukaera honetan atsedean hartuko dute Andoni Elejalderen mutilek.

ELGETA



Unai, Noa, Jon, Etor eta Maddi, eguaztenean, jolasparkeko ziburu berrietako batean. | LZ

Eguaztenetik zabalik da jolasparke berria

Herriko umeak gustura ibili ziren ziburu berrietan



Ilara luzea tirolinan ibiltzeko. | LZ



Amaiur, Eari, Iker eta Paula jolasparkeko modulu berrian. | LZ

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eguazten arratsaldean Bolatokian elkartu ziren herriko ume gehienak. Askorendako luze jo du irailak, batez ere hesitik ikusi behar izan dutelako jolasparke berriak forma nola hartzen zuten.

Udalak eguaztenean zabaldu zuten gunea, eta umeak gustura ibili ziren. Txanda hartu ezinik ikusi genituen hara eta hona. Tirolinak arrakasta handia izan zuen baita ere kulunkatzen den soka erraldoiak eta piramideak. Txikien artean, berriz, jolaserako estruktura handiak, txirristek eta hareazko guneak harrera oso ona izan zuten.

Helduek ere gustura hartu dute jolasparke berria, baina eguaztenean bertan zenbait kexa entzun ziren harrizko lurra dela eta. Oraingoan, horrela geldituko da. Lurra dagoen tokian botata dago belarra ateratzeko hazia.



Hanna eta Nora piramidean. | LZ



Zabalik da berriz Erdiko Denda

Mertxe Anasagasti aurkituko duzue aurrerantzean Erdiko Dendan. Urriaren 2an zabaldu zuen negozio berria, eta astelehenetik domekara bitartean aurkituko duzue dendan. Besteak beste, fruta eta barazkiak, askotariko elikagaiak eta ogia saltzen ditu. Ogiberriko ogi egin berria, hain zuzen ere.

Udalak geratu egin du 50 urte edo gehiagoko eraikinei ikuskapen teknikoak egiteko prozesua

Eusko Jaurlaritzak aztertzen dabil –eta badirudi haren asmoak hortik doazela– Eraikinen Azterketa Teknikoaren gaineko araua aldatzea. Derrigorrezko lehenengo epemuga 2018ko abenduaren 31n izango da, eta ez, hasiera batean esan moduan, 2013ko abenduaren 31. Gauzak horrela, Udalak geratu egin du ikuskapenak egiteko herri mailan abiarazitako prozesua.

Auzo-konposta egiteko interesatu gehiago balego, hilaren 15era arte luzatu dute izena emateko epea

Auzo-konposta egiteko interesa duten herritarrek hilaren 15era arte dute izena emateko. Ekimenak herrian harrera ona izan duela adierazi dute Udaletik. Kalkulatzen dute 85 familiak dihardutela Elgetan konposta egiten: 44 familia auto-konposta egiten eta 41 familia auzo-konposta egiten. "Gutxi gorabehera, 220 pertsona dira", adierazi dute, "%20 inguru". Izena ematen duten guztiek ikastaro txiki bat egin beharko dute.

Maala guraso elkarteak hilaren 17an, eguenean, egingo du ikasturteko lehenengo batzar orokorra

Herri eskolako guraso guztiak daude batzar horretan parte hartzera deituak. Batzarra 20:30ean hasiko da eskolako hirugarren solairuko musika gelan. Gai zerrendan daude, besteak beste, 2012-2013 ikasturteko balantze ekonomikoa, elkartearen batzordetik irteten eta sartzeko diren guraso ordezkarien berri ematea, gurasoendako formazio tailerrak, zorriak, urtebetetze ospakizuna...

LEINTZ GATZAGA

Erreka garbitzera joateko hitzordua, domekarako

Epeleko araztegiara bisita egiteko aukera ere bada

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Debagoieneko Mankomunitateak Ura eta Erreka izaneko astea antolatu du egunotarako. Hainbat ekintza antolatu dituzte aste horren bueltan: batzuk, komunak, bailarako herri guztietarako; eta beste batzuk, herri bakoitzean antolatutakoak.

Hain zuzen ere, komunean izango diren ekintzen artean, oraingo domekarako, Debagoieneko ibai eta errekek garbitzeko dei egin dute herriz herri. Eta Leintz Gatzagan bat egin dute hitzordu horrekin.

Hala, etziko, 09:30erako egin dute dei, Herriko Plazan. Asmoa da Arruen presatik Hiruerrekarainoko erreka tartea garbitzea. Ez da baldintza berezirik behar ekimenean parte hartzeko. Kontuan hartu beharreko bakarra da komenigarria dela egoki jantzita joatea.

Epeleko araztegiara bisita

Beste hitzordua, berriz, urriaren 19rako da, Epeleko araztegiara bisita izango da-eta orduan. Bi aukera daude: 10:30ean euskaraz eta 12:00etan espainolez.

Gaur, egubakoitza, jakinaraziko dute uso postuen adjudikazioa

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Joan den egubakoitzean bigarren enkantea egin ostean, eta hala ere ehiza barrutiko uso postu guztiak adjudikatu barik geratu direla ikusita, gaur, egubakoitza, hirugarren aldiz ahaleginduko da Udala hori egiten.

Urgentziak osoko bilkura egin zuten eguazten goizean kontu horren gainean. Eta udalbatzarrak erabaki zuena izan zen oraingo honetan enkante publikoa egin barik, prozedura negoziatuaren sistema erabiliko dutela uso postuak adjudikatzeke. Bestela esanda, Udalak zuzenean deitu ditu interesduinak euren eskaintzak aurkez-

ditzaten. Eta adostasunik ezean, zuzenean eurekin negoziatuko du uso postuen prezioa eta adjudikazioa.

Prozedura negoziatu horretan parte hartzeko ez da behin-behineko fidantza jarri beharrik izango. Hori bai, uso postu bakoitzeko, eskaintzaileak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du.

Gaur zabaldu, gaur esan

Eskaintza horiek gaur 15:00ak aurretik entregatu behar dira. Eta guztiak jaso eta berehala, 15:15ean zabalduko dituzte. Helburua da adjudikazioa ere ahalik eta lasterren egitea.

Autobus zerbitzua hobetzeko batzar irekia izango da gaur

2013an eta 2014an Gipuzkoako autobus zerbitzuen adjudikazioak berritu egin behar ditu Foru Aldundiak. Eta hori egiteko, herritarrekin zuzenean berba egin gura du Aldundiak, haien beharrak entzun eta behar horien arabera erabakitzeke datozen urteotarako garraio zerbitzuen nondik norakoak. Horretarako, 56 parte-hartze prozesu jarriko ditu abian, baita Debagoieneko herri guztietan ere. Eta Leintz Gatzagan gaurko, egubakoitza, egin dute horretarako hitzordua, 19:30ean, udaletxean. Garraio publikoari buruz zeresana duten guztiak daude gonbidatuta.

ATLETISMOA

320 bat lagunek egingo dute arineketan Arrasatek Oñatira

M.B. | ARRASATE

Urteurren borobila beteko du bihar, zapatua, Arrasate-Oñati lasterketak: 30. aldia. Urtemuga hori ospatzeko, 320 bat lagun egingo dute korrika. Haiekin batera patinatzaileak ere egongo dira, 11.600 metroak egiteko asmoz.

Aurtengo berrikuntza nagusia da ibilbideko zati batzuk bidegorritik egingo dituztela. "Ikusi dugu bidegorria tarte batzuetan oso ondo dagoela, bai korrika egiteko eta baita patinetan ibiltzeko ere, eta, segurtasun kontuak direla eta, bidegorria erabiltzeko aukera polita zela pentsatu genuen", esan zuten aurkezpenean.

Gainera, Foru Aldundiko teknikariek bidegorria garbitu dute asteon. "Patinatzaileendako ahalik eta egokien egoteko, garbitzeko eskaera egin genuen Aldundian eta onartu egin dute", esan digute antolatzaileek.

Hainbat sari

Patinatzaileen lasterketa 17:00etan abiatuko da Biteritik, eta korrikalariak bost minutu geroago irtengo dira Portaloitik. Sarietara dagokienez, lehenengo hiru gizonetako eta emakumezko azkarrenak saritzeaz gain, lehenengo arrasatearrak eta oñatiarrak ere eroango dute saria; baita lehen neska eta mutil patinatzaileak ere.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Dragoiko gimnastek Espainiako aerobik kopan parte hartuko dute

M.B. | ARRASATE

Domekan, urriaren 13an, jokatuko dute Madrilgo Casa de Campon Espainiako gimnasia aerobikeko kopa, Arnold Classic Europe ekitaldiaren barruan. Han elkartuko dira Espainiako gimnastarik onenak; tartean, Arrasate Dragoi gimnasia taldeko ordezkariak. Taldekako eta banakako modalitateetan parte hartuko dute arrasatearrek; denak, N3 kategorian.

Sei arrasatear

Taldekako modalitatean lehiatuko dira Olatz Fernandez, Jone Goikolea, Leire Gonzalez, Lei-

re Poyato eta Saioa Arriola; eta bakarka parte hartuko du Nerea Otxoak.

Disfrutatzea eta ikastera

Dragoi taldeko ordezkariak lehen aldiz parte hartuko dute Espainiako kopan, eta ikasteko asmoz doaz Madrilera. "Espainiako txapelketan parte hartu genuen maiatzean, eta koparako gonbidapena lortu genuen. Gure asmoa da disfrutatzea, ikasi eta ondo pasatzea. Ez goaz emaitzen bila, baina, zerbait lortzen badugu, ongiatortria izango da", esan digu gimnasia erritmiko taldeko Edurne Elkorok.



Iker Elortza arrasatearra, AMPO Ordizia taldearen elastikoarekin. | GOIENA

ERRUGBIA

Iker Elortzak etxeko errugbi taldearekin jokatuko du

Ordizian jokatuko ostean, ARTko kide izango da, Igor Isasiren aginduetara

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Zorioneko daude Arrasate errugbi taldekoak. Denboraldi berrirako fitxaketa ona egin dute: hainbat urtean Ordizian jokatuko ostean, Iker Elortzak kamiseta zuri-morea defendatuko du datorren aste bukaeran hasiko den liga txapelketan. Duela hamar urte utzi zuen etxeko taldea, eta berriro itzuli da.

Ordiziako taldearekin jokatuko ditu azken denboraldiak, eta han lortu ditu orain arteko emaitzarik onenak: Ohorezko A mailako ligan txapelketa eta Errege Kopako txapelketa (El Salvador taldea menderatu zuen Ordiziak, Palentziako La Balastera estadioan) izan da. Hegalean jokatzen du Elortzak, eta urte hauetan guztietan goi mailako errugbian eta Zeelanda Berrian ikasitakoa

Arrasate errugbi taldeko gazteei erakusteko asmoarekin datorrela esan du. Azken urtean gelditu egon da, eta berriro jokatzen hasteko erabakia hartu du.

Pozarren hartu dute arrasatearrek Elortzaren erabakia. "Ez da fitxaketa, ez duelako ezer kobratuko [Barre], baina laguntza handia emango digu. Duda barik. Esperientzia handia du, eta asko ikasiko dugu", esan digu Igor Isasi entrenatzaileak.

"Sufritu egingo dugu"

Iker Elortzarekin batera beste hiru aurpegi berri izango ditu goi mailako errugbi taldeak: Bergarako, Oñatiko eta Ollauriko jokalariek dira. Azken hori Mondragon Unibertsitateko ikaslea da. Guztiek jardungo dute Igor Isasiren aginduetara.

Dagoeneko hasi dira liga txapelketa prestatzen. Oraingoan, 20 jokalarik hasi dituzten entrenamenduak Mojategin. Tartean, Iker Elortzak. ARTrendako erreformatu handia da Elortza, kontuan hartuta bost jokalariren baja izan duela taldeak. "Aurten ere sufritu egin beharko dugu. 25 fitxa egiteko aukera daukagu eta ez gara kopuru horretara iristen. Denboraldia urriaren 19an hasiko dugu eta partiduz partidu joango gara", dio Isasik.

Zuzendaritza batzordeko kideek dei egiten diete errugbian jokatuko gura duten gaztetxoei. "Punta-puntako instalazioa daukagu Mojategin. Hortaz, kirol hau ezagutu gura dutenei dei egiten diegu. Mojategira etor daitezela, eta ikusiko dute nola kirola den", esan dute.

IX. Intxintxika LASTERKETA
 (PLAENTXI - BERGARA)
 2 SERVICIOS 10km. ARRILKUTZ
SARI NAGUSIA
 Karku
 GOKI
 HEGALAK
 ZABALA
 SERVICIOS
 SERVICIOS
 EZEN EMATZAN: www.kirolprobak.com
 * lasterlari eta eguneko askeko da izena eman.
 SERVICIOS SERVICIOS
 metagra k INSALUS
 IDUBI Embulan 3 goiena GAES
 EKOENKIA

SALTOAK

Alex Txikonek Maringo zubitik salto egin zuen

Alex Txikon lemoarra Eskoriatzan egon zen martitzenean. ETBrako muturreko kirolen gaineko hainbat saio grabatzen dihardu, eta gurean paraxut saltoa egin zuen Eskoriatzako Maringo zubitik (90 metro). Autobidetik salto egin zuen, beste bi lagunekin. Zazpi segundoko saltoa egin zuten hirurek.



MIREIA BIKUÑA

FUTBOLA

Bergarak eta Aretxabaletak, derbia zapatuan

X.U. | ARRASATE

Ligako bosgarren jardunaldiak Bergararen eta Aretxabaletaren arteko derbia ekarriko du (zapatua, 16:30, Agorrosin). Bietako inork ez du denboraldia nahi moduan hasi, baina Aretxabaleta jaitziera postuetan dago orain momentuan, eta Ibarra aldean ez daude horretara ohituta.

Antzuolak, ostera etxean

Joan den asteko garaipenak animatuta, antzuolarrak ligako bigarren garaipenaren bila zelairatuko dira zapatuan. Gainera, etxean jokatuko dute berriro, Estalan (16:30). Eta Aloña Mendik etxetik kanpora jokatuko du, Ostadarren zelaian -Lasarten- zapatu eguerdian.

Erregional preferentean, azkenik, Mondrak Ordiziaren zelaian jokatuko du zapatuan (16:30).

Mondrako neskek etxean

Joan den asteko jipoitik (8-0) lehenbailehen errekuiperatze-ko aukera aparta izango dute Mondrako neskek domekan (15:30). Lagunak izango dute kontrario, eurekin batera liga hala-moduz hasi duen taldea. Irabazi beharreko lehia da.



Mendizabalek ondo ezagutzen du Bergarako pilotalekua. | GOIENA

PILOTA

Lau t'erdikorako azken geltokia gaur Bergaran

X.U. | ARRASATE

Aitor Mendizabalek Bergaran izango du gaur, egubakoitza, Lau t'erdiko Txapelketan jokatze txartela (22:00. ETB1). Torneo horretan egoteko aurre-kanporaketan izango zela azken orduan abisatu ostean, domekan Aritz Lasa mendean hartzeko gauza izan zen antzuolarra, Astelena pilotalekuan partidu oso txukuna jokatuta (22-14).

Eta gaur Ezkurdia izango du aurrez aurre: "Aritz Lasa oso kontrario gogorra zen, eta Ezkurdia gainean beste horrenbeste. Ez da batere erraza izango", azaldu zuen Antzuolakoak par-

tidua amaitu eta berehala.

Enpresak txapelketan egoteko aukera eman diolako pozik, astea gaurko hitzordua prestatzen eman du Mendizabal III.ak.

Iaz, final-hamaseirenetan

Gaurko partiduan Ezkurdia mendean hartzen badu, Mendizabal bigarrenez egongo litzateke lau t'erdiko txapelketan, iaz egin zuen-eta torneo horretan debuta. Bigarren mailakoa irabazi izanak eman zion lehenengorako txartela, baina gutxi gozatu ahal izan zuen, final-hamaseirenetan Iker Arretxeren kontra galdu egin zuen-eta, 22-13.

MENDIKO BIZIKLETA

Iban Altuberen oroimenezkoa egingo dute domekan Oñatin

X.U. | ARRASATE

Domekan, mendiko bizikleta-zaleek Oñatin dute hitzordua, Iban Altuberen omenez III. bizikleta irteera egingo dute-eta (09:00etan, plazan).

Antolatzaileek ibilbide jostagarria prestatu dute, tarte batzuetan teknikoki aparteko zailtasunik ez duena eta beste batzuetan dibertigarriagoa. Gogortasunean ere neurritz ibili dira: ibilbide luzeak 36 kilometro izango ditu (1.300 metroko desnibel metatua) eta motzak, 30 kilometro. Hala, jatekoak eta edatekoak 16. kilometroan jarriko dituzte. Egunean bertan eman ahal izango da izena (federatuek 10 euro ordainduta eta federatuta ez daudenek, 15 euro).

Kontuan izan behar da, baina, mendiko bizikleta martxa hasi baino minutu batzuk lehenago antolatzaileek Iban Altube zenari omenaldia egingo diotela.

Gaztetxoak Markel Irizarrekin

Bestetik, profesional mailako txirrindularitza denboraldia amaituta, gaztetxoek Markel Irizarren laguntza izango dute herrian zehar egingo duten bizikleta txangoan. Izan ere, hori izango da Altuberen omenaldiko bigarren hitzordua.

10:30ean irtengo dira gaztetxoak plazatik eta herriko kaleetan zehar bost kilometroko ibilbidea egingo dute, kaskoa jantzita guztiek ere.



Iazko martxako irteera baino minutu batzuk lehenago. | GOIENA



Azken etxebizitzak!!

Etxe tasatuak baina merkeago!!!

ORTUZAL PROMOCIONES S.L

943 76 11 18

943 79 40 00

619 71 82 78

ARETXABALETA

AUKERA EZIN HOBEA

ETXEBIZITZAK:

2 logela

2 bainugela

Sukalde hornitua

Ganbara bikaina

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO

160.000€

(BEZa ez dago barne)

KULTURA

Kameren objektibotik begira

Ilunpetan argazki taldearen eskutik askotariko argazki ekimenak ARG Festibalean

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Argazki erakusketak, tailerrak, proiektzioak eta beste hainbat ekimen batuko ditu Oñatiko Ilunpetan argazki taldeak gaur, egubakoitza, abiaraziko duen ARG! Festibalak.

Hamabost egun iraungo du eta Arantzazuko Gandiaga Topagunean irekiko dute gaur, *Ixil Ar* erakusketarekin. Arantzazurako espresuki sortu duten bilduma arratsaldeko seietan inauguratuko dute eta han izango dira, besteak beste, Jon Cazenave, Alejandro Marote eta Gonzalo Romero. Luncha prestatuko dutela iragarri dute.

Orain arteko formatua apurtuz
Orain zazpi urte sortu zuten Ilunpetan taldeak, herriko beste hainbat kultura elkarte moduan, Udalaren dirulaguntza jasotzearen truke, urtean pare bat ekin-tza antolatzeko konpromisoa duela kontatu du Itziar Baztarrিকা taldeko kideak, eta horrela egin dituztela hainbat ikastaro eta baita askotariko erakusketak ere. Baina azken bi-hiru urteetan erakusketetara hurbildu den jende kopuruak behera egin duela -eta, taldean hausnarketa egin eta beste leku batzuetan egiten dituzten jaialdi eta argazki erakusketak aintzat hartuta, argazkigintzarekin lotutako lanak erakusteko modu klasikoa apurtu eta beste formatu batzuekin esperimentatu gura izan dutela dio Baztarrिका, zaleak erakusketara aretoetara joatera behartu beharrean, argazkiak jendea dagoen tokietara ateratzea erabakita: "Modu masiboan egin dugu, ez gara erakusketak edo tailer bakarrik antolatzearekin konformatu. Formatuaz gain, planteamendua ere hautsi gura izan dugu, eta, *shock-terapia* moduan, *cocktail* potente bat prestatu dugu".

Publiko guztiari zuzendutako egitaraua osatu dute: haurrentzako, helduentzako, zaleentzako eta profesionalentzako ere bai.

Euskaldunak dira ARG Festibalean izango diren artista gehienak: Zalao Fuertes abadiñoarra da; Legazpikoa, berriz, Gorka Salmeron; Luis Arellano, Iruñekoa; eta Donostiakoa Jon Cazenave. Horiez gainera, Madrildik datoz Cazenavek Gandiaga Topagunean lagun izango dituen Alejandro Marote eta Gonzalo Romero. Ilunpetan taldeko kideek ere erakutsiko dituzte eurenak.



ETEO eraikinean egongo den argazki hori da festibalaren irudia. | ZALAO FUERTES

Tailerretarako izen-ematea

ARG Festibala antolatzen hasi zirenean, batera eta bestera mugituta, askotariko ateak jo zituztela gaineratu du Baztarrिका: "Ideia asko genituen, batzuk aurrera eramane ditugu eta beste batzuk, berriz, beste baterako gordeta geratu dira".

Aurrera egin dutenen artean daude helduentzako eta haurrentzako askotariko tailerrak: bi eguneko iraupena izango duten erretratuei eta bidaia argazkiei buruzko tailer bana helduentzat, eta argiarekin margotuz eta jolas-tuz, 6 urtetik gorakoentzako egun bakarrean egingo dutena. Azken horretan doan eta aurrez izena eman barik parte hartzeko bidea badago ere, 60 euro ordaindu behar dira helduei zuzendutako bietan; plaza mugatuak dituzte, eta, horietan parte hartzeko, *ilunpetan@gmail.com* helbidean eman behar da izena.

Elkar ezagutzeko helburua

Argazkizaleen topaleku bihurtuko dituzte, bada, herriko askotariko txokoak azaroaren 3ra bitartean. Ilunpetan argazki taldekoek, baina, profesionalen lanak ikusi eta entzun baino haratago eramane gura dute jaialdiaren helburua; horregatik lotu dituzte bestelako ekimenak: zinekluba, *Photo kafe* proiektzioak eta *Photobook Club Donostia* argazki liburuzaleen bilkura.

'Ixil Ar': lurraren eta zeruaren arteko elkarrizketa isila

Hiru sortzailek elkarrekin osatutakoa da Arantzazuko Gandiaga Topagunean gaurtik aurrera ikusgai dagoen *Ixil Ar* bilduma. Jon Cazenave donostiarrak eta Madrilgo Alejandro Marotek ateratakoak dira, Gonzalo Romero komisarioaren ezinbesteko gainbegiratuarekin.

Arantzazuri (tokiari) omenaldia egiteko asmoz aukeratu dituzte lurrarekin eta zeruarekin edo haizearekin lotutako 12 irudiak. Elkar ondo ezagutzen duten bi artiston objektiboek jasotakoaren arteko elkarrizketa estetikoak da erakusketaren muina: ilunak eta lurrari buruzkoak dira Cazenaverenak; eta irekiak eta argiakoak, berriz, Maroterenak.



Cazenave, Romero eta Marote, Arantzazun. | ITZIAR BAZTARRIKA

Ez dira argazki berriak, baina bai orain arte erakutsi gabekoak; are gutxiago, Gandiagan izango duten tamaina handian. Egileek diote aurrerapauso handia eman dutela bilduma horrekin.

Ixil Ar izenburua, ostera, jolas linguistikoko baten ondorioa da, Jon Cazenavek Jorge Oteitzaren omenez sortu duena: "Isiltasunaren espazio hutsa da; irudian botere handia duena".

EGITARAUA

ERAKUSKETAK

IXIL AR

Urriaren 11tik azaroaren 3ra. Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan. 11:00-18:00.

Jon Cazenaveren eta Alejandro Marotoren argazkien elkarrizketa, Gonzalo Romero komisariatuak.

AZALA

Urriaren 17tik 27ra. Eteo eraikinean.
Zalao Fuertes bildumak gure itxura osatzen duten geruzen erantzaz hitz egiten du.

ISPILUAK

Urriaren 17tik 27ra. Sancti Spiritus Unibertsitatean. Zapatuetan eta domeketan. 11:00-14:00 eta 16:00-18:00.

Ilunpetan argazki taldeko Asier Egañaren eta Txarli Markezzen bilduma, Oñatiko Udala Artxiboko hainbat argazkirekin osatutakoa.

ARGIZAIOLA (2012)

Urriaren 17tik 27ra. Txandako dendetako erakusleihoetan.

Euskal Herriko Argazkilarien Federakuntzak antolatzen duen *Argizaiola* lehiaketara aurkeztutako lanen bilduma.

ESTADOS ALTERADOS

Urriaren 25etik 27ra. Antxenako gaztetxean.

Luis Arellanok 1994 eta 1998. urte bitartean Londresko Acid Techno, Drum & Bass eta House *rave*-etan (jaialdi alternatiboetan) ateratakoen bilduma.

TAILERRAK

'ERRETRATUAK, ZENBAIT ERREFLEXIO ARGAZKIGINTZAREN INGURUAN'

Urriaren 19an eta 20an. Bidebarrietan, Laixan elkartearen bulego oihan.

Gorka Salmeronen eskutik, erretratuek ardatz hartutako tailer monografikoa.

'FOTOGRAFÍA DE UN VIAJE'

Urriaren 26an eta 27an. Bidebarrietan, Laixan elkartearen bulego oihan.

Luis Arellanoren eskutik, bidaia argazkilaritzaz tailer monografikoa.

'LIGHTPAINTING'

Urriaren 25ean. Gaztelekuetan. 17:00-19:30.

Asier Egañaren eskutik, gaztetxoendako tailerra (6 urtetik aurrera).

BESTELAKOAK

'PHOTOBOOK CLUB SAN SEBASTIAN'

Urriaren 26an. Gandiagan. 11:00etan.

Gipuzkoako argazki liburuzaleen bilkuran, partaide bakoitzak argazki liburu bana eramango du besteekin elkarbanatzeko.

'PHOTO KAFE (PROIEKTZIOAK)'

Urriaren 27an. Gaztelekuetan. 18:00etan.

BlankPaper argazki eskolako eta Txileko argazki kolektiboko kideen argazkiekin osatutako ikus-entzunezkoaren proiektzioa.

ZINEKLUBA

Urriaren 24an. Kultura etxean. 20:00.

La maleta mexicana filmaren proiektzioa.

Amaia antzokia

Urria-Abendua 2013

Egitaraua

Urria

| | | |
|----|---------------------------------|----------------|
| 06 | Terapias | Antzerkia |
| 12 | Sutondoan | Haur antzerkia |
| 19 | El sueño de una noche de verano | Dantza |
| 26 | J.C. Brooks & The Uptown Sound | Musika |
| 30 | La Traviata | Opera |

Azaroa

| | | |
|----------------|-----------------------|----------------|
| 02 | Hansel eta Gretel | Haur antzerkia |
| 10 | Hitzak | Antzerkia |
| 16 | Eñaut Elorrieta | Musika |
| 23, 24, 29, 30 | La Taberna del puerto | Zartzueta |

Abendua

| | | |
|-----------|--------------------------------|--------|
| 5etik-8ra | Nazioarteko akordeoi lehiaketa | Musika |
| 14 | Komunikazio - Inkomunikazioa | Dantza |
| 23 | Georgia Mass Choir | Gospel |
| 31 | Arrasate Musikaleko Banda | Musika |

**Aldez aurretiko
Sarrera salmenta:**

www.arrasate-mondragon.org

Azaroaren 15era arte helduen ikuskizunek
%10eko deskontua dute eta hurrak euro batekoa,
webgunetik erosiz gero.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko atarian, bi oñatiar

Jerardo Elortzak eta Jose Antonio Azpiatzuk Oñatiko gaietan oinarritutako hitzaldi bana egingo dute bihar, zapatua, elkarteko kide izateko asmoarekin

A. A. / I. G. | OÑATI

Jose Antonio Azpiatzu eta Jerardo Elortza oñatiarrak Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide egingo dituzte; bazkide izateko baldintzak dira: ikerketa bat egitea, lehenik, eta ondoren, hori jendaurrean aurkeztea. Bihar, zapatua, egingo dute Elortzak eta Azpiatzuk hitzaldi bana Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko areto nagusian, 11:00etan.

Juan Bautista Mendizabal elkarteko Gipuzkoako lehendakariak emango dio ekitaldiari hasiera. Amaieran, berriz, Amaia Azpiatzuk elkarteko sortzaile izan zen Munibek idatzitako kantuak abestuko ditu, Xabier Ugartek gitarraz lagunduta.

Oñatiko gaiez

Azpiatzuk garai bateko bizimoduak ikertu ditu eta Oñatiko Sancti Spirit Unibertsitatearen inguruan jardungo du. Egoitzaren gaineko ikerketa gutxi egin direla dio. Azpiatzuk berak aztertuta ditu Oñatiko artxiboan dauden doku-

mentuak (hain zuzen ere, bildumako agiri garrantzitsuenak eta zaharrenak dira). Valladoliden, baina, artxiboaren beste zati bat dago, egoitza itxi zutenean eraman zutena. Horregatik, bada, aurkezpena urteetan eginiko lana azaltzeko aprobetxatuko duela gaineratu du Azpiatzuk.

Jerardo Elortzak, ostera, orain arte jarraitu duen ildotik egingo du hitzaldia. 1805 inguruan idatzitako bi libururen gainean egingo du berba, Oñatiko Arrazola Azpiko baserrian, Olabarrieta auzoan, aurkitutako dokumentazioetan oinarrituz. Orduko garaiko bizimoduari buruzko idatziak dituzten Eliza liburuak dira; besteak beste, txokolateari buruz bitxikeria oso interesgarriak daudela dio. Liburuek balio etnografiko eta filologiko handia dutela gaineratu du Elortzak, eta Oñatiko euskalkia aztertzeke dokumentu aberatsak direla gaineratu. Batetik eta bestetik eskatzen zioten eginiko lan hori; horregatik, bada, hitzaldiaren

aukera aprobetxatuko du zuen guztia batu eta argitaratzeko. Sarean jarriko dute edonoren eskura; horrez gainera, elkartearen buletinean edo aldizkarian ere argitaratuko dute.

Lanean jarraitzeko aitzakia

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide izatea lanean jarraitzeko aitzakia bat dela diote biek ala biek eta esku artean dituzten hainbat gauza argitaratzeko bidea ere emango diela; izan ere, eginiko lanak elkartearen buletinean argitaratzen dira. Azpiatzuk dagoneko jaso du elkartetik urte amaierarako lehen lana egiteko proposamena.

Elkartearen funtzioa

XVIII. mendearen bigarren erdialdean sortu zen Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea, ideia trukaketerako helburuarekin. Gure historia, kultura eta euskara ikertu eta bultzatzeko helburu duen elkartek 250 urte beteko ditu datorren urtean.



Iñaki Mayor, Kulturateko klaustroetan, martitzenean. | MIREIA BIKUÑA

Iñaki Mayor | Aktorea

"Haurrentzako sortua bada ere, helduek ere oso ondo hartu dute"

Itzalak, txotxongiloak eta aktoreak, euskal mitologia oinarri duen 'Sutondoan' lanean

A. A. / M. B. | ARRASATE

Bilboko A-Teatral antzerki taldeak *Sutondoan* lana egingo du, bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan. Taula gainean, besteak beste, Iñaki Mayor Arrasateko aktorea izango da. Harekin izan gara jaioterrian erakutsiko duten lanaren eta aktore moduan duen ibilbidearen gainean berbetan.

Zer da *Sutondoan*?

3 eta 9 urte bitarteko haurrentzako antzerkia da. Diziplina asko nahasten dituen lana da: batez ere, itzalen bitartez egingakoa, ezberdina eta erakargarria; baina hezur-haragizko aktoreak ere badaude, eta baita txotxongiloak ere. Muntaiak borobila atera zaigu.

Haurrentzako pentsatua bada, bizia behar du izan.

Oso koloretsua da. Musikak ere pisu handia du antzezlan horretan; abestu ere egiten dugu.

Zer kontatzen du istorioak?

Euskal mitologiari buruzko ikuskizuna da. Abiapuntua zera da: gaua heldu orduko, amona bat ipuin bat kontatzen hasiko da. Kontakizunean zehar, ipuin horietako pertsonaiak itzalean agertzen joango dira: ama lurra, erraldoiak, sorginak, laminak, galtzagorriak, marinelak... denetik ikusiko duzue.

Haurrentzako ikuskizun moduan estreinatu zenuten, baina helduek ere ondo hartu dute.

Horrela da, bai; hasieran, haurrentzako antzerki moduan prestatu genuen, eta horrela estreinatu, baina gero, ikusi dugu helduen artean ere harre- ra ona izan duela; beraz, orain, adin guztietarako aproposa dela esan daiteke.

Taula gainean ikusiko zaitugu, beste bi aktoreekin batera.

Maria Ramirez eta Maria Guimarey eta hirurok gaude, nolabait esanda, ikusleen begietan. Aipagarria da, baina, ikusten

ez badugu ere, Patricia Francoren ahotsa ere entzungo dugula; harena da-eta amonaren ahotsa.

Iñaki, zer dela-eta, baina, aktore lanetan?

Lan kontuak zirela-eta, Bilbora joan nintzen orain urte batzuk. Han, antzerki eskola batean eman nuen izena; egia esan, ez dakit zergatik, zerbait izango nuen barruan, batek daki! Kontua da gustatu egin zitzaidala, eta Arte Dramatikoa ikasketak egin nituen gero. Gero eta gustukoagoa nuenez, post-graduatua egin nuen azkenik. Eta handik aurrera bizimodua aldatu nuen; aurreko lana utzi egin nuen eta harrezkero, aktore lanetan nabil. Antzerkiak gainera, zineman ere egin ditut lantxo batzuk.

A-Teatral antzerki taldeko kide zara; zelako taldea da?

A-Teatral ikerketa-gune bat dela esango nuke, proposamen berriak garatu eta antzerki lengoiaren mugak esploratzen saiatzen dena. Hamar antzerkigilek osatzen dugu, askotariko formazio eta ibilbideetakoak. Areto barruko antzerkia egiten dugu, baina kalean ere bai.

Kuriositatez, zein zen zure lehen-go ogibidea?

[Barre]. Diseinu teknikoarekin erlazioatutako lanak egin nituen eta zortzi urte egin nituen hainbat lantegitan lanean; azkeneko lauretan, antzerkiarekin bateratu nituen. Orain lau urte konturatu nintzen ez zela nik nahi nuen bizimodua; orain, berriz, oso gustura nabil.

"Ogibidez aldatu nuen, antzerki eskolan harra sartu zitzaidan-eta"



Jerardo Elortza eta Jose Antonio Azpiatzu, biharko aurkezpena egingo duten Oñatiko unibertsitatean. | IRATI GOTIA

Umorezko bina bakarrizketa izango dira egubakoitzetan gaztetxean

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Kar-kartzelan jaialdia egingo dute Bergarako gaztetxean, gaur hasita, urriko egubakoitzetan. Emanaldi guztiak 22:30ean izango dira; sarrerak, 3 eurotan. Txapa Irratian zuzenean emango dituzte saio guztiak, eta bi dira entzuteko bideak: *Txapairratia.org* helbidean eta FMko 92.4an.

Egubakoitzero, bina saio

Antolatzaileek diote barrea hortzak erakusteko beste modu bat dela, eta, horregatik, bada, umorez helarazitako mezuei leku egin diete, ibarreko zein inguruko hainbat artistari gonbidapena eginda. Aitor Navarrok eta Ene-ritz Artetxek zabalduko dute egitaraua.

Egiatik dator Navarro eta eskarmentua du umorea egiten; antzerkia eta zinea ditu pasio. Artetxe gernikarra, berriz, antzerkigintzan, telebistan eta zineman lan egindakoa da. Dramatismoan eroso badabil ere, umorearen erregistroan ere aske sentitzen dela diote gaztetxetik.

Datorren egubakoitzean, Antiguoko Txiki eta Jon Plazaola urretxuarrak izango dira. Arrasateko Xusti Sermoiak eta *Alopecia en la lengua* Urretxuko bikoteak itxiko dute jaialdia.

Espaloia kafe antzokiak gertu du abendura arteko programazioa

Anthony Blake-ren eta Ruper Ordorikaren emanaldiak izango dira, besteak beste

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Espaloia kafe antzokian ekin diote denboraldi berriari. Ugari dira urteko azken hiruhilekorako antolatutako emanaldiak eta askotarikoa izango da eskaintza: musika, antzerkia, magia eta bertsoak.

Eskaintza oparoa

Urriaren 19an, kontzertua egingo dute Smooth Beans eta Kaleko Urdangak taldeek. Haien ostean, DJ festa izango da Naken, Sir Gorka eta Rudy DJekin. Hileko azken egubakoitzean, berriz, Yllana taldeak *Far West* antzezlanarekin egingo du. Dagoeneko salgai dardarrek 15 eurotan; bazkideentzako, 12 eurotan.

Azaroan, Eibarko Medianoche eta Voces y Cuerdas taldeek kontzertua egingo dute; azaroaren 2an eta 9an, hurrenez hurren. Eta Elgetan, dagoeneko klasiko den Anthony Blake mago ospe-tsua ikuskizun berria ekarriko du azaroko hirugarren aste bukarran. Hain zuzen ere, *Mas allá de la imaginación* du izena haren emanaldiak. Bi egingo ditu Elgetan: bata, azaroaren 16an, 22:30ean; eta bestea, azaroaren 17an, 19:00etan. Bestalde, azaroaren 27an, *Badira bagara* ikus-entzunezko eskainiko dute. Tuterako ikastolek eginikoa da eta Erriberan euskararen egoera zein den erakusten du. 19:00etan izango da, Espaloian.

Abenduan, berriz, *Gabrielen lekua* ikuskizuna egingo dute Andoni Egañak, Rafa Ruedak,

Oier Guillanek eta Alain Urrutiak. Abenduaren 13an izango da, 22:30ean.

Urteari amaiera emateko, abenduaren 21ean, Despertar los Sentidos taldekoek *Abre los ojos* dantza ikuskizuna eskainiko dute;

down sindromea duten neska-mutilek osatzen dute taldea. Abenduaren 29an, Ruper Ordorika abeslari oñatiarrak *Azukre koxkorak* azken diskoa aurkeztuko du. Aurretik, Igor Arzuagak egingo du emanaldia.



Smooth Beans taldeak kontzertua eskainiko du hilaren 19an. | SMOOTH BEANS



Batera eta eskaintza osatuagoarekin egoteko aukera ematen du 'Baserrisarea.com' atariak

Baserritarren edo baserriko produktuen gaineko denda birtual honek, saltzeko aukera indartzeaz gainera, batasuna eskaintzen die ekoizleei euren jardunerako.

Kontserbagintzan dihardu Leintz Gatzagako Jakion SL enpresak. Baina ez du lantzen edozein kontserba mota, baizik eta, gure ibarreko baserrietako nekazaritza jarduera berreskuratu, bultzatu eta indartzeko sortutakoa izanda, (1997ko uztailean) ezaugarri bereziak dituen enpresa da.

Zela bideratzen duzue zeregina nekazariei laguntzeko?

Batetik, euren fruta eta barazkiak guk erosi eta merkaturatzen, Jakion markaren barruan. Bestetik, baserritarrei eraldatze zerbitzua eskaintzen. Azken horren kasuan, kontserbak egiten ditugu baserritarrendako, eta bi modutara etiketatzen dira: Euskalbaserri produktua bada (baserritarrak alta emanda egon behar du Label edo Euskalbaserri zerrendan), izen horrekin merkaturatzen da. Produktua ez bada Euskalbaserri, berriz, nork bere baserriaren izenarekin edo baserritarrek eurek gura dituzten ezaugarriekin egiten dira etiketak. Azken bikas horietan, baserritarrak eurak arduratzen dira produktuak merkaturatzeaz.



“ Gure produktuak osagarriak dira eta *Baserrisarea.com*-i esker eskaintza hobetu eta zabaldu egiten dugu; gure arteko elkarlanerako eta elkar ezagutzeko ere balio du ”

Beste ezaugarrietako bat da produktuen naturaltasuna...

Bai. Ez dugu kontserbagaririk erabiltzen. Bertako produktuak kalitatezko moduan ikusten ditugu, eta ikusten dugu bertakoek eta baserritarrek ere asko zaintzen dituztela ekoizpen aldetik lehengaiak, eta ez gure gura kontserbagaririk erabili. Ahalik eta naturalen egitea zen helburua. Ez genekien hori ezta posible zenik ere, merkaturatu ez gure ezaugarri horietako produkturik ezagutzen, baina laborategian egindako

probetan esan ziguten kontserbatzaile moduan limoi-ura erabilita posible zela. Hala, berduren kontserbetarako gazta eta limoi-ura bakarrik erabiltzen ditugu eta marmeladetarako, azukrea eta limoi-ura. Produktuari lau urteko iraungitze data ematen diogu, eta ez dugu inolako arazorik izan.

Zuen bidean zertan laguntzen dizue *Baserrisarea.com*-ek?

Web bidezko aukera guztiek ezaugarri emateko balio dute, gehienbat. Jende gehienak, informazio

bila joaterakoan, webgunea erabiltzen du. Guri, berriz, aukera ematen digu denda birtual batean gure produktuak batera egoteko; bestela, nork bere denda sortu behar luke, eta aukera hobe da denok batera egotea leku bakarrean, produktu gehiagorekin... Produktuak osagarriak dira bata bestearekin, eta eskaintza hobetu eta zabaldu egiten dugu. Elkarlana bultzatzeko modu bat ere bada, azken batean. Eta baita elkar ezagutzeko ere, ibarreko beste proiektu batzuk, zela diharduten...

Hipo eta Tomax 'Mendizaleak' ikuskizunarekin domekan Arkupen

IRATI GOITIA | ARETXABAETA

Hipo eta Tomax pailazoen *Mendizaleak* izeneko ikuskizuna eskainiko dute hilaren 13an, domekan, Aretxabaletako Arkupe kultur etxean. Arratsaldeko bostetan izango da eta sarrera hiru euro da. Hain zuzen ere, 4 urtetik gorako umeentzako ikuskizuna da.

Hipo eta Tomaxen azken lana da. Abentura berri horretan, mendira joango dira Tomax aguzila eta Hipotolomeo garbitzailea. Tontorrera iritsi baino lehen, perretxiko batzuk bilduko dituzte eta patata-tortilla ogitartekoa jan. Horretaz gain, asko izango dira mendian bizi izango dituzten ezustekoak. Abentura dibertigarria da; izan ere, pailazoen istorioetan murgildu eta haiekin batera kantuan aritzeko aukera izango dute haurrek.

:: Gure ekoizleen produktuak baserrietik etxera
 :: Landa bizitza eta ondare historikoa
 :: Gure interesgarriak eta ibilbide naturalak
 :: ...eta askoz gehiago!



Asierrek ateratako eta berari ateratako argazkiak. Eskuman, Asier, argazki-kamerarekin.



Asier Some | Ikaslea eta argazkilaria



ARGAZKIAK: ASIER SOME / IMANOL SORIANO (ARGAZKI BIRIBILA)

"Internet bidez automobilismo munduko jende asko ezagutu dut, promozio-bide oso ona da"

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA
 Asier Some (Eskoriatza, 1997) Lanbide Eskolan ari da Mekanizazio ikasketak egiten. Autoak eta argazkilaritza dira haren zaletasun handienak eta biak batzen ditu. Askotariko lasterketara joatea atsegin du eta bertan autoei argazkiak ateratzen dizkie. Hortik dator kio argazkilaritza zaletasuna. Ez da auto lasterketan bakarrik argazkiak ateratzen ibiltzen, beste lasterketa mota batzuk ere atsegin ditu, baina benetan atsegin duena abiadura da.
Nolatan hasi zinen argazkiak ateratzen?
 Aitak duen kamera txiki batekin hasi nintzen argazkiak ateratzen. Auto lasterketara joaten nintzen eta bertan ateratako argazkiak

oroigarri bezala gordetzen nituen. Orditik aurrera, zaletasun bilakatu eta nire ekipoa erosi nuen, Canon 1100D bat. Orditik hona, hainbat lasterketara joan naiz argazkiak ateratzera: rallyetara, zirkuituetara... Argazkiak ateratzen horrela hasi nintzen, baina nire argazkiekin dirua irabazten nire lagun Andoni Motoren DJ saioetan hasi nintzen. Mesede gisa eskatu zidan argazkiak ateratzeko, eta, argazkien trukean, festa antolatzen zuen tokiko jabeak diru pixka bat ematen zidan. Eta, handik aurrera, beste hainbat festatan ere ibili izan naiz.
Zure argazkiak promozionatzeko, erabiltzen duzu webgunerik?
 Bai; hasiera batean, Facebookera igotzen nituen argazkiak;

lagunei erakusteko, bereziki. Baina aurrerago, Flickr kontu bat, blog bat eta *Octane shots automotive photography* webgunea sortu nituen. Argazki gehienak webgunera igotzen ditut. Internet bidez, automobilismo munduko jende asko ezagutu dut; izan ere, promozio-bide oso ona dela uste dut.
Auto lasterketan zein modalitate duzu gustukoena?
 Rallyak, batez ere. Racing-zalea naiz. Auto erakusketek ez didate atentziorik ematen, neoiak dituzten autoak... ez ditut gogoko. Abiadura handiko lasterketak ditut gustukoena.
Asko bidaiatzen duzu lasterketara joateko?
 Batez ere, Euskal Herriko lasterketara joaten naiz, baina kan-

pora ere joaten naiz, ahal badut. Bartzelonan dagoen *drifting* txapelketa batera joan nahi dut hurrengo, baina ea lagun bat animatzen den eta joateko aukera dudan.
Non aterako zenituzke argazkiak gustura?
Gatebil drift-en. Eskandinavian egiten den txapelketa bat da. Hemengo autoek baino askoz potentzia handiagoa daukate hangoek. Hara joateko gogo izugarri nago, baina uste dut askoz aurrerago izan beharko duela.
Gurako zenuke etorkizunean argazkilaria izan?
 Bai, gurako nuke. Lan eskaintza finkorik ez dut izan, baina webguneke publikitateak asko zabaldu dit bidea. Nafarroako zirkuituan pistetara sartzeko akreditazioa lortuta saldu izan ditut argazkiak, 5 euro argazkiko. Gainera, Monster Energy taldeko bi pilotu ezagutzen ditut eta nire

markaren pegatinak daramatzate euren autoetan. Duela gutxi, beraien taldeko ordezkariak deitu zidan argazki batzuen eskean eta beraien webgunean argitaratuko dituztela esan zidan. Hasieran, ez nuen sinetsi, adarra jotzen ari zirela uste nuen.
Bestelako eskaerarik jaso duzu, auto lasterketarako autoen argazkiez gain?
 Behin, boda bateko argazki erreportaje bat egin nuen. Disko bat egitea eskatu zidaten; hain zuzen, argazki bildumak eta musikaz osatutako bideo bat egin nitzkien. Ezkondu zirenak oso pozik geratu ziren emaitzarekin.
Adingabea izanda ezin duzu gidatu, oraingoz; gidabaimena ateratzeko gogo biziz egongo zara...
 Bueno, dagoeneko ibili naiz auto baten baino gehiagotan. Errepietan ez, baina zirkuituetan probatu dut eta ahal bezain laster aterako dut gidabaimena.

| PERTSONALA | |
|--|--|
| Zure herriko txoko maiteena: Atxorrotz. | Telefono dei pozgarriena: Monster Energyko ordezkariarena. |
| Auto lasterketa gustukoena: Rallya. | Argazkiak ateratzeko leku bat: Gatebil Drift, Eskandinavia. |
| Auto gustukoena: BMW E 30 M3. | Hurrengo helburua: Kamera ekipoa osatzea. |
| Pilotu gustukoena: Alberto Canedo. | |
| Lasterketa gustukoena: Urbasako igoera. | |

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Eguzki dorrean 84 metro koadroko etxebizitza salgai. Eraberritzeko eta zure gustura uzteko egokia. Prezio interesgarria. 664 59 3170

Bergara. Martokan etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela, despentsa eta trastelekua. Igoailu eta berokuntzarekin. Dena kanpoalderabegira, bi balkoiekin eta oso eguzkitsua. Zoru eta atek berriak eta margotu berria. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. 179.000 euro. 65373 80 65 edo 943 76 07 55

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, hiru bainugela eta lursailarekin. 636 67 16 29

Aretxabaleta. Logela bateko apartamentua ematen da errentan. Irabalarrin, Beroako etxeetan. Garajea barne. 606 72 04 63

Arrasate. Erguin kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelakoa. Jantzia, bizitzera sartzeko moduan. 606 86 71 97

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Urriburu kalean. Hiru logela. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 79 43 88

Bergara. Etxebizitza atsegina, berri berria. Lau logela, bainugela, egongela handia eta sukaldea. Dena kanpoaldera begira, ikusmira zabalekin, oso argitsua eta lasaia. Fatxada berri berria. 635 75 91 18

Bergara. Bolun, Aranerreka kalean, etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi komun eta sukalde-egongela. 649 84 67 09

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Bergara. Etxebizitza handia behar du errentan. Hiru logelakoa. Beheko solairua izan behar du. Lau pertsonako familia gara. Gloria. 697 96 45 10

Arrasate. Arrasaten alokatzeko pixu baten bila dabilen bikote langile bat gara. 653 72 43 19

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. 632 17 45 11

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 400 euro ordain ditzaket gehienez ere. Bi edo hiru logelakoa. 671 84 71 71

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Bi edo hiru logelakoa. 632 20 48 63

Debagoiena. Bi pertsonendako etxebizitza behar dut errentan. 699 26 86 62

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Bikote batentzat egokia. Etxeko gainontzeko lekuak erabiltzeko aukerarekin. 722 45 33 59

Lasarte-Oria. Logela ematen da errentan Lasarte-Orian. Eskatzen den bakarran kontratadun pertsonazate. 644 23 91 52

Logela partekatzeko. Arrasate erdialdean logela bat partekatzeko neska edo mutil bat behar du. 693 80 64 18

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. 13 metro koadroko garajea salgai Espoioan. 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garajea hartu nahi dut errentan Zarugalde edo Bizkaia etorbide inguruan. 652 74 03 08

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Gazte talde bat lokal bila. 679 27 55 14

Lokal bila. Arrasateko erdigunetaik urrun ez dagoen lokal baten bila gabilta. Lokala 27 pertsonentzako izan beharko litzateke. Gutxi gora behera 40-60 metro koadrokoa. 15 urteko neska arduratsuak gara eta ez dugu arazorik sortuko. 688 80 24 40

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Haur Hezkuntzan graduatua den neska euskalduna gertu haurrak zaintzeko. Esperientzia handia haurrekin. 618 87 12 97

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

Bergara. Haur Hezkuntzako irakasle ikasketak dituen neska euskalduna umeak zaintzeko gertu. 615 76 29 25

Bergara eta Arrasate. Emakume esperientziaduna umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. 610 34 97 88

Bergara. 49 urteko emakumea edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna. 606 24 79 09

Bergara. Lan bila nabil. 943 76 52 39

Bergara. Lana egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbiketalaran egiten. Esperientziaduna. Maite. 650 17 74 87 edo 943 76 48 46

Bergara. Neska arduratsua ordukako lan bila, nagusiak zaintzen edo garbitasunak eta abar egiten. 631 43 38 95

Debagoiena. Gizonezkoa edozein lan motatan eta edozein ordutegitan lan egiteko prest. 610 12 49 64

Debagoiena. 23 urteko mutila gertu erakuntzan, gerbiketan edota tabernan lan egiteko. 602 48 36 75

Debagoiena. 28 urteko neska gertu edadetu zein umeak zaintzeko edota garbitasun lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. 602 48 36 75

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanekin, atari eta eskalerrak garbituz zein nagusidota umeak zaintzeko. 625 86 99 51

Debagoiena. Emakumea lan bila. Garbitasunak egiten, zaintzaile, kamioi gidari, banaketa lanetan, nagusiak zaintzen eta abar. Autoa eta gidabaimena daukat. 696 32 13 69

Debagoiena. Gizona etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko gertu. Esperientzia handikoa. 602 45 84 63

Debagoiena. Goizetan umeak prestatu eta ikastolara eramateko prest. Etxeko lanak ere egingo nituzke. 659 92 89 23

Debagoiena. Mutil arduratsua, legezko agiriak eta pertsonen zaintzan eskarmentua duena, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile jarduteko gertu. 631 00 42 63

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | saillkatuak@goiena.com | www.goiena.net/saillkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoiena. Mutil arduratsua, legezko agiriarekin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile aritzeko gertu. Zaintzan esperientzia handia dut. 631 00 42 63

Debagoiena. Mutila gertu industrian edo garbiketan lan egiteko. 666 01 13 42

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Garbitasunak egiten, nagusiak zaintzen eta abar. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. 610 12 49 64

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetan jarduteko. Esperientziaduna eta lege agiriarekin. Erakuntzan ere lan egingo nuke. Dario. 631 00 42 63

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu edo baita baserriko lanak egiteko ere. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda ere. 699 09 46 26

Debagoiena. Mutil batek nagusiak zainduko litzuzke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baita baserrian ere. Gidabaimena daukat. Deitu 688 30 26 53 telefono zenbakira

Debagoiena. Nagusiak zaintzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke, astelehenetik egubakoitzeera bitartean. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak eguneratuta daukat. Deitu 603 22 53 66 telefonora

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: garbiketan, tabernan zerbitzari zein sukalde laguntzaile, igeltsari, gidari... Mohamed. Deitu 636 60 48 51 telefono zenbakira

Debagoiena. Mutila nagusiak zainduko gertu. Esperientziaduna eta lege-agiriak ditut. Oscar. Deitu 632 12 40 16 telefono zenbakira.

Debagoiena. Mutila, esperientzia eta informeeekin, nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Autoduna. Disponibilitate guztia. Euskara ulertzen dut. Alfredo. 693 72 41 66

Debagoiena. Mutila ostalaritzan lan egiteko gertu. 699 26 86 62

Debagoiena. Mutil arduratsua nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako gertu. 632 20 48 63

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke. Geriatria ikasketak ditut. 691 03 25 02

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo garbitasunak egiten lan egingo nuke. Orduka edo egun osoz. Baita asteburuetan ere. 632 18 70 27

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: etxeko ardurak zein umeak zaintzen. Orduka edo egun osoz. Baita gauak ere. 648 46 90 51

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: etxeko ardurak zein umeak zaintzen. Orduka edo egun osoz. Baita gauak ere. 675 38 66 37

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketarako edota garbitasun lanak egiteko edota nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua, klinika laguntzaile tituladuna, nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota tabernan lan egiteko prest. Nagusiak zaintzen esperientzia handikoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 617 20 59 43

Debagoiena. Neska arduratsua, oinarritzko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna, lan bila. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Nagusiak zaindu, garbitasun lanak eta abar. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 06 28 04

Debagoiena. Neska espainiarra gertu nagusiak zaindu zein etxeko garbitasunak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientziaduna. 722 32 43 67

Debagoiena. Neska euskalduna, esperientzia eta informeeekin, nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Autoduna. Disponibilitate guztia. Ainhoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzen, tabernan, garbiketan eta abar. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Gidabaimena eta autoa daukat. 697 20 00 86

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko zein garbiketan lan egiteko. Etxean bizi izateko ere gertu. 672 07 68 52

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Nagusi zein umeak zaintzen, garbitasun lanetan, tabernan eta abar. 688 68 12 79

Debagoiena. Neska lanerako gertu: etxeko lanetan, ostalaritzan zein nagusiak zaindu eta pasioan laguntzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 630 20 12 03

Debagoiena. Nikaraguako mutila gertu etxean bertan bizi izaten, egun osoz, orduka edota baserrietan lan egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak ditut. 733 28 81 24

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, zaintza lanak egiten edota garbitasun jardungo nuke, egunez zein gauaz. Autoa daukat. 636 11 23 40

Gipuzkoa. Mutila gertu zerbitzari edo sukaldari lanetan jarduteko. Ostalaritzako bestelako lanetan ere bai. 610 99 28 55

Gipuzkoa. Mutila lanerako gertu: nagusiak zaindu edo denetarik garbitasun lanak. Orduka ere bai. 671 84 71 71

Gipuzkoa. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusi edo umeak zaintzen, taberna, atari eta abarren garbitasunean. Orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu telefono honetara: 600 29 05 24

Harakina. Zazpi urteko eskarmentua dut eta harategian lan egingo nuke. Gidabaimena eta lege agiriak daukat. 631 31 17 61 edo 610 91 33 40

Lan bila nabil. 19 urteko mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko. 647 18 73 74 edo 943 75 20 98

Lan bila. Garbitasunean, nagusien zaintzan edota informatika eta webguneen programazioan lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono honetara: 61804545

Lan bila. Nagusi eta umeak zaintzen eskarmentua dut. Garbiketan ere lan egin dezaket. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 04 15 45

Lan bila. Neska euskalduna goizetan umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest. 659 92 89 23 edo 943 79 39 19

Mutil arduratsua umeak zaintzeko zein etxeko lanetarako. Kaixo, Donostiako gazte bat naiz, magistratzako ikasketak bukatzen dabilena. Haurrekin oso ondo moldatzen naiz eta etxeko lanetan ere nahiko fin nabil. Beraz, laguntza apur bat behar baduzu, ez egin duda eta baldintzak negoziatu genitzazke. Ibai. Interesatuok deitu telefono honetara: 646 09 83 90

Oñati. Erizain laguntzaile tituladuna, prest nagusiak zaintzeko eta baita etxeko lanak egiteko ere. Goizez. Maite. Interesatuok deitu telefono honetara: 677 05 39 06

Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Bergaran, Arrasaten, Eskoriatzan edo Aretxabaletan zapatu eta domeka goizetan lan egiteko gertu. Pertsona nagusiak zaindu eta bestelako lanak. 696 84 19 51 edo 943 53 29 18

Sukaldaria. Esperientzia duena, lan egiteko prest. Lorea. Interesatuok deitu telefono hauetara: 677 64 84 82 edo 943 53 34 24

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. 1.DBHko eskola partikularrik emango dizkidan norbait behar dut. Trukean, etxeko garbitasunak egin edo umeak zainduko nitzioke. 659 62 02 49

Ingelesa. Ingeleseko eskolak hartuko nituzke, unibertsitateko ikaslea naiz. Arrasaten, Eskoriatzan edo Aretxabaletan. 636 05 36 18

502. EMAN

"Ikasteko teknikak" ikastaroa. Ikastaro trinkoa. 90 minutuko 10 saio. Ikas ezazu hobeto ikasten eta praktika itzazu metodo egokiak. Talde dinamika estimulagarri eta dibertigarriak. Gutxienez sei lagunekoa taldeak. Adina: 10 urtetik 17ra. Bergaran, Arrasaten eta Oñatin. Interesatuok deitu honetara: 634 59 55 94

Bergara. Eskola partikularrik emango nituzke Lehen Hezkuntzan, lehenengo mailatik 6. mailara arte. 943 76 14 14 edo 618 39 03 74

Oñati. Neska euskalduna Debagoienan eskola partikularrik emateko prest. Desplazatzeko arazorik gabe. LH, DBH zein Batxilergoan. Ingenieritzan lizentziatua eta CAP tituluarrekin. Klase indibidualizatuak ematen esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 52 50 22

GARAJE ITXIAK SALGAI URIBARRI AUZOAN (ARRASATE)

- Aireztatuak eta 4 metro baino gehiagoko altuera.
- Camper estiloko furgonetentzat edota kirol materiala gordetzeko egokia.



INFORMA ZAITEZ!
943 31 68 68

6. MOTORRA

602. EROSI

Mobilete bila. Mobilete bat hartu, trukatu (bateria elektriko edo gitarra akustiko bategatik) edo erosiko nuke (prezio onean). Papelak edukidatza. Mila esker. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 734 553

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Perikitoak. Perikito bikote bat ematen da opari. Arra berdea eta emeahoria. Kaiola ere oparitzen da. 943 71 82 74 edo 685 75 31 29

Txakurkumeak. Ardi txakurkumeak ematen dira Urbiako Fundan. 943 78 13 16

Txakurkumeak. Bull terrier eta cocker arteko nahasketa diren txakurkumeak ematen dira opari. Hiru hilabete dute. 686 07 61 60

8. DENETARIK

801. SALDU

Ohe artikulatua. Ohe artikulatua, elektrikoa, salgai. 1,05m zabalerakoa. 750 euro. 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

802. EROSI

Bizikletak eramatekoa. Volkswagen Caddy batentzat balio dezakeen bizikletak eramateko behar dut, atzeko portoiaren jartzen den horietakoa. Ez dut bolarik, ezta zapaian jartzeko nahirik ere. Eskerrik asko. 660 43 64 29

804. HARTU

Erradiadoreak. Etxetik kentzeko dituzun erradiadoreak hartuko genituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 13 07 56

808. BESTELAKOAK

Arrasate-Elgoibar. Asteleheneetik ostiralera Arrasateetik Elgoibarrera joaten naiz lanera autoan. Arratsaldez irten eta gauaz itzultzen naiz Arrasatera. Elgoibarren lan egin edo IMHko ikasle bazara, adibidez, bidaiaren gastuak konpartitzeko prest nago zurekin. 600 77 05 56

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Saskibaloian jolastu nahi duzu? Astelehenean, 19:00etan. Almenen saskibaloian jokatzeko taldeak bila gabilta 18 urtetik gorako neska talde bat gara. Animazaitz! saskineski@gmail.com 653 74 86 26 edo 670 35 79 13

ASTEAGOIENAN



AMAIA TXINTXURRETA

Oñatiko jaien gaineko saio berezia

Aurtengo Oñatiko San Migel eta Errosarixo jaiak eman dutena ikusi ahal izango duzue gaur, egubakoitza, eskainiko dizuegun saio berezian. Hala, Oñatin jaietan izan diren ekitaldiez gainera, kaleko giroa ere ikusi ahal izango duzue saioan.

'Oñatiko jaiak'

Egubakoitza, 21:56



EKOGUNE.NET

'Ekogune' saioa bueltan dator

Lehenengo saioan Kutxa Ekogunearen Gazte Ekoliderrak programa ezagutuko dugu, erreportajearen atalean. Saioko elkarriketaren tartean, berriz, Tytti Thusberg *slow fashion* mugimenduko diseinatzailea ezagutuko dugu.

'Ekogune'

Eguaztena, 21:25

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 11

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Kantari
13:30 Bideo klipak
13:55 AZK2012
14:25 Planik bai?
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Jaiak: Aretxabaletako San Migel jaiak
16:03 Zorion Agurrak
16:09 Planik bai?
16:33 Berriak
16:58 Eguraldia
17:01 AZK2012
17:31 Bideo klipak
17:51 Artearen ibilbidea
18:01 Altxorren bila
18:38 Planik bai?
18:58 Zorion Agurrak
19:03 Berriak
19:33 Eguraldia
19:38 Kantari
20:08 Planik bai?
20:33 Zorion Agurrak
20:38 Berriak
21:03 Eguraldia
21:06 Planik bai?
21:26 AsteON
21:56 Jaiak: Oñatiko jaiak
22:56 Planik bai?
23:16 Berriak
23:41 Eguraldia
23:44 AsteON

ZAPATUA, 12

10:00 Bideo klipak
10:30 Altxorren bila
11:00 Magazinea
12:00 Planik bai?
12:20 Berriak
12:35 Ikusmira
12:56 Onein
13:18 Bideo klipak
13:48 AsteON
14:18 Magazinea
15:18 Zorion Agurrak
15:23 Onein
15:58 Planik bai?
16:18 Bideo klipak
16:48 Bertso Txapelketa Nagusia
17:33 Jaiak: Oñatiko jaiak
18:23 Zorion Agurrak
18:28 Ikusmira
18:46 Ikusmira
19:07 Berriak
19:22 Magazinea
20:22 Planik bai?
20:42 AsteON
21:12 Planik bai?
21:32 Jaiak: Oñatiko jaiak
22:22 Magazinea
23:22 kirolak
23:52 AsteON

DOMEKA, 13

10:00 Magazinea
11:00 Zorion Agurrak
11:05 Jaiak: Oñatiko jaiak
11:55 Onein
12:20 Berriak
12:35 Planik bai?
12:55 Magazinea
13:55 Altxorren bila
14:25 Magazinea
15:25 AsteON
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Ur eta lur
16:30 Magazinea
17:30 Bideo klipak
17:50 Antzerkia
18:05 Ikusmira
18:26 Ikusmira
18:44 Bideo klipak
19:14 Magazinea
20:14 Zorion Agurrak
20:19 Jaiak: Oñatiko jaiak
21:09 AsteON
21:39 Magazinea
22:39 Berriak
22:54 kirolak
23:24 Ikusmira

ASTELEHENA, 14

12:00 Magazinea
12:45 Kantari
13:15 AsteON
13:45 Ikusten
14:18 Ikusten
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:15 Eguraldia
15:18 Zorion Agurrak
15:23 Ikusmira
15:54 Zorion Agurrak
16:01 Onein
16:31 Berriak
17:01 Eguraldia
17:04 Zorion Agurrak
17:09 AsteON
17:39 Altxorren bila
18:09 Jaiak: Oñatiko jaiak
19:00 Zorion Agurrak
19:05 Berriak
19:30 Eguraldia
19:33 Kantari
20:03 Zorion Agurrak
20:10 Magazinea
20:55 Berriak
21:20 Eguraldia
21:25 Harmailatik
22:10 Berriak
22:35 Eguraldia
22:38 Magazinea
23:23 Gurean gaur

MARTITZENA, 15

12:00 Magazinea
12:45 Harmailatik
13:25 Kantari
13:50 Ikusmira
14:08 AsteON
14:38 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:58 Onein
16:28 AsteON
16:58 Berriak
17:23 Eguraldia
17:26 Ikusten
18:01 Harmailatik
18:46 Ikusmira
19:01 Zorion Agurrak
19:06 Berriak
19:31 Eguraldia
19:34 Kantari
20:04 Zorion Agurrak
20:10 Magazinea
20:55 Berriak
21:20 Eguraldia
21:23 Bertso Txapelketa Nagusia
22:08 Berriak
22:33 Eguraldia
22:36 Magazinea
23:21 Gurean gaur
00:10 Gurean gaur

EGUAZTENA, 16

12:00 Magazinea
12:45 Onein
13:05 Kantari
13:35 Ikusten
14:10 AsteON
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Klaketa
15:43 Harmailatik
16:28 Zorion Agurrak
16:33 Berriak
16:58 Eguraldia
17:01 Harmailatik
17:41 Onein
18:06 Ikusmira
18:37 Zorion Agurrak
18:42 Erreportajea
19:00 Berriak
19:20 Eguraldia
19:23 Bideo klipak
19:43 Baletz asmatu!
20:13 Magazinea
20:58 Berriak
21:23 Eguraldia
21:25 Ekogune
21:55 Berriak
22:40 Eguraldia
23:10 Magazinea

EGUENA, 17

12:00 Magazinea
12:50 Onein
13:10 Kantari
13:40 Ekogune
14:10 Bideo klipak
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Ikusmira
15:34 Zorion Agurrak
15:39 Altxorren bila
16:09 Ikusten
16:44 Berriak
17:09 Eguraldia
17:12 Onein
17:47 Planik bai?
18:07 Ikusmira
18:28 Ekogune
18:58 Berriak
19:18 Eguraldia
19:21 Planik bai?
19:41 Kantari
20:08 Magazinea
20:53 Berriak
21:18 Eguraldia
21:21 Planik bai?
21:41 Berriak
22:11 Eguraldia
22:14 Magazinea
22:59 Gurean gaur

ARRASATE IRRATIA

'El sueño de una noche de verano' ikusteko sarrerak

Sarrerak zozketatuko ditugu hilaren 19an Amaia antzokian 19:30ean eskainiko den *El sueño de una noche de verano* dantza ikuskizunerako. Sarrerak lortzeko, hartu parte zozketan 943 25 05 05 telefonora deituta, edo, bestela, idatzi irratia@goiena.com helbidera.

Asteko gainbegiratu zapatu eta domekan 10:00etatik aurrera

Asteazkenean Arrasate Irratik *Igo autobusera!* irratia entzun ditugun elkarrizketekin gozatzeko aukera izango duzue. Besteak beste, entzun ahal izango duzue Iñaki Mayor Arrasateko aktoreari egindako elkarrizketa. Mayorrek bihar Amaian eskainiko du *Sutondoan* antzerkia.



Joaquin eta Elisa

Bergarako Joaquin Rodriguezek eta Elisa Garmendiak urrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar, urriaren 12an. Senide guztien partetik, "zorionak eta oso ondo pasatu; bereziki, Ibonen eta Olaiaren partetik. Musu handi bat".



Francisco eta Sebastiana

Aramaioko Francisco Elejaldek eta Sebastiana Mondragonek 50 urte beteko dituzte ezkontuta bihar, urriaren 12an. Familiarekin batera ospatuko dute egun garrantzitsu hori. "Zorionak eta halaxe jarraitu, etxeko guztien partetik!".



Isabel eta Martin

Isabel Alonso eta Martin Crespo 1963ko urriaren 12an ezkondu ziren. Urrezko ezteiak bihar, zapatua, ospatuko dituzte familiakoekin batera. "Etxeko partetik, zorionak eta musu handi bana".



Ana Mari eta Juan

Arrasateko Ana Mari Fernandezek eta Juan Lasagak 55 urte egingo dituzte ezkontuta gaur, urriak 11. "Seme-alaben, biloben eta birloben partetik, zorionak, ondo pasatu eta musu handi bat, bikote! Orain arte bezain guapo jarraitu!".



Izar eta Xabi

Arrasateko Izar Larrañaga eta Bilboko Xabi Garin bihar, zapatua, ezkonduko dira. "Kaixo, bikote! Larunbat honetan Axpeko elizan ezkonduko zarete eta ondoren Akebaso jatetxean egun ederra ospatuko dugu! Mendi gailur asko igo, bikote! Musu potolo bat!".



Fermin eta Juanita

Zubillagako Fermin Guridik eta Juanita Letek urrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar, zapatua. "Zorionak, ezkontuta daramazuen 50 urteengatik. Espero dugu primeran pasatzea zuen egun berezi honetan! Askok maite zaituztegu! Familiakoak".

URTEURRENA

Mertxe Aranguren Beitia

F. Ibabe eta L. Iturberen alarguna



Arrasaten hil zen 2012ko urriaren 8an, 85 urte zituela.

Bere oroimenez, lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 13an, 12:30etan, Musakolako Santa Teresa elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2013ko urriaren 11n.

URTEURRENA

**Juanita Calboecheaga Zabaleta**

2012ko urriaren 10ean hil zen, 78 urte zituela.

Oroitzen zaitugu zeru sabaian eskegita dagoen izarra bezala.

Bere senar Javier Oyarzabalek, seme-alabek eta bilobek.

Urteurren meza igandean, urriaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko dugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko urriaren 11n.

URTEURRENA

Jesus Ibañez Badiola

2012ko urriaren 29an hil zen, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko urriaren 11n.

URTEURRENA

Valentina Azkarraga Sarraoa

Carlos Agirre Arenazaren alarguna



2012ko urriaren 12an hil zen, 87 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko urriaren 11n.

URTEURRENA

Manoli Ubierna Imaz

1938/03/26 - 2008/10/07

Beti izango zara gure bihotzetan.

Bergaran, 2013ko urriaren 11n.

URTEURRENA

Jose Luis Irizar Balzategi

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 12an.

Udazkeneko haizikiak fan zitiñala pasau dia 5 urte, tartian etorri dia Danel, Unai ta Elene, beste batzuk fan dia azkena Dolares ain dala 2 aste Axximiko tertulixetan beti egongo zai presente.

Etxekuak. Oñatin, 2013ko urriaren 11n.

HILDAKOAK

Beatriz Lazkano Iñarra. Arrasaten, irailaren 13an. 85 urte.
Jabier Alberdi Larrañaga. Bergaran, urriaren 4an. 54 urte.
Enrike Arana Mendikute. Arrasaten, urriaren 5ean. 68 urte.
Luis M. Lasa Salaberria. Arrasaten, urriaren 5ean. 68 urte.
Francisco Moracho Garcia. Bergaran, urriaren 5ean. 57 urte.
Angela Iriondo Amiama. Arrasaten, urriaren 6an. 83 urte.
Basili Txintxurreta Goenaga. Oñatin, urriaren 7an. 91 urte.
Mila Gallastegi Alberdi. Bergaran, urriaren 8an. 71 urte.
Carmen Muñoz. Bergaran, urriaren 8an. 81 urte.
Manuela Vidriales Gamito. Arrasaten, urriaren 9an. 84 urte.
Federico Palencia Gallo. Arrasaten, urriaren 9an. 90 urte.
Amando Ramon Fernandez Varela. Arrasaten, urriaren 10ean. 77 urte.

ESKER ONA

Basili Txintxurreta Goenaga

Agustin Kortabarriaren alarguna



Oñatin hil zen 2013ko urriaren 7an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko urriaren 11n.

ESKER ONA

**Lucas Diaz Granada**

2013ko irailaren 27an hil zen, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko ondra meza domekan izango da, urriaren 13an, 12:30etan, Oñatiko agustindarren elizan.

Bertaratuko zaretenoi, alde zurretik, eskerrik asko. Oñatin, 2013ko urriaren 11n.

ESKER ONA

Mila Gallastegi Alberdi

Jose Mari Lizarabururen alarguna



2013ko urriaren 8an hil zen, 71 urte zituela.

Seme-alabak: Selena, Unai; ana-arrebak: Carlos eta Rosita Uribarren; ezkon ama: Rosario Urresti; koinatu-koinatak: Tomas (+) eta Conchi Recalde (+); Javi eta Esther Tranke, Susana; ilobak, lehengusuak eta beste senide guztiek

eskerrak eman nahi dizkizute hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi.

Bergaran, 2013ko urriaren 11n.

ESKER ONA

**Javier Ayastuy Ugarte**

Arrasaten hil zen 2013ko irailaren 26an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara eta ondra mezara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Arrasaten (Gesalibar), 2013ko urriaren 11n.

**Milagros eta Iñaki**

Oñatiko Milagros Elorzak eta Iñaki Urzelaik urrezko ezteiak bete zituzten aurreko egubakoitzean, urriaren 4an. "Zuen 50. urteurrena egun zoriontsua izan dadila, familiako guztion partetik".

**Jesus eta Mari Luz**

Antzuolako Jesus Agirrek eta Mari Luz Alzerrekak 50 urte bete dituzte ezkontuta, gaur, urriak 11. "Zuen urrezko ezteiak direla eta, zorionak, familia osoaren partetik, eta horrela jarraitu. Pila bat maitate zaituztegu! Familiakoak".

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.maribi 617 44 21 55
BERGARA

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA

Mud
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Los pitufos 2
Domeka: 17:00.
El ejercicio del poder
Martitzena: 20:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

El hobbit: un viaje inesperado
Domeka: 19:30.

Jack el caza gigantes
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Amaren eskuak
Egubakoitzak: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Los pitufos 2
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Ahora me ves
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Mud
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Aviones
Zapatua eta domeka: 17:00.

El mayordomo
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Zipi y Zape, el club de la comedia
Egubakoitzak: 16:45, 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45, 18:30.
Astelehena: 17:00.

Las brujas de Zugarramurdi

Egubakoitzak: 17:30, 20:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 20:00.
Astelehena: 17:30, 20:00.

El último concierto
Egubakoitzak: 17:00.
Astelehena: 18:00.

Gloria
Egubakoitzak: 18:50, 20:45.
Astelehena: 20:15.

La mujer conejo
Egubakoitzak: 17:00, 20:30.
Astelehena: 17:00, 20:30.

Amaren eskuak
Egubakoitzak: 18:45.

Prisioneros
Egubakoitzak: 17:00, 19:45.
Astelehena: 17:30, 20:30.

El amor amargo de Chavela
Egubakoitzak: 16:50.
Astelehena: 17:00.

Gravity
Egubakoitzak: 18:00, 20:15.
Astelehena: 18:15, 20:15.

La herida
Egubakoitzak: 20:15.
Astelehena: 20:15.

Runner runner
Egubakoitzak: 17:00.

El mayordomo
Egubakoitzak: 18:45, 21:30.
Astelehena: 18:45.

BOULEVARD

Prisioneros
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehena: 19:00, 22:00.

El mayordomo
Zapatua eta domeka: 15:50.
Egubakoitzak: 23:50.
Astelehena: 18:30, 21:15.

Percy Jackson
Astelehena: 17:35.

El medico aleman

Zapatua eta domeka: 15:40.
Egubakoitzak: 23:40.
Astelehena: 17:40, 19:40, 21:40.

The bling ring
Egubakoitzak: 00:40.
Zapatua eta domeka: 16:40, 20:40, 22:40.

Gravity 3D
Egubakoitzak: 23:45.
Astelehena: 19:45, 21:45.

Gravity
Egubakoitzak: 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:40, 20:40, 22:40.

Las brujas de Zugarramurdi
Zapatua eta domeka: 15:30.
Astelehena: 17:50, 20:15, 22:40.

Runner runner
Egubakoitzak: 00:15.
Astelehena: 20:00, 22:00.

Metallica 3D
Egubakoitzak: 22:00, 00:00.
Domeka: 20:00.

2 guns
Egubakoitzak: 19:45.
Domeka: 22:00.

Rush
Egubakoitzak: 00:30.
Astelehena: 22:10.

Zipi y Zape y el club de la canica
Zapatua eta domeka: 16:15.
Astelehena: 18:15, 20:15.

La gran familia española
Astelehena: 17:45.

Justin y la espada de valor
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehena: 18:00.

Los pitufos 2
Zapatua eta domeka: 15:30.

GORBEIA

Jobs
Egubakoitzak: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00.

Las brujas de Zugarramurdi

Egubakoitzak: 17:45, 20:00, 22:15.
Zapatua: 00:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.
Astelehena: 18:30, 20:45.

Zipi y Zape
Egubakoitzak: 17:50, 19:50.
Zapatua eta domeka: 15:50.
Astelehena: 17:45.

Runner runner
Zapatua: 00:30.
Egubakoitzak: 20:30, 22:30.

2 guns
Egubakoitzak: 20:10, 22:20.
Astelehena: 19:00, 21:00.

Rush
Zapatua: 00:40.
Egubakoitzak: 20:30, 22:30.
Astelehena: 20:30.

La gran familia española
Egubakoitzak: 20:00, 22:00.
Astelehena: 18:15.

Cruce de caminos
Zapatua: 00:20.
Egubakoitzak: 21:45.
Astelehena: 19:45.

Asalto al poder
Zapatua: 00:30.

Percy Jackson y el mar de los monstruos
Egubakoitzak: 18:00.
Astelehena: 18:00.

Justin y la espada de valor
Zapatua eta domeka: 16:20.
Egubakoitzak: 18:20.

Epic
Egubakoitzak: 18:30.

Aviones
Zapatua eta domeka: 15:40.

Monstruos university
Zapatua eta domeka: 15:45.

Gru 2
Zapatua eta domeka: 16:30.



ESKORIATZA Malenkonia, Eko D Bull eta Bagauda

Eskoriatzako zaharren egoitzarako dirua batzeko gargardo azoka egingo dute. Askotariko ekitaldiak egingo dituzte, eta, besteak beste, Malenkonia oñatiarrek euren azken lana aurkeztuko dute Eskoriatzan

Gaur, egubakoitza, Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etatik aurrera.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

URRIA 11
URRIA 17

ANTZERKIA

ARRASATE 'Sutondoan' haur antzerkia

A-Teatral antzerki taldeak *Sutondoan* antzezlan eskainiko du Arrasaten. Itzalak, koloreak, txotxongiloak eta musika batzen dituen euskal mitologiari buruzko antzerki ikuskizuna. Iñaki Mayor arrasatearra da antzezlaneko hiru aktoreetako bat. Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

BERGARA 'Kar-kartzelan': Eneritz Artetxe eta Aitor Navarro

Umorezko bakarriketak Bergarako gaztetxean. Aitor Navarro antzerkigintzatik da ezaguna, betidanik umoreari oso lotua egon arren. Eneritz Artetxe aditua da dramatismoan, baina umorearen erregistroan eroso sentitzen dela erakutsiko du. Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

IRTEERA

ANTZUOLA Irteera mendiko bizikletan Bardeetara

Arrola mendi taldeak antolatutako irteera. Bihar, zapatua, 08:00etan.

ESKORIATZA Eskoriatzako EAJ alderdiaren mendeurrena: mendi irteera

Jeltzaleen urtemuga ospatzeko ibilaldia egingo dute Atxorrotzera. Bihar, zapatua, Fernando Eskoriatza plazatik, 09:30ean.

OÑATI Mendi ibilaldia: Oñati-Arrikutz-Arantzazu

Arantzazuko Parketxeak antolatuta, Arantzazuko Adiskide Elkartearen lankidetzarekin. Izena emateko edo informazio gehiagorako: 943 78 28 94 telefonora deitu behar da. Etzi, domeka, Arantzazuko parketxean, 10:00etan.

HITZALDIAK

OÑATI 'Erreak garbitu: zergatik?' delako hitzaldia

Urgarden taldeko Ainara Gartzia egingo du berbaldia. Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI 'El reto de la gestión sostenible del agua en Debagoiena' delako hitzaldia

Uraren Euskal Agentziako planifikazio eta obra zuzendaritzako kide Victor Peñak emango ditu azalpenak. Urriaren 14a, udaletxe osokoan, 19:00etan.

OÑATI Lope de Aguirren garaiko Oñatiz eta Lope de Aguirren jatorriaz Jose Antonio Azpiatzuk Lope de Aguirren garaiko Oñati eta inguruko egoera ekonomiko eta

soziala azaltzeko hitzaldia egingo du. Jerardo Elortzak, berriz, Lope de Aguirren jatorria eta film batzuek hari buruz emandako irudia izango ditu aztergai. Urriaren 15a, kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE 'El reto de la gestión sostenible del agua en la CAPV' delako hitzaldia

Uraren Euskal Agentziako planifikazio eta obra zuzendaritzako kide Victor Peñak emango ditu azalpenak. Urriaren 16a, Kultureteko Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean.

ARRASATE Cristobal Gutierrezen berbaldia

Haurraren arima zaintzeko begirada bat delako liburuaren sortzaileak egingo du berba. Urriaren 17, Kulturaten, 18:00etan.

KRITIKA

Thriller sutsua

Aurtengo zinemaldian Denis Villeneuvek bi film aurkeztu izan ditu:

Enemy eta *Prisioneros*. *Enemy* lan interesgarria da.

Zuzendariak istorioari amesgaizto kutsua emanez, atmosfera bereziak eta kezkarriak sortzeko ahalmena erakusten du. Tamalez filmaren bukaera ulergaitzak ez dio mesede handirik egiten. *Prisioneros*en ikus ditzakegu aipatutako ezaugarriak. Filma thriller sutsu bat da. Villeneuvek klima itogarria sortzen du, eta amesgaiztoen urduritasuna eta giro kaltegarria pertsonaien barnera sartzen da. Dena oso ondo azaldua dago. Bi haur desagertu egiten dira. Bahituak izan dira eta poliziak badu susmagarria den mutil bat. Frogak nahiko ez direnez kalera irtengo da. Hortik aurrera desagertutakoen gurasoak justiziarengan konfiantza galduko dute, eta euren kabuz egoera konpondu nahiko dute.

Guztia azaltzeko zuzendariak ia bi ordu eta erdi erabiltzen ditu, baina filma ez da batere luzea egiten. Ikusleak jakinmina izango du zer gertatuko den, gaizkilea nor den eta neskatilen egonleku eta

PRISIONEROS ★★★★★

Zuzendaria: Denni Villeneuve.

Herrialdea: Xxx.

Aktoreak: Hugh Jackman, Jak Gyllenhaal, Paul Dano, Melissa Leo.

egoera ezagutzeko. Istorioan biraketa handiak eta ezuste ugari izango dira eta tentsioa pil-pilean mantenduko da. Suspentsearekin batera interes handia du pertsonaiekin gertatutakoak eta gertatzen ari denak duen eragina: haurren gurasoengan, kasua ikertzen ari den poliziarengan... Denek aldaketa nabarmenak jasango dituzte eta batzuk bide okerra aukeratuko dute. Horrela ikuslea astindua sentituko da: arruntak ematen duten pertsonaiak portaera zalantzarriak izaten, eta agian guk halako egoeran zer egingo genukeenaren kezka sortzen. Hugh Jackman-ek egiten duen pertsonaiarenganako gorrotoa, eta aldi berean konplizitate apur bat sentitzen dugu. Gizakiaren alde razionala eta basatia agertuko da. Suspentsea eta moralaren gaiak nahasten dira, eta ikuslea, sortzen den infernu horren erdian egongo da.

ANTONIO ZABALA



GOIENA

OSPAKIZUNAK

ESKORIATZA Eskoriatzako EAJren mendeurrena: bideoa

Lehendakari Agirre: Desde Ger-nika a Nueva York pasando por Berlin proiektzioa emango dute jeltzaleek Ibarraundin.

Gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoa, 19:00etan.

ESKORIATZA Eskoriatzako EAJ alderdiaren mendeurrena: meza
Hildako alderdikideen oroime-nezko meza San Pedro elizan. Etzi, domeka, San Pedro elizan, 12:30ean.

ARAMAIO 'Irati Libre' eguna: elkartasunetik konpromisora

Irati Muxikaren aurkako epai-keta salatzekeo aldarrikapen eguna antolatu dute Bizente Goikoetxea plazan. 11:00etan horma-irudi erraldoia marrazten hasiko dira parte-hartzaileak eta 12:00etatik aurrera pintxo-poteoa egingo dute. Aldi berean, herria girotzeko beste hainbat ekitaldi egongo dira: txalaparta, alboka, bertsolariak, trikitilariak, musika emanaldia eta plazako dantzak, besteak beste.

Bihar, zapatua, Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etan.

OÑATI 'Agirreko Lope zatitua'

Agustin Goenaga oñatiarrak 1995ean egindako dokumentala erakutsiko dute, Lope de Agirre-

ren heriotzaren urteurrenaren harira antolatutako ekitaldien barruan.

Etzi, domeka, San Pedro elizan, 12:30ean.

DEIA

OÑATI Odol ateratzea

Odola ematera joateko dei egin dute Oñatiko odol-emaileen taldeko kideek. Hurrengoak egingo dituzte azaroaren 15ean eta abenduaren 13an.

Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:30ean.

ARETXABALETA Erreka garbiketa

Ura eta Errekaren Astea Deba Ibarrean ekimenaren barruan,



ELKAR

ARETXABALETA Hipo eta Tomax
Hipo eta Tomax pailazoez emanaldia egingo dute etzi: *Mendizaleak*. Pailazo bikoteak askotariko abenturak bizi izango ditu mendirako ibilaldi baten. Umeek haiekin parte hartzeko aukera izango dute. Sarrerak Arkupe kultura etxeke sarreran eros daitezke, 3 euroren truke. Etzi, domeka, Arkupeko Zaraia aretoan, 17:00etan.

garbiketa egingo dute Aretxabaletan. Errekan ibiltzeko oinetako egokiak eta eskularruak eroatea gomendatzen da. Ondoren, lunch txiki bat egingo dute Herriko Plazan.

Etzi, domeka, Herriko plazan, 09:00etan.

OÑATI Erreka garbitzeko deialdia

Ugarkaldetik Kasablankarainoko erreka zatia garbitzeko asmoa dute, baina laguntzaile kopurua arabera zehaztuko dute zer eta nola egin.

Etzi, domeka, Foru plazan, 09:00etan.

ARETXABALETA Odol ateratzea

Odola ematera joateko dei egin du odol-emaileen taldeak. Urriak 14, osasun zentroan, 16:30ean.

LEHIAKETAK

ARAMAIO 'Zuiako Koadrilari begirada bat' argazki lehiaketa
Zuiako Koadrilak antolatzen duen *Zuiako Koadrilari begirada bat* lehiaketa martxan da. Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 16a izango da. Urriaren 16a, udaletxean, 08:00etan.

IKASTAROAK

ESKORIATZA Alanbre eta fimo tailerra
Gaztelekuan astero egiten dituzten ekintza berezien barruan, urriaren 11tik 13ra alanbre eta fimo tailerra egingo dute. Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 16:30ean.

ERAKUSKETAK

BERGARA Bingen de Pedoren margolanak
Margolanak ikusgai egongo dira urriaren 13ra arte. Etzi, domekara arte, Aroztegin, 18:00etatik aurrera.

OÑATI Cazenave eta Marotoren argazkiak
Ilunpetan taldeak antolatutako argazki festibala irekiko duen erakusketa da. Arantzazurako bereziki sortutako lanak dira. Azaroaren 3ra arte, Arantzazuko topagunean, 11:00etatik 18:00etara.

Haritz Larrinaga
Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Aramaioko komertziala

Igone Osinaga
Arrasate eta Leintz Gatzagako komertziala

Zigor Kobeaga
Bergara, Antzuola eta Elgetako komertziala

Martxan da Goiena Gida!

Komertzial hauen bisita jasoko duzue datozen egunotan zuen komertzioetan

2014an, osatuagoa, berritua, hobea

Sarean, mugikorretan, tabletetan eta paperean

Gidan azaldu gura baduzu, deitu **943 25 05 05** telefonora edo etorri gure egoitzetara:
Arrasate. Otarora Lizentziaduna 31.
Aretxabaleta. Basabe industrialdea E05.



Zuzeneko deia egiteko aukera.
Geolokalizazioa.
Nola joan adieraziko dizugu.



Bisita ezazu:
www.goiena.net/gida



Papereko edizioan zure negozioaren berri **20.700** etxetan.

goienagida™ 2014



OÑATI
BERGARA
ANTZUOLA
ELGETA
ARRASATE
ARETXABALETA
ESKORIATZA
LEINTZ GATZAGA
ARAMAIO



goiena

2013-10-11

BUKATZEKO

On Egin, Berlin, Maritxu eta pintxoekin

- ▶ Arrasaten bizi izan zen Josu Outeiralek On Egin taberna dauka Berlingo Neukölln auzoan
- ▶ Pintxo-poteoa ematen dute martitzenero, eta, joan den astean, Maritxu Kajoi ospatu zuten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Berlin inguruan euskaraz entzuteko eta pintxo-poteoa egiteko aukera dago azkenaldian. Arrasaten sei urtez bizi izan zen Josu Outeiral 27 urteko gaztea da bertako jabeetako bat: "Orain dela urtebete beste lagun batekin hitz egiten erabaki genuen taberna edo jatetxe bat irekitzea". Neukölln auzoan dago taberna hori, On Egin.

Josuk dioenez, "hasieratik nahiko ondo" doa taberna; izan ere, "Berlinen kalean afaltzeko ohitura dago" eta jabeek jendea erakartzeko gauzak antolatzen dituzte.

Hemendik eroandako ohituretako bat pintxo-poteoa da. Martitzenero egiten dute. "Askotariko pintxoak prestatzen ditugu: aste baten kroketak, beste baten piper berdeak patata frijituekin...".

Euskaraz entzuten da

Outeiralek dioenez, "On Eginera bai alemanak, bai euskaldunak" joaten dira, eta herri-mina duenak hara joan besterik ez dauka, "oso arrunta" da-eta "mahaietan euskara entzutea".

Hizkuntza bakarrik ez du eraman Outeiralek Berlinera: "Aurten Maritxutan Berlinen



Josu Outeiral, tabernan. | JOSU OUTEIRAL



On Egin taberna inauguratu zuten eguneko argazkia. | JOSU OUTEIRAL

egon naiz. On Eginen lan egiten duen Bergarako lagun baten eta bion artean Maritxu Kajoi antolatu genuen tabernan; biok dotore-dotore jantzita jendea animatzea lortu genuen", esan digu.

Beti dago martxa Berlinen

Atzerrira joatea pentsatzen hasi zen Outeiral 2009an. Berlinen astebeteko oporrak pasatu ondoren erabaki zuen han bizi izatea. Berlin asko gustatzen zaio: "Hiriko zerbitzuak dauzka, baina herriko bizimodua; bizikleta da garraio-bide nagusia, auto gutxi eta bizi-modu lasaia ditu", eta han bere "tokitxoa" egitea lortu du. Gaine-



On Egin-eko pintxo eta tragoa. | J.O.

ra, hirian "beti martxa" dagoela dio –"eguazten baten ere irten zaitzke parranda egitera eta toki guztiak beti beteta daude"–, gauza ona ostalaritzan lan egiten dutenendako.

Dena ez da zoragarria, ordea: "Berlinen, bizitza gero eta zailagoa da; *minijob* gehiegi eta alokairu garestiak daude. Gero eta atzerritar gehiago etortzen dira pentsatzen Berlinen aukerak daudela, baina ez da horrenbesterako".

Outeiralek oraindik "lotura" dauka Arrasaterekin, eta, Euskal Herrira etortzen denean, "derri-gorrez" Arrasatera etorri behar izaten du, lagunak ikustera.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Igeldo vs Bergara

Igeldoko zenbait biztanlek donostiar izateari utzi nahi omen dio. Igeldoren desanexioa eskatzen omen dute askok. Ekimen honen alde zenbat igeldotar dagoen jakiteko galdeketa antolatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aldundiko parte-hartze zuzendariak adierazi du "pozgarria" dela halako prozesu bat abiatu izana. "Herritarrei emango diegu hitza, agindu genuen moduan", izan dira zuzendariaren hitzak. Bergaran, aldiz, azken urte honetan bergarar asko eta asko kezkatzen dituen atez ateko hondakin eta zabor bilketa sistemaren aurka eta bosgarren edukiontzien alde, zenbat jende dagoen jakiteko galdeketa eskatu dute ia 4.700 herritarrek sinadura bidez, eta beste askok poltsak balkoietan zintzilikatuz. Bergara izan da poltsen ekimenaren sortzaile eta bergararrak protesta masiboa egiten lehentakoak Gipuzkoa osoan. Igeldo baino gutxiago ote Bergara? Bergarar herritarron hitza entzuteko eskubidea nork uka dezake? Gupil arriskutsu batean sartu gara. Zergatik ditu Bilduk bi neurri desberdin? Arrazoa alderdikeria ote? Gobernatzeko modu berria nabarmenkeria hauek egitea bada, ez da harritzekoa herritarrek euren burua politika-riengandik geroz eta urrunago sentitzea.

EKO GUNEA

DENBORALDI BERRIA!

GOIENA TELEBISTA | EKO GUNEA

EGUAZTENERO, 22:00 | JULEN IRIONDOK AURKEZTUA



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena